



Eguberriak 2010

Agenda, aholkuak...

BORTZIRIAK → 17

Arreta goiztiarrerako
fisioterapeuta eskatuz

DONEZTEBE → 19

Mendiaren Eguna
abenduaren 18an

LEITZALDEA → 46

Emakumeen aurkako
indarkeria dela-eta gida

SARA → 3/55

Integrazio Batzordearen
alde igandean ikusgarria



Bigarren urtez 'Ni ere Pilotari' txapelketa

Emakumeen pilota indartzeko helburuarekin paratu dute abian 'Ni ere Pilotari' txapelketa. Abenduaren 12an hasita lau jardunaldi jokatu dira eta finala urtarrilaren 16an egingen da Iruñeko Labrit Pilotalekuan. Sei leitzar emakumezkoak parte hartuko dute.

ELKARRIZKETA → 59



Igande honetan,
abenduak 19,
aukeratuko dira
15 herrietako
alkateak

ARGAZKIA: ONDIKOL

Baztango Ordenantza berriak urteko lehen Batzar Nagusian onartzekoak dira definitiboki

2008an abiatu zen Baztango
Ordenantza, Zerga eta
Paramendu berriak gaurko-

tzeko prozesua. Horretan aritu
den Batzordeak 264 alegazio
aztertu ditu, horietatik 192

onartuz eta 92 baztertuz.
Batzar Nagusi berriak
onartuko ditu seguruena. → 48

Birziklatu



Ontziek bizitza luzea dute



Kartoiako ontziak, paperrak,
egunkariak, aldiutxoak.



Plastikoko ontziak,
latak, brikak.



Beirako botilak,
faskoak, potsek.



Bastanga
Urola



Bartzelako
Hir. Herriaren
Mankomunitatea



Malerriako
Zerkatu onkaren
Mankomunitatea



ECOEMBES
SEPARAR PARA RECICLAR



ORDOKI

altzariak

**ZATOZ ETA IKUSI
ETXEA MOBLEZTATZEKO
DUGUN AUKERA
ZABALA**




ERAKUSKETA: Bittiria 26 | SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 | Tel. 948 63 77 80 • LESAKA

'Oroitzapenetik bidaiarat' ikusgarria
taularatuko du Zazpiak Bat dantza taldeak
igande honetan Sarako kiroldegian.
Ikuskizunetik haratago, ordea, badu helburu

argi bat: Seaskako Integrazio Batzordeari
laguntzea, alegia, Lapurdi, Nafarroa Beherea
eta Xiberuko ikastoletan ahalmen urriko hau-
rren eskolaratzea sustatzeko lanean ari den

elkarteari laguntzea. 100 bat partaide mobili-
zatuko dituen gertakizun honen kari, zombait
urtez taldearen arduraduna izan den Claire
Grillard gaztearekin solastu gira.

Claire GRILLARD | Zazpiak Bat dantza taldeko arduraduna

«Oso pozik gira horrelako proiektu bat sortu izana herriko jendearekin»

Joanes GARCIA | SARA
Zazpiak Bat dantza taldea aurkeztuko diguzu bi hitzetan?

70. hamarkadan sortua da. Taldearen beteki-
zun nagusia euskal dantza erakatea da eta gaur egun, 50 haur ari dira dantzan, 20 nerabe eta 10 neska heldu. Horrez gain, beste 15 helduk urtero dantza berri bat ikasten dute eta aurtengoan Larraín izan da. Alabaina, taldea ez da hortara mugatzen bakarrik; xistu kurtsoak eskaintzen dizkiegu 8 gazteri. Aitzineko urtean, trikitixa hastapen bat izan zen. Azpimarratu nahi nuke, hiru urtez Armando kubatar erakasle batek saltsa kurtsoak ere eman zituela.

Nolatan sortu da Integrazio Batzordearen aldeko ikusgarria egitea?

Integrazio Batzordearen alde zerbait egin nahi ginuen. Hastapen batean, nesken arteko sorkuntza ttipi bat aipatuginuen. Baina ideia garatzen joan zen heinean, herriko beste elkarteek parte hartu araztera erabaki zen. Ondorioz, antzerki eta kantu taldeak proiektuan sartu ziren. Beste helburu nagusi bat taldea dinamizatzea izan da. **Dirutza behar da hori dena plantan ezar-**



ARGAZKIA: J. GARCIA

'Oroitzapenetik bidaiarat' ikusgarriaren antolatzaileetako batzuk.

tzeko, ezta?

Bai xahutze handienak soinu eta argi ekipoa-
rentzat, jantzientzat, berogailuarentzat eta
publizitatearentzat izan dira. Baina laguntza ere
ukan dugu eta eskertu nahi genuke. Sarako
Herriko Etxeak laguntza ederra ekarri digu
logistika mailan. Euskal Kultur Erakundeak
eta Sarako komertziantek eta artisauak dirula-
guntza eman digute. Azkenik, Euskararen
Erakunde Publikoak frantses eta gaztelera-
ko itzulpenetarako 40 kasko uzten dauzkigu.
Ikusgarriaren edukia

ISTORIA

«Euskal Herriko
sukalde batean
Beñat eta Mayi
aitatxi eta amatxiek
haien gaztaroan
gertatutako istorioa
kondatzen diote
haien alaba ttipiari
flashback moduan.
Aitatxi arrantzalea
zen eta haren lehen
atun kanpaina
kondatzen dio. Bidaia
uste baino luzeagoa
izan zen...»

zein izanen da?

Antzerkia eta dantza
nahasten dituen ordu
bat eta erdiko ikusgar-
ri bat da. Tarteka ber-
tsu eta kantuak ere iza-
nen dira. Dena euska-
raz, noski. Kiroldegian
izanen da igande ho-
netan, 18:00etan, eta
ondotik, jateko eta eda-
tekoa egonen da. Sar-
tzea 10 eurokoa izanen
da helduentzat eta 6
eurokoa 6-16 urte bi-
tartearentzat.

Kontaiguzu ipuina...

Euskal Herriko suka-
lde batean Beñat eta
Mayi aitatxi eta ama-
txiek haien gaztaroan
gertatutako istorioa

kondatzen diote haien
alaba ttipiari flashback
moduan. Aitatxi arran-
tzalea zen eta haren le-
hen atun kanpaina kon-
datzen dio. Bidaia us-
te baino luzeagoa izan
zen...

**Nork parte hartu du? Herriko jendeek bai-
kor erantzun du?**

Bai, hori sorpresa ede-
rra izan da. Adibidez,
dantza duela 10 urte
baino gehiago utzi zu-
ten batzuk berriz eto-
rri zauzkigu arrunt mo-
tibatua. Orotara 15
antzerkilari, 10 kanta-
ri, 2 bertsulari, 60 haur
eta 30 heldu dantzari
eta 5 musikarik parte
hartuko dute.

**Laguntza zerbait ukan
duzue sormenean ala
kudeaketan?**

Bai eta laguntzaile ho-
riek bihotzetik eskertu
nahi genituzke. Miren-
txu Ibargaraik antzez-
lana zuzendu du. Ttoni
Basurkok elkarrizketak
idatzi ditu. Sebastien
Zamorak musikak sor-
tu ditu. Eta nola ez ai-
patu Delphine Goyene-
tche. Berak du trama
idatzi eta lan aunitz egin
proiektua aitzinera ate-
ratzeko.

Azken hitz bat?

Oso pozik gira horre-
lako proiektu bat sor-
tu izana herriko jendea-
rekin. Ez da beste mun-
duko maila batekoa,
baina helburua ez zen
hori.

URTEMUGA → LESAKAKO AKORDEOILARI HANDIA GOGOAN

Pepito Yanci, “Munduko akordeoilari onena” duela 25 urte hil zen

Argentinan egindako lehiaketa batean titulu hori eman zioten «Aizali» soinujoleari

Pepito Yanci Lesakako akordeoilari handiaren heriotzaren 25. urtemuga beteko da abenduaren 26an. Sorterrian ez da aparteko ospakizunik prestatu urteurrena gogoratze-ko. Irunen, aldiz, abuztuaren 7an

ospatu zen Euskal Jirako karroza eskaini zion Ramuntxo Trinketeak. Akordeoilari, 500 kanturen egile, Los Xey taldeko partaide, musika irakasle, bertso idatzien egile... Hainbat arlo landu zituen Yancik.

Aitor AROTZENA

Paulo Yanci bere aita- tak pianoa nahiago ba- zuen ere, gazte-gazte- tatik akordeoirako afi- zioa erakutsi zuen Pepi- to Yancik. Honela, lehen irakaslea Modesto Iri- sarri etxalartarraizan zu- en eta honek musikari handia izateko bidea ikusten zion eta kontzer- tu handiak emateko prestatu nahi izan zuen. Baina hau ez zen Pepi- toren ametsa. «Hark na- hiago zuen besta, ezkontza eta despedi-

detan jo» gogoan du la- gunmin izan zuen Jose- txo Iraundegi irundarrak.

Pepitoren zaletasu- nari amore emanez, 1930. hamarkadan La- rrinaga-Guerini marka- ko akordeoi bikaina ero- si zion aita, garaiko 1.300 pezeta balio zitue- na. Konparazio batera, garai beretsuan etxe tti- ki bat bere baratzeare- kin 600 pezetetan erosi zuen Paulo Yancik.

Ordutik aitzinera, Pe- pito Yanci harat-honat ibili zen akordeoiarekin.

14-15 urte zituela Irungo Kasinoan, baita Donos- tiako Bellas Artes eta Principal antzokietan ere jo zuen. 15 urterekin, Ra- dio San Sebastian Irra- tian jo zuen eta arrakas- ta handia izan zuen.

LOS XEY TALDEA

Urte batzuk beran- duago, Easo Abesba- tzako zuzendariaren ezkontz-despedidan jo- tzen ari zela, gero Xey taldea osatuko zuten ki- deak ezagutu zituen. Tal- de honekin Euskal He-



Pepito Yanci soinua jotzen, Jose Mari Alzugarai “Larrane” eta Guillermo Ag

rrri osoan jo zuen, baita Madril, Bartzelona eta Es- painiako hiriburu nagu- sietan ere. 1947an, itsa- soz bertzaldera salto egin zuten hiru hilabetera- ko kontratu bate- kin, baina hamar urtez luzatu zen talde honen Ameriketako egonaldia. Ge- hien bat Mex- ikon jo zuten, baina Kuba, Uruguai, Txi-

le, Peru, Brasil, Vene- zuela, New York... ha- rat-honat ibili zen Los Xey taldea eta aski fa- matuak egin zi- ren Ameri- ketan.

Bue- nos Airesen egin- dako nazio- arte-



PEPITO YANCIREN SOSLAIA

Nor izan zen Pepito Yanci?

Pepito Yanci «Aizali» 1917ko urtarri- laren 1ean jaio zen Lesakan eta 1985eko abenduaren 26an hil zen, baina akor- deoilari eta musika konpositore edo bertsogile bezala aski ezaguna egin zen. Akordeoilari bezala, bakarka Bi- dasoaldean famatu ondotik, Los Xey taldearekin batera jo zuen Euskal He- rrian, Espainian eta Ameriketako hamar urtez, Mexikon batez ere, baina baita Kuban, Argentinan, Perun, New Yor- ken, Txilen, Brasilen, Venezuelan ere... Buenos Airesen egindako akordeoi txapelketa bat irabazi ondotik, Mun- duko akordeoi jole onenatzat jo zuten. Los Xey taldeak zeukan famaren era-

kusgarri, Mexikon zortzi fil- metan eta Espainian ber- tze bortzetan parte hartu zutela.

Etxera bueltan, akordeoi irakas- le izan zen Donostian, Beran eta Lesakan eta akordeoi eta trikitixa- rentzako 500 bat kantu egin zituen, tartean Lesakako bestetan jotzen den “Mozkorrenborda”. Hainbat omenaldi ere egin zizkioten Le- sakan, Irunen... Izan ere, Irunen estimazio handitan zeukaten lesakarra eta horren erakus- garri izan da aurtengo Euskal Jiran eskaini dioten orga.



UTZITAKO ARGAZKIA

no Agara herritarrek kantuan lagun dituela.



UTZITAKO ARGAZKIA

Los Xey taldearekin hamar urte egin zituen Ameriketean.

ko akordeoi lehiaketa batean parte hartu zuen eta irabazi. Orduan, Munduko akordeoilari onenaren "titulua" eman omen zioten.

Ameriketatik etxera bueltan akordeoi irakasle izan zen Donostian, Lesakan, Beran... Akordeoi eta trikitixarako 500 kantu osatu omen zituen, baita bertsoak ere eta, errate baterako, euskarazko letra jarri zion, "O Sole Mio" kantu napolitar ezagunari. Victor Manuel kantari asturiar famatuak, Ana Belenen senarrak, ere euskaraz kantatu omen du Pepito Yanciren kanturen bat.

Bere lana eskertuz, hainbat omenaldi jaso zituen: Lesakan 1971ko maiatzaren 16an, Irunen 1975eko martxoaren 23an, 1978an Angulako Kofrade egin zuten Hendaian... Bidasoako Izoikinaren Kofradiako sortzaileetako bat izan zen, baita Irungo Kurpil Kirolak elkarteko bazkide ere.

1985eko Eguberrietan hil ondotik ere, Joaquin eta Josetxo Silguero anaiek "Añoranza" Zortzikoa eskaini zioten eta 1986ko uztaillean oroigarria ezarri zuten Lesakako bere sortetxean.

XALBADOR MADARIAGA AKORDEOLARIA

«Akademizismotik kanpo, folklore arloan lan handia egin zuen eta akordeoilari bikaina izan zen»

Xalbador Madariaga akordeoilariak ongi ezagutu zuen Pepito Yanci, bere lehen irakaslea izan baitzen, 12 urte zituenetik 17 urteak egin arte. «Hasieran 12 bat lezio numeratuak eman zizkidan eta handik aitzinera piezekin hasi nintzen, eta abudo kanpoan jotzen ere hasi nintzen. Berekin pieza batzuk ikasi eta Sunbillan Urtezahar gau batean jo nuen lehen aldiz bakarrik», gogoratzten du Madariagak.

Kontserbatorio eta akademizismoak ez zituen maite, baina Kalejira, Fandango, Arin-Arina, Vals, Tiko-Tiko... Hainbat pieza jo eta idatzi zituen eta folklore arlo horretan eta librean, Pepito Yanci hagitz ona zela gogoan du Madariagak eta bere piezak ez ezik bertzeenak ere ederki jotzen zituen. «Akordeonista ona zen, abilitade handikoa baino gehiago akonpañamientoak egiten zen hagitz-hagitz ona, ongi moldatzen zen, gusto handiarekin laguntzen zuen. Hemen kantatzen hagitz onak ziren Jose Mari Altzugarai "Larrane" eta Guillermo Agara, eta haiei laguntzen ibiltzen zen. Berriki hil den Marcelino Bergara pilotari etxalartarren omenez sortutako Bergara Peñarekin jotzen zuten. Urtero egun berezi bat izaten zuten, pilota partidarekin, bazkariarekin... eta Himno bat eta kalejira bat ere eginak zizkion Bergarari. Biek elkarrekin jotzen genuen bazkalondoan», dio Lesakako akordeoilariak.

Los Xey taldeaz ez du aparteko oroitzapenik Madariagak. «Diskoren bat aditua dut, baina zuzenean ez nituen behin ere ezagutu. Badaikit fama eta arrakasta handia izan zutela, Ameriketean batez ere... Pepitorekin batera talde horretan aritu zen kide bat ezagutu genuen ekaineko Euskal Jiran. Bada errana, hagitz onak zirela, baina kobratu ere arabera egiten zutela».

«SORTZAILE HANDIA»

Folklore arloan egindako konposizioak ugariak eta maila handiak zirela aipatu digu Madariagak. «Gure erreperatorioan bere pieza ba-

tzuk baditugu oraindik orain... Ez dakit, erraten duten bezala, 500 pieza idatzi zituen, guk guttiago ditugu, baina egia da piezak sortzeko abilitade handia zuela. Klasea ematen zigun bitartean, gu jotzen eta bera igual partitura bat idazten ari zen».

Mozkorrenborda edo Lesakari izan daitezke bere sorterrian piezarik ezagunak, baina Madariagak aipatu digunez, 1960-70. hamarkadan Lesakako peñei ere himnoak idatzi zizkien, Kalaxkari, Irrintziri, Basurderi, Egurrari... bakoitzak badu bere himnoa.

Lesakan aurtengo Santa Zezilia eguna iragartzeko kartelean bere irudia agertu bada ere, «Yanciri ez zaiola merezi zuen hainbertzeko garrantzia eman» uste du Madariagak. «Pieza aunitz egin zituen, ez bakarrik akordeoiarentzat, baita trikitixarentzat ere... Letrak ere berak paratzen zizkion gehienari, horretarako ere abilitadea zuen. Bere sentimenduak adierazten zituen».



Xalbador Madariaga

**Nire txanda**

Ruben GARATE

Jolasleku berria behar dugu

Duela denbora bat honen antzeko idatzi bat irakurri izanen zenuten, zerbait aldatuz mui-na berberarekin: borroka eta borroka inolako beharrik gabe. Bai! Azkenean lortu zen Irurita-ko eskola, eskola ederra, bere ikasgela eta gainerakoekin. Baina pena bakarra, hau idazterakoan, eskolak izan behar zuen jolastokia pikutara doa udalaren teknikoen «ustezko» kudeaketa edo neurketa txarragatik. Eta udalak ez du lur gehiagorik erosi nahi, hitzez hitz «ezta metro bat gehiago ere». Eskaintza bikaina egin zaie: xentimo bat gehiago gastatu gabe, Irurita-ko gurasoak lortuko dituzte Udalak bere seme-alabendako galdutako metroak. Oraingoz ez da erantzunik, eta ez dakite izanen den ere. Ez al da eskaintza ona? Ez al da onartzeko moduko tratua, denek irabazi eta inork galtzen ez duena? Eskaintza hau ez onartzea aukera on bat alferrik galtzeko modu ergela izanen litzateke.

Ez al da onartzeko moduko tratua, denek irabazi eta inork galtzen ez duena?

Ezpala

Aitor AROTZENA

Eguberrietako loteria izugarria

Soberan errepikatzen den deia: istripua izan da Sunbillan (Goizuetan, edonon...), hildako bat (edo zaurituak). Eta denok errepidea ordu horretan erabiltzen duten lagun, ezagun edo senideen zerrenda buruan. Bide kaxkarra, euria, lainoa, abiadura... dezimo gehiegi jokatzen ditugu loteria izugarri honetan eta sarriegitan tokatu ere egiten zaigu: hurbilekoa, lankidea, familiakoa...

Nabarmentzekoak

**Xabier TELLETXEA**
Igantziarra istripuan hila

Azaroaren 28ko goizaldean Goizuetan izandako istripu batean hil zen 33 urteko igantziarra. Mendi bizikleta jautsiretan Nafarroa, Euskal Herria eta Espainiako txapeldun izan zen.

**Iñaki ALEMAN**
Irurita-ko bertsolaria

Laugarren aldiz Elizondon egin den Mariano Izeta Sariketa irabazi zuen abenduaren 8an Iñaki Alemanek. Mariano Izeta zenaren Ines alabaren eskutik jaso zuen txapela.

**Maika ARIZTEGI**
Iturengo kirolaria

Bertze arloetan ere nabarmentzen da, baina kokor biltzen bederatzigarren aldiz jantzi du Euskal Herriko txapela. Oraingoan, gainera, txapelketako marka berria egin du (07:17).

Aztera begira → 1993.12.02 / TTIPI-TTAPA 123. zbk



Baserria eta zerriaren sektorea krisian duela 17 urte ere

Ez da oraingoa baserriaren eta abeltzaintzaren krisia. 1993an, "Horrela ez dago irauterik" izenburupean zerri sektoreaz aritu zen TTIPI-TTAPA. Orduan 1.269 granja zeuden eskualdean eta horietatik hameka, 50 zerramatik goitikoak ziren. Zugarramurdiko Juan Irazoki eta Pakita Etxenikek aipatu zigutenez, "bakarrik pentsua, argindarra eta holakoak kontutan hartuta, zerrikume bakoitzarekin 1.500 pezeta galtzen da egungo prezikoekin. Pixka bat defenditzeko zerrikumeak guttienez 5.000 pezeta egin behar du". Baserriarrek zerri-tratanteekin zuten menpekotasuna zen prezio apalen arrazoi bat.



Argitaratzailea TtiPI-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Andueta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttiPI.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usua Vicente, Kulturkari SLU **Berriemakileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sainzar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Ixaso Arrieta, Markel Lizasoain, Eneko Mitxel, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Telletxea, Joanes Garcia, Patxi Dutournier...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreka-ko Zerbitzu Mankomunitatea

2010eko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria	37€	Europa	55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka	31€
Ipar Euskal Herria	55€	Amerika eta Australia	123€	Leitza	15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Aita Santuaren estatua

Xanti BEGIRISTAIN (Iruña)

Yolanda Barcina Angulo Iruñeko alkate andreak eta bere alderdiak, orain dela gutxi mustu zuen Joan Pablo II.a Aita Santuaren estatua bat hiriko kale batean. Kaleak Aita Santuaren izen berbera dauka, eta, jakina, hori ez da halabeharra, baizik eta orain dela urte batzuk UPNk eta CDNk hori horrela egitearen ondorioa.

Niri oso ongi irudituko litzaidake UPNkoek jarriko balituzte tankera horretako estatuak, irudiak, kale-izenak eta nahi duten guztia, beren luxuzko etxeetan, beren lorategietan, eta abar, baina betiere, noski, beraiek ordainduta beren diruarekin eta ez beste guztienarekin.

Eta UPNk gai honetan egin duenari buruz zer nahi duzue esatea? Ba, berriz ere egin duela nahi izan duena, berriro ere abusatu duela daukan botereaz eta, jakina, ez du batere demokratiko-ki jokatu gizarte honen aurrean, baina, antza denez, pertsona horiei bost axola zaizkie demokrazia, etika, herritarrak eta zuzentasuna, beraiek aurrera egiten duten bitartean, baina, lasai, esan bezala, pertsonak dira, ez dira Jainkoa, eta Barcina andrea ere, egunen batean ikusiko dugu goitik behera lurreraino erortzen eta merezi duen muturrekoa hartzen, lehenago beste batzuei gertatu zaien bezala, edo, bestela, esadazue, e?, non ote dabil orain, esate baterako, garai batean hain ospetsua izan zen Gabriel Urralburu izeneko, Nafarroako sasi-jainko txiki harroko hura? Urralburu ez al zen agertzen, ba, herritar guztien aurrean nafarrik nafarrena balitz bezala?, eta orain begira eza-zue, edonork esanen luke beretzat Nafarroa ez dela existitzen eta askoz ere gustura eta erosoago sentitzen dela Madrilén. A zer-nolako paradoxak, e?

Esan bezala, orain pairatzen ditugun andre eta jauntxoei ere, egunen batean antzeko zerbaite gertatuko zaie, teorian estatu laiko eta akonfesional batean beren ideia eta praktika erlijiosoak inposatzeagatik. Argi eta garbi ikusten denez, Sanz eta Barcina jaun-andreek gehiago nahiago izaten dute indarraren arrazoiak arrazoiaren indarra baino.

«Niri oso ongi irudituko litzaidake UPNkoek jarriko balituzte tankera horretako estatuak, irudiak, kale-izenak eta nahi duten guztia, beren luxuzko etxeetan, beren lorategietan, eta abar, baina betiere, noski, beraiek ordainduta beren diruarekin eta ez beste guztienarekin»

Arkupeak elkarteak 25 urte

Fernando ETXEBERRIA (Ezkurra)

Aркуpeak erretiratu eta alargunen elkartearen 25. urteurrena ospatuko da heldu den urtean, 2011n. Bere ibilbidea 1986an abiatu zuen Donezteben eta segidan zabaldu zen Mallerreka osotik, Baztan, Bortziriak, Irun, Leitza, Goizueta... Aski da urtero argitara ematen duen alizkaria begiratzea 25 urte hauetan antolatu dituen ekitaldi kopuru handiaz jabetzeko: bidaia, omenaldiak, mus txapelketak... ahaztu gabe pisu tutelatuen sorreran eta funtzionamenduan izan duen parhartzeara edo laister Donezteben irekiko den Eguneke Zentroa bultzatzen egin duen lana. Nafarroako Gobernuak Karlos III.aren domina eman dio, Nafarroako mendi-aldeko 47 herri baino gehiagotan egin duen lana sarituz. Gizarte lan garrantzitsu hau ezagutzera eman eta baloratzeko ongi legoke ospakizunen barrenean 25 urteko historia bilduko lukeen liburu bat argitaratzea. Inoiz ez dugu be-

«Bere irrifar goxoenarekin besteei mesede egitera dedikatzen diren pertsonak gogoratzea atsegina da»

har bezala eskertuko erretiratu eta alargunen bizikaltatea hobetzeko elkarteko arduradunek egingako lana, hasi presidentetik eta herrietako delegatuak bitarte. Denek merezi dute gure esker on zintzoa, baina Joxe Oronozen lana azpimarratu nahi nuke. Baztango Santiago Bidea garatzen eta alizkaria egiten Arkupeak elkarteak lagundu nuenean ezagutu nuen duela urte batzuk. Elkartearen bulegoan, idazmakina txiki batekin lanean ari zen gizaseme hark atentzioa eman zidan, baita hara hurbiltzen ziren bazkideei eskaintzen zien tratua goxoak edo txartel berriak egiteko edo urrezko ezteiak eta 85 urte ospatu behar zutenen datuak eta argazkiak jasotzeko bere etengabeko lanak. Bere diruzain lana ere xuxen bete du, kontuak zehaztasunez eramanez eta elkartearen ospakizun guztietan parte hartuz. Juntaren barrenean oroitzen eta esker berezia merezi duen kideetako bat dela iruditzen zait, bere izateko eta egiteko modurengatik eta bazkideekin harremanatzeko modurengatik. Krisi eta elkartasun gabeko garai hauetan, beren irrifar goxoenarekin bakar bakarrik besteei mesede egitera dedikatzen diren pertsona horiek gogoratzea atsegina da. Antolatzen diren ekitaldi guztietan beti hantxe dago, baina bigarren le-roan, atentzioa deitu gabe. Arkupeak elkartearen aldaketa hurbiltzen ari den honetan, Joxe bezalako pertsonen eredu eta gidari izan behar dute, elkarteak ongi funtzionatzen segitu dezan, gaur egun dituen ekintzak osatzen joanen diren ekitaldi berriak martxan jarri.

Irakurleak mintzo

Sunbillako herriari

Iñaki, Paula, Natalia, Alvaro eta Maite

Joan den urriaren 4ean gure senidea Iñakik (*Harotx*) istripu madarikatu batean heriotza aurkitu zuen. Errealitate gogor honen aurrean gure bizitzak, gure bihotzak, gure ilusioak eta planak bertan behera gelditu ziren. Baina mina eta dolu garratz honen aurrean emozioz eta eskerrak beteriko beste zerbait bizi izan dugu baita ere: Sunbilla herriak eta batez ere Sunbillako gaztediak erakutsi digun hurbiltasuna, laguntasuna eta goxotasuna.

Hainbertze izan dira laguntza hori eskaini nahi izan dutenak ezinezkoa egiten zaigula pertsonalki edo banan-banan besarka eta esker beroenak agertzea. Horrela ba, lerro hauen bi-

dez hori egin nahi dugu. Zerrenda bat pasatu ziguten non laguntza eman nahi izan zutenen izenak aipatzen ziren: herriko gazte gehienak zineten: Eskerrik asko! Ez laguntza hori emateagatik baizik eta horrek suposatzen duenagatik: *Harotx* estimatzen zenutela. Berriz ere erranen dugu: hainbertze zarete, izen guztiak ezin ditugula hemen ezarri, baino izen guzti horiek gure buruan eta gure bihotzean daudela jakin dezazuen nahi dugu. Bestalde, modu berezi batean gure auzoko etxe eta familia guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu baita ere. Zentzu guztietan, gure ondoan zaudete.

Ezin dugu eskutitz hau akitu Etxexuria familia aipatu gabe: familia osoa gure familia bezala izan zarete momentu honetan. Huesus eta Fixti: besarkada handi bat zuentzat, zuek ere anaia galdu duzue eta. Hori erakutsi zenuten ez

Lauetan gosalduta eta bostetan harturik trenan sei terdietan abittu eginez bide zuzena Juanito, Javier, Joxe Joxe Mari, Gorka aurrena Jokin, Asier, Sergio Imanol, Aratz hurrena Unai eta ere Ismael joariekina dozena kalerik kale ibiliz erakutsiz joaldun sena atzetik hamar bat artzai manez hauei atsedena haxe izan da bizitzan hauen momentu onena.

bakarrak orain, baizik eta Iñaki bizirik zegoelarik, sentimentuak azaldu eta gauzak egin behar direlarik. Eskerrik asko Sunbilla, eskerrik asko Sunbillako gaztedia!!! Muxu handi bat denentzat.



Bota bertsoa

Egoitz GOROSTERRAZU (Ituren) • Doinua: Habanera

Iturengo joaldunak Behobia-Donostian

Nondikan hasiak ziren jendeak nahi zuen jakin Behobitik heldu gara «vosotros no estais bien en fin» baina etziren erori lurrera kaska behinepin Bulebarra pasa eta hauek hor sinestu ezin besarkatu ziren denak segiduan elkarrekin La Perlan egondu ziren eta kuluska ia egin gero ederki bazkaldu genuen guziek berdin malkoak irten zitzaizkigun guri zuen pozarekin.

Elkartasun mezua

Goizuetako Udala eta Feriaren antolatzaileak

Xabi Telletxea igantziar

gaztearen heriotza dela-eta, Goizuetako Udalak eta Feria egunaren antolaketan aritu direnek gure elkartasuna eta doluminak agertu nahi dizkiegu lagun eta familiari.

bai euskarari zozketa **BIZI EUSKARA!**
SARIDUNAK

2010eko abenduaren 9an, 12:00etan, Arantzako Herriko Etxean eta udal idazkariaren aitzinean, saritu beharreko 2 zenbakiak zozketatu dira

1.- Pablo-Enea jatetxean (Arantza) 2 lagunentzako otordua
01.253 zkia Berako Bidaxka ostatuak banatua

2.- Txinelka zapata-dendan (Lesaka) trekking-eko oinetako pare bat
10.996 zkia Berako Ricardo Baroja Ikastetxe Publikoak banatua

Sustatzaileak:
ziurtagiriaren elkartea



Babesleak:

pablonia
Kortxo Nagusia 5 ARANTZA
945 634 077



Prentsatik bildutakoak



«Zenbatek utzi zuten bizitza mendian! Zenbatek bukatu zuten zoratatuta...» Triste gogoratzen ditu ardi arteko urteak. Berdin protagonista lesakarrak, lanaren gogortasuna eta mendietako isola-mendua eta bakardadea gogoan. Beste hainbatek, aldiz, aitortzen du bizitzako urterik onenak izan zirela artzain lanetan emandakoak.

Alfonso IGOA

Lesakarra, Elkon bizi dena
ARGIA, 2010.12.05

«Hiztunok gure hizkuntzarekiko dugun jarrera kontuan izan behar dugu. Ez da aski erratea, 'planifikatu dezatela, egin dezatela'. Hiztunak gu baikara. Konpromiso pertsonala etengabe normalizazio eta hobetze bidean jartzea gakoa da etorkizunera begira».

Andres IÑIGO

Iturengo euskaltzaina
BERRIA, 2010.12.03

11 galdera labur

Basozaina, erlezaina, bi seme-alaben ama... Nola aurkeztuko zaitugu?

Mundu honetan denetarik egin behar da, bestela zer zentzu dauka bizitzak?

Emakume basozainak gutti dira eskualdean. Zer moduz tratatzen zaituzte lankideek?

Ongi, ez dut behin ere kexarik izan.

Zergatik basozain?

Mendian jaioa naiz, baserrian, eta ttikitatik gustatu izan zaizkit arbolak eta bitxoak eta lan aproposa hau zela ikusi nuen, eta ez bulego batean sartuta egotea egun guztian.

Ehiztariekin aurrez-aurrekorik eduki al duzu?

Orokorrean nahiko ongi portatzen dira. Baina lehengo urtean, Areson batekin izan nuen. Uste nuen horrelako jenderik ez zegoela baina oraindik ere gelditzen dira batzuk...

Erleek ala ehiztariek ematen dizute gerra haundiagoa?

Ehiztariek. Erleen ziztada osasungarria da eta besteena ez.

Zenbat erlauntza dituzu etxean?

16 erlauntza.

Asiako liztorren beldurrik bai?

Honat ailegatu dela esan dute, eta zain egoteko. Orain arte nahiko lan genuen despopulatzearekin, baina niri ez zitzaidan ezer pasatu eta ea

liztor hori ere ez dugun hemen ikusten.

Ezagutu duzun ingururik politena?

Ez dakit... Udaberriko eta udazkeneko hosto kolorea gustatzen zait baina orain ez dakit zein toki esan.

Leitzaz aparte, bizitzeko bertze toki bat?

Kanadako basamortu basatiak, baina horrelako hotza egiten du han... Leitzan gustura bizi naiz.

Zein egoeratan daude inguruko basoak?

Ongi, aspaldi baino hobeki. Ez dago orain dela 60 urteko presiorik basoan. Jendeak uste du ahantziak direla baina lehen baino baso gehiago dago, ganadu gutxiago eta mendi gehiago.

Zer eskatuko zenuke 2011rako?

Betirako krisi zerri hori bukatzea.



Maite ARRIZURIETA → Leitzako basozaina

PSIKOBIDE

PSIKOLOGIA ZENTRUA

TERAPIAK: Bakarkakoa - Bikote artekoa - Familiarra
HELDUAK - HAURRAK - NERABEAK:

Era guztietako arazoak eta gaixotasunak tratatzen ditugu
IKASKETA TEKNIKAK eskolan arazoak dituzten haurrentzat
GURASOENTZAKO LAGUNTZA TALDEAK: Talde terapiak

Lehenengo kontsulta dohainik, deitu eta informa zaitez!!

Kolon Pasealekua, 64 behea • 20301 - IRUN

Tel. 689 539 513 • www.psikobide.com



BERA

KONTSUMOA → NAFARROAKO GOBERNUTIK HARTU DEN DIRULAGUNTZAREKIN

Kontsumo baxuko bonbillak jartzen ari da Udala energia aurrezteko

Eztegara eta Legian bonbilla guztiak aldatuko dira

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak energia aurrezteko egindako dirulaguntza deialditik 10.000 euro hartu ditu Udalak, eta horrekin kontsumo tikiiko bonbillak paratzeari ekin dio. Hala, «bonbilla hauek potentzia erdiarekin gaur egungoen argitasun bera emanen luke, denbora luzeagoan eta mantenimendu tikiagoarekin», azaldu digu Josu Iratzoki alkateak.

Dirulaguntzarekin Legia eta Eztegara karriketako bonbilla guztiak aldatzekoak dira. Legian, 70 Wko bonbilen orde, 40koak paratuko di-



ARGAZKIA: GENARO TALDEA

Realzaleek antolatutako Mus Txapelketa

Aurten ere, Mus Txapelketa antolatu du Genaro Taldeak Herriko Ostatuaren laguntzarekin. Abenduaren 26an izanen da eta hiru ostatutan jokatu da: Errekalde, Fidel eta Xugan. Apuntatu nahi duenak egun berean egin beharko du Xuga ostatuan, 16:00 baino lehen eta bikoteko 10 euro ordainduta. Hiru sari eder banatuko dira: lehendabizikoa Etxalarko Herriko bi laguntzako dastaketa menua izanen da; bigarren bikoteak Eguberrietako saski bana jasoko du eta hirugarrenak cava lote bana. Argazkia joan den urteko mus txapelketakoa da.

ra eta horrela, alkateak erran digunez, «argitasun maila mantenduz

kontsumoa ia-ia erdira jautsiko da».

Eztegarako sistema, berriz, Iratzokiren hitzetan, «ez da batere egokia, farola bat piztua eta bertzea itzalia egoten delako». Gaur egun 150 Wko bonbillak daude eta hemendik aitzinera, 40koak paratuta farola guztiak piztuko dira: «modu honetan, argi maila mantenduko da eta hau askoz ere uniformeagoa izanen da, puntu beltzak kenduz». Toki zabaletan eta bidegurutzeetan, aldiz, 50 edo 80koak paratzekoak dira.

Neurri honekin kontsumoa jautsiko denez, Udalaren nahia, Ikastola eta igerilekuen aldera doan argiteria ere martxan paratzea da. «Gaur egun, Eztegarako zirkuituko hari elektrikoak doido ematen du duen

kontsumorako eta ezin da luzatu. Orain kontsumoa erdira jaustea aurreikusi dugunez, zirkuitua luza dezakegu argi puntu gehiago sartuz», azaldu digu alkateak.

Argiteria berritzeko lanak abendu erdialderako bukatzekoak ziren.

Olentzero eta Urtezahar Eguna

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, abenduaren 24an etorriko da Olentzero Euskal Herriko hainbat txokotara. Beran, 17:00etan egin du hitzordua eta orduan egin zaio ongietorria Herriko Etxeko Plazan. Eguraldi txarrarekin, Eztegarla eta igerilekuen aldera doan argiteria ere martxan paratzea da. «Gaur egun, Eztegarako zirkuituko hari elektrikoak doido ematen du duen

Urteko azken egunean, berriz, Glin-Glana eta Diostesalbearen txanda izanen da, karriketan kantuan ibiltzeko eguna.

FLASH

Kultur ekitaldiak

Hainbat ekitaldi izanen dira Eguberrien atarian:

IPUIN LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

Ortzegunean, hilak 16, eginen da Bortzirietako haur eta gazteen ipuin lehiaketako sari banaketa. Herri Liburutegian izanen da, 18:00etan.

BERTSO-SAIO DIDAKTIKOA

Euskara Batzordeak antolatuta, bertso-saio didaktikoa eginen da ortzirean, hilak 17, Beralandetan. Estitxu Arozena, Patxi Iriart, Beñat Gaztelumendi eta Julio Soto ariko dira bertsoetan eta Karlos Aizpurua izanen da gai-jartzailea. 20:30ean hasiko da.

ANTZERKIA

Larunbat honetan, Kultur Batzordearen eskutik, *El Kiosko* antzezlanak ikusgai, 20:00etan Kultur Etxean.

KONTZERTUAK

Isidoro Fagoaga Musika Eskolak Eguberrietako kontzertua eskainiko du Kultur Etxean hilaren 21ean, 17:30ean. Eta Berako Abesbatzak igande arratsaldean, San Jose zahar-etxean emanaldia eskainiko du eta urtea elizan kantatuz bukatuko du. Larunbat honetan Kultur Etxean bertze saio bat ere eskaintzeko zen, baina azkenean, otsailaren 12ra gibelatu dute.

PARKEA

Haurrentzat Eguberrietako parkea paratuko du Larun Haizpe merkataria, ostalari eta zerbitzu enpresen elkarteak. Abenduaren 26tik 30era izanen da frontoian (11:00-13:30 eta 15:00-19:00). Eguneko sarrera 3 euro; bortz egunetakoa 10 euro.



GIZARTEA → GAZTEAK ETA TXILE

Txileri buruzko zikloari abenduaren 26an emanen dio bukaera Gaztetxeak

Salvador Allenderi buruz filma, mural margotzea eta afaria izanen dira

TTIPI-TTAPA

Azaro hondarraz gerotzik, Txileri buruzko hainbat ekimen egiten aritu dira Kaxerna Gaztetxean: *El derecho de vivir en paz* dokumentala -Victor Jarari buruzkoa- edo *I love Pinochet* filma eskaini dira, azken hau Txileko gizarteak Pinochetekiko duen harreman kontrajaria erakusten duen dokumentala. Horrez gain, maputxeen eta gobernuaren arteko iskanbilen inguruko dokumentala -Úxuf Xipay -El despojo- ere ikusgai

izan da, eta Julen Zulai-ka Txiletik kanporatu zuten Askapenako brigadistarekin solasaldia ere izan dute. Bada, ziklo honi bukaera emateko, abenduaren 26an, igandearekin, *Compañero presidente* Salvador Allenderi buruzko 2008ko dokumentala eskainiko da 19:00etan. Ondotik, mural margotzea eta afari girotua izanen dira.

'Ni Bidasoa' dokumentala


Bidasoa ibaiari eskainitako *Ni Bidasoa* dokumentala ikusteko aukera izanen da abenduaren 23an Beralandetan, 19:00etatik aitzinera. 35 minutuko dokumentala Bidasoaren iraganaz, orainaz eta etorkizunaz ari da eta hainbat elkarbizitzarekin osatua dute.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Onddoak gutti eta horiek batzuen eskuetan

Bai, bai, ireki ongi begiak, hau ez baita egunero ikusten! Aurtengo onddo denboraldia ez omen da sobera ona izan baina onddoak dira ezkerreko argazkian bat bertzearen ondoan ageri direnak. Eta zenbat diren? Ba 64. Koro Iratzokik eta familiak toki berean bat bertzearen ondoan 64 onddo ikusi eta bildu zituzten joan den hilabetearen. Juanjo Iratzokik, bertzalde, azaroaren 10ean onddoak bildu eta TTIPI-TTAPA aldizkariaren lehendabiziko zenbakietako baten ondoan paratzeko detailea izan zuen. Horixe ikus daiteke eskuineko argazkian.



LESAKA

UDALA → AHOBATEZ ONARTU ZEN AZAROAREN 26AN

Otxogorrienea bertze 30 urtez ikastolari uzteko eskaria babestu du

Tantirumairu handitzeko premiari erantzuten zaio eta 2015eko Nafarroa Oinez herrian egiteko nahitaezko baldintza da

Aitor AROTZENA

Udalak ahobatez babesa eman dio Tantirumairu ikastolari eta Otxogorrienea etxea guttienez 30 urterako uzteko akordioa lehenbailehen hartzea eskatu dio Cornelia Lecuona Fundazioko patronatuari, baita inguruan dituen lurremuak ere, etorkizunean egin nahi dituen zabaltze lanetarako. Tantirumairu eta patronatu horrek 1990ean sinatutako kontratuaren bidez Otxogorrienea etxea erabiltzen du ikastolak, Cornelia Lecuona zenak, ikastetxe modura erabiltzezin erakutsitako borondatea betez. Kontratu hau 25 urterako denez, 2015ean bukatuko da eta ikastolarentzat nahitaezkoa da kontratua luzatzea, instalazioen

handitze lanak egiteko. Hauxe da Nafarroako Ikastolen Elkarteak jartzen duen baldintza 2015eko Nafarroa Oinez Lesakan antolatzeko.

Ikastolak zenbait berrikuntza lan egin baditu ere, ttikia gelditu da. Adibidez, 1990ean 7 ikaslek bakarrik erabiltzen zuten ikastolako jangela eta gaur egun 52 dira. Horregatik, ikastola eta futbol zelaiaren artean, frontoiaren segidan erabiltzeko aurreproiektua aurkeztua du ikastolak.

Ikastola eta Patronatuaren arteko harremanak ez aitzinera ez gibelera daude eta Tantirumairu harreman horiei bultzada ematea eskatu dio Udalarai, «afera lehenbailehen moldatzen ez bada, 2015eko Nafarroa Oinez ezin izanen baita Lesakan egin». Aferak kezka sortua zuen eta 200 lagun bildu ziren batzar-aretoan. Otxogorrienea eta inguruko lurak bertze 30 urterako uztea Patronatuari eskatzeaz gain, Udalak Patronatuarekin negoziatzerajartzeko eskatu zion Tantirumairu ikastolari, bi aldeendako ona den akordio batera ailegatzeko.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Iker Taintak Aurrekua dantzatu zien omenduei, tartean Benito Tainta bere aita txiari.

PILOTA → OMENALDI EKITALDI HUNKIGARRIA EGIN ZEN ABENDUAREN 5EAN

Arkupe pilotazale elkarteak 25. urteurrena ospatu du

A.A.A.

Arkupe pilotazale elkarteak bere 25. urteurrena ospatu zuen abenduaren 5ean, pilota jaialdi bereziarekin, omenaldi hunkigarriekin eta Koxkonta jatetxean egindako bazkari batekin.

Gaztetxoaren arteko pilota partidaren ondotik, omenaldien txanda izan zen. Aurrekua dantztatu zuten Iker Tainta pilotariak omenduei. Hain zuzen, Ikerren aitaxi Benito Tainta izan zen lehenbiziko presidentea, Juan Telletxea presidenteordea (Nati Mayo alar-gunak hartu zuen ororigarria), Modesto Maia idazkaria, Justo Agirretxe diruzaina, Xalbador Etxepare, Luis Aranguen eta Martin Sarasola bokalak eta Juan Mari

Etxeberria eta Kotte Etxepare bodegazainak. 25 urte hauetan pilota irakasle izandakoak, berriaz, Xalbador Etxepare, Justo Agirretxe, Jesus Mari Sanjurjo, Iñaki Arretxea eta Tomas Otxoteko izan dira. *Mololo* Irigoien eta Xabi Zozaiak pilotariak ere bere ororigarria jaso zuten, baita Begoña Taberna frontoiko arduradunak eta Juan Fermin Mitxelena alkateak ere, Herriko Etxeko ordezkari gisara. Gainera, ororigarri berezia jaso zuten Ramon Etxenik, Jose Luis Sunsundegik eta Joaquin Bengoetxeak.

Ondotik, esku pilotari helduxeagoen txanda ailegatu zen. Berriki Munduko txapelkun suertatuden *Mololo* Irigoien eta

Joxe Jabier Taberna profesional ohia 22-17 irabazizieten Iker Tainta eta Jexux Mari Almandoz profesionali. Paleta gomako partidari, 52 urte dituen Jesus Mari Sanjurjo profesional ohia eta berriki Munduko azpitxapelkun izan den Xabi Zozaiak 30 eta 21 irabazizieten Aitor Oiartzabal eta Justo Agirretxeri.

MIKEL MAIA TXAPELDUN

Dagoeneko Arkupen ari ez bada ere, Mikel Maiak Guillermo Mazo Memorialaren finala irabazi zuen abenduaren 3an Labriten. 14-17 galitzen ari zen Unanuren kontra eta 18-17 irabazita lortu zuen jubeniletako Nafarroako lau'terdiko txapel handia.

ALVARO LOPEZ
Eskaiola, pladur lanak,
sabal modularra, tabikeak
OBRA ZIURTAGIRIAK
LESAKA • 651 704 593

IRU BIDE
Entregia - Asakia
Barrutia, 3^{er} Lesaka
Tel: 948 637 127

XATURETXEA
JATETXEA
T: 948 637 260 • LESAKA

GOZZ-AIDE
JAVIERRENA
Barrutia 41 • T: 948 637 127 • LESAKA

EHIZA → USATEGIAK

Usategietako denboraldia 64 dozena harrapatuta akautu da

Herriko usategiak 3. gelditu dira harrapaketari dagokionez

Irune eta Itsaso

Aurtengoa ez da sasoi ona izan usazaleen-dako, 64 dozena bakkrik harrapatu baitituzte. Honen arrazoa, alde batetik, eguraldiak ez duela batere lagundu eta bertzetik, uso guti eta hagitx altuera handian pasatu direla da. Hala ere, datuek erakusten dutenez, bertze usategietan ere ez dute sasoi ona izan.

Denboraldian hainbat ezbehar gertatu dira eta hauen artean gehien errepikatzen dena, eta kezkagarriena, Trapa (harrizko trepa nagusia) tiroz jo dela da, hiru lagun barrenean zeudenean. Zorionez, ez da zauriturik izan, baina usazaleek neurriak hartzeko eskatuko diote Udalari, berriz horrelakorik ez gertatzeko.

Turistei dagokionez, Laura Elizagoien bisita gidatuen arduradunak balorazio ona egin du, 200 lagun inguruk eza-gutu baitituzte Usategiak nahiz eta uso guti ikusteko aukera izan eguraldi txarra medio.

Bertzalde, 3. postuan gelditu dira Etxalarko Usategiak rankinean. Hauek dira inguruko usa-

tegien datuak: Napal, 1237 uso; Oskitx, 792 uso; Etxalar, 769 uso; Lantabat, 589 uso; Lanne, 576 uso; Lekunberri, 503 uso; Aldude, 182 uso; Katagorena, 132 uso; Beorlegi, 106 uso eta Sara, 34 uso.

Urteroko ohitura den bezala, aurten Pirinioetako sareko usategi guztien bazkaria Saran egin zen abenduaren 4an.

Larraburuko Bazkideen eguna

San Frantzisko Egunarekin ospatu zuten Larraburuan bazkideen eguna. Ohitura den bezala, 80 urtekoen omenaldia egin zen eta aurten omendu bakarra Milagros Indaburu izan zen. Plaka eta lore sorta hartu zituen. Meza 2010ean hildakoen alde izan zen eta ondotik 47 kidek giro ederrean bazkaldu zuten Larraburuan.



ARGAZKA: LAURA ELIZAGOIEN

Ez dute sobera denboraldi ona izan usazaleek.



ARGAZKIA: IZASKUN URBIEITA

Xorroxin irratia Landagain eskolan

Lehengo urtean egin ez bazen ere, aurten azaroaren 23, 25 eta 26an Xorroxin irratia ekarri zuten eskolara. 12 urtekoak ibili ziren teknikari lanetan, baina eskolako haur guztiek izan zuten parte hartzeko aukera. Ohiko txisteak, asmakizunak eta kantuak ez ziren faltatu. Aurtengoan Pello Apezetxea izan zen elkarriketaria.

Eskola kontseiluko hauteskundeak

Joan den azaroaren 30ean Landagain eskolan hauteskundeak izan

ziren. Urteko batzar orokorrean hautatutako Estitxu Etxarte eta Axun Maia izan ziren bozkatuak. Bozketa honetan boto gehien Es-

titxu Etxartek atera ziotuen eta ondorioz, bera izanen da datozen lau urteetan eskolako kontseilua osatuko duena.

BORTZIRI
UNSION ANAIK
Sukalderako altzariak

Berezu etxea • LESAKA
Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

elika
Dietetika eta elikadura

- Ahulakentza dietetiko eta nutrizionala
- Dieta personalizatuta
- Gaituta konposatuaren azterketa
- Elikadura fisioterapia

Txikien kontseilua
Ezkerreko egutegi arazoak erortasun
Trasturriketarik eta arazoak
Hortazketa arazoak

Iñaki Andueza Larra
Itzma, 6 beheko • BERA • Tel. 948 631 283 • elikabera@hotmail.com

José I. Gonzalez Enguita
pinturak

barrukoak eta fatxadak

tel. 666 235 466

IGANTZI

EGUBERRIAK → ABENDUAREN 22AN

Urtero bezala, opariekin etorriko da Olentzero eskolara

Herrian ere
eginen du itzulia
Olentzerok

TTIPI-TTAPA

Eguberrietako opor-
rak hartu aitzinetik,
Olentzeroren bisita har-
tuko dute eskolan nes-
ka-mutikoe. Abendua-
ren 22an izanen da. Ohi
bezala, gela bakoitza-
rendako opari bat ekarri-
ko du eta ikasle eta ira-
kasleek, kantari, harre-
ra ederra eginen diote.
Olentzerorekin solase-
an egon ondotik, jola-
sean ariko dira haurrak
eta gero Guraso Elkar-
teak antolatutako zozke-
taren zenbakiak atera
eta herrian barna zabal-
duko dituzte.

Eskolako bisitaz ga-
in, herrian ere eginen du
itzulia Olentzerok. Bilo-
kitik jakinarazi dutenez,
nahi duten guztiek par-
te har dezakete. Horren
harira, igandean, aben-
duak 19, kantuen en-

tsaioa eginen da Bilo-
kin, 18:30ean.

Eguberrietako kontzertua

Igantziko Abesbatzak
Eguberrietako emanal-
dia eginen du larunba-
tean, hilak 18. Mezan,
20:00etan polifonia eta
20:30ean kanta he-
rrikoak eskainiko ditu.

Herriko eraikinen garbiketa

M^a Jose Zubeldia
izanen da heldu den ur-
tean herriko eraikinen
garbiketaz arduratuko
dena. Kontratua urtero
egiten du Udalak eta
2011ri begira, urrian le-
hiaketa zabaldu zuen in-
teresatuek izena eman
zezaten. Azaroaren
12an bukatu zen pro-
posamenak aurkezteko
epea eta bakarra aur-
keztu zen: M^a Jose Zu-
beldiarena. Aurten ez,
baina lehen ere ibilita-
koa da lan horretan Zu-



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Joan dira Kultur Egunak

Kultur Eguneak ere eman dute aurtengoa. *Igantzi besta giroan* izan da Kultur Egun hauetan egin den erakusketa eta ordukoa da, hain zuzen, argazkia.

Tristura haundia sortu du herrian Xabier Telletxearen heriotzak

Albiste ilunekin joan
zitzagun azaroa. Hila-
ren 28an, 07:00 aldera
izandako auto istripuan,
Xabier Telletxea Etxebe-
rria 33 urteko gaztea hil
zen eta heriotzak tristu-
ra haundia eragin du he-
rrian. Bi autok elkar jo
eta kolpearean ondorioz
hil zen. Auto berean zi-
hoazen bertze bi herrita-
rrak eta bertze autoko
gidaria, goizuetarra, ere

zaurituak izan ziren, bai-
na larritasun haundirik
gabe. Istripua Goizuet
eta Basakabi lotzen di-
tuen bidean gertatu zen,
ia Goizuetako herrigu-
nean.

Iturgina lanbidez, bai-
na batez ere mendi bizi-
kletarako zuen afizioa-
gatik zen ezagun. Azken
urteetan, mendi bizikle-
ta jautsieretan espezia-
lizatua zen. Igantziko jau-



tsieraren antolatzaile na-
gusia izateaz gain, parte-
hartzailea ere bazen. Na-
farroako, Euskal Herri-
ko eta Espainiako txa-
peldun izan zen hainba-
tetan Master 30 mailan.

beldia eta heldu den ur-
tean ere berak eginen
du garbiketa.

Pilota Eskola

Udalak 1.010 euro-
ko dirulaguntza eman

dio aurten Pilota Esko-
lari urteko gastuetara-
ko.

HEZKUNTZA → NESKA-MUTIKOEN ESKUTIK

Eskolako antzezlanak jendaurrean erakutsiko dituzte larunbat honetan

Asteazkenean Igantzi eta Etxalarko ikasle eta maixuen aitzinean aritzekoak dira

Nerea ALTZURI

Urte akaberarako aski gutti gelditzen da eta urteroko ekitaldiak ere hurbiltzen ari dira.

Olentzeroren inguruan han eta hemen, modu batean edo bertzean, ekintzak egiten dira. Eguberrietako oporen aitzinetik, ordea, eskolako ikasle eta irakasleek, aspalditik ohitura den bezala, antzezlanak erakutsiko dituzte. Idazten ari naizen honek ere ez ditu sekula atzenduko prestaketa nahiz estreño egunetako bi- zipenak. Nerbioak, ilusioa eta gogoia nahasten ziren antzezlanaren entsaioetan eta jendaurrean erakusteko momentuan. Urte aunitz dira eta eskolako ekintzen artean antzerkiak bere lekua hartu du.

Abenduaren 15ean, asteazkenean, Igantzi eta Etxalarko eskoletako lagunak, ohi bezala, eskolara bisita egitekoak ziren antzerkiak ikustera. Larunbatean, berriz, abenduak 18, eta arratsaldean, guraso eta herriarrien aitzinean eskolako aktore eta aktoresek euren lanak aurkeztuko dituzte irakasleek laguntzaz. Egun horretan egiten dute azken aldian saldu dituzten boletoen zozketa ere.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Urteak dira eskolako neska-mutikoei antzerkiak prestatu eta Eguberriak hurbiltzean herriarrien aitzinean egiten dituztela.

ATERALDIAK

Eskolako jarduera osagarri gehiago aipatzen jarraituz, egun bateko hiru irteera egin dira. Lehena Haur Hezkuntzako ikasle eta irakasleek Irurera egin zuten. Azaroaren 19an, bigarren zikloko taldea Donostian izan zen; eta abenduaren 2an, hirugarren zikloko eta DBHko gelakoak Iruñera joatekoak ziren.

OLENTZERO

Olentzerok ere urteroko bisita egiten du. Abenduaren 24an, tradiziozko kalejira egiten da herrian barna. Eta Olentzeroren ondotik, hiru errege magoen bisita izanen dugu ilbeltzaren 5ean.

Bortzirietako Mus Txapelketa

Asteburuero, Pabloeneak antolatzen dituen mustxapelketetan hain-

bat lagunak parte hartzen dute. Herrian afizio handia dago eta horren erakusgarri aste-hondarretan muslarien artean izaten den giroa. Ba abenduaren 3an, Pabloenean Bortzirietako osasunazaleen peñak antolatutako Bortzirietako Mus Txapelketako partidak jokatu ziren eta 22 bikotek parte hartu zuten. Arantzan eta bertze herrietan egin diren kanporaketetatik guttienez Arantzako bortz bikote ariko dira Eguberri Egunean Lesakan egiten den finalean.

Bai euskarari zozketa

Herriz herri, Kontseiluaren eskutik, Bai Euskarari zozketak egiten ari dira. Hori horrela, abenduaren 9an, egin zen Bortzirietako zozketa Herriko Etxean. Lehenengo saria, Pabloenean bi afari eta biga-

rren saria, berriz, Lesakako Txinelkan oinetako pare bat dira eta 01.253 zenbakia (Bera-ko Bidaxka ostatuak banatua) eta 10.996 zenbakia (Berako Ricardo Baroja Ikastetxe Publi-

koak banatua) izan dira sarituak.

Solasaldia abenduaren 28an

Euskal Herria errespasioaren jo puntu solasaldia izanen da Ekaitza Elkartean abenduaren 28an, 19:00etatik aitzinera. Eta ondotik, afaria izanen da.

Jardunaldi gastronomikoak

Lehen aipatu ez badugu ere, azaro osoan Bertizko Partzuergo Turistikoak antolaturiko ehizari buruzko jardunaldi gastronomikoetan Burlada Jatetxeak eta Arantzako Aterpeak parte hartu dute. Tenoreko produktuekin sukaldatutako platerak eskaini dituzte azken hilabeteetan ere bai.



Ba al zenekien...

Bortzirietako Bertso Eskolaren lehenbiziko klaseak Arantzako Ekaitza Elkartean eman zirela? Bittor Elizagoien eta Manolo Arozenarekin aranztar kuadrilla biltzen zen Elkartean.



KULTURA

KANTUGINTZA → NAFARROAKO EUSKAL KANTU TXAPELKETA

Hainbat sari lortu dituzte Elizondo, Bera eta Etxalarko kantariek

Elisa Perotxena, Uxua Andueza eta Dantzadi taldea izan dira sarituak

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 20an jo katu zen Nafarroako Euskal Kantu Txapelketako azken saioa Elizondoko Lur dantzalekuan eta aurtengo edizioan parte hartu duten 22 lagunen artean nabarmendutakoak aritu ziren. Giro bikaina izan zen eta jendearen erantzuna ere ona izan zen, 400 bat lagun hurbildu ziren saioa ikustera. Berriki zendu den Jose Antonio Labordeta kantariari ere omenaldi eskaini zitzaion.

Sorkuntza-lana, eta era modernoan eta zaharrean kantatzeko dohaiak izan ziren saritutako ezaugarrietako batzuk eta azken horretan, hain zuzen, bigarren saria **Elizondoko Elisa Perotxenak** eta



ARGAZKIA: BENANTXIO ELIZAGOIEN

Etxalarko Dantzadi taldeak «talde lanagatik eta interpretazio ederragatik» hartu du saria. Horrez gain, Elizagoien ahizpek Euskal Herriko trikitilari gazteen txapelketa irabazi dute.

Ziaurrizko Iñaki Gerendiainek lortu zuten *Baldorba* kantuarekin.

SARI BEREZIAK

Bertzelako sari bereziak ere banatu ziren. Tartean, **Berako Uxua Anduezak** eta Alkozko Amaia Oizartunek *Interpretazio ederra eta aipamen berezia sorkuntzako lanagatik* jaso zuten aipamena. **Etxalarko Dantzadi taldeak** ere saria hartu zuen, *talde lanagatik eta interpre-*

tazio ederragatik. Irune eta Itsaso Elizagoien ahizpek eta David eta Iñigok osatzen dute Dantzadi taldea.

Euskal Herriko trikitilari gazteen txapeladun

Etxalarko Irune eta Itsaso Elizagoien ahizpek Euskal Herriko trikitilari gazteen txapelketa ere irabazi dute. Azaroaren 28an, Zaldibarren (Bizkaia) jokatu

zen txapelketaren XIX. edizioa eta bikain aritu ziren, Euskal Herri oso-ko zortzi bikoteren artean nabarmenduz.

Bizkaiko Trikitixa, Porrusalda, Azkorgain fandangoa eta Arin-Arina jo zituzten. Etxalarko ahizpak lehendik ere Lesakako edo Mallerrekako txapelak irabaziak badira ere, orain arteko garaipenik handiena lortu dute trikitixa eta panderoarekin.

BORTZIRIAK

Haur Txokoa Arantza, Etxalar eta Igantzín

TTIPI-TTAPA

Lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko Itun Mankomunitatearen barne, Haur Txokoa antolatu du Bortzirietako Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak laugarren urtez Arantza, Etxalar eta Igantzín. Eguberrietako oporretan, haurrek beren denbora librean kulturarekin eta herman afektiboekin jostatzen eta gozatzen ikasteko gune bat izan dute, solidaritatean eta berdintasunean oinarritu. Bideanbar, gurasoei aukera bat emanen zaie seme-alaben heziketa librearekin edota denbora librearekin bateratzeko. Haur Txokoa abenduaren 23tik urtarrilaren 7ra egingen da, 10:00etatik 13:00etara. Denera bederatzi saio izanen dira, herri bakoitzean lau besta egun hartuko baitituzte: abenduaren 24, 25 eta urtarrilaren 1 eta 6a Arantza eta Igantzín eta abenduaren 25 eta 31 eta urtarrilaren 1 eta 6a Etxalarren. Arantzan eta Etxalarren eskolan egingen da Haur Txokoa eta Igantzín ziberrean. Izen ematea abenduaren 21a baino lehen egin behar da, 948 635036ra (09:00-12:30) edo ssb@lesa-ka.net helbidera idatzita. Herri bakoitzean gehienez 15 haur apuntatzen ahalko dira eta guttienez 10.

Urte xaharra
Churrut Hotelean,
bai ederki?

Ch
HOTEL CHURRUT

Foruen plaza
BERA
T. 948 62 55 40
www.hotelchurrut.com

2010eko URTEZAHAR GAUEKO MENUA:

Isakin marinatua ogi txigortuaren gainean
Atun-tataki goilaratua, wasabi eta sesamodarekin
Onddo-nahaskia txigortutako brioche xafiatxo baten gainean

Abakando edo bogavante-krema

Itxas sago edo rapea, gainetik pistatua xahetua eta itsas trikuaren emaltzioarekin

Palanda betea foie, trufa eta eguberrietako fruituekin, bere zukuarekin lagundua

Amazoren konpos
Kafea eta eguberrietako gozokiak

EDARRIAK: Ardo beltza, Vitis Salceda, Ondoa, Errusia izandapenak
Ardo txuria, Alburiko, Marqués de Priat, Rias Baixas izandapenak
Ardo gorria, Principe de Viana, Nafarroa izandapenak
Champagne: Pilsener, Eperey izandapenak

Prezioa
100
+ IVA BEZ
(Kontu pribatu
eta enpresak)

BORTZIRIAK

GIZARTEA → KONPONBIDE ESKE

Arreta goiztiarrerako fisioterapeuta jartzea eskatu dute gurasoek, pediatriak eta Mankomunitateak

Haur ttikiekin Iruñera joan behar dute gurasoek

TTIPI-TTAPA

Bortzirietan 0 eta 3 urte bitarteko arreta goiztiarraren barrenean fisioterapia zerbitzua eskaintzea eskatuz, idatzia sinatu dute zerbitzu horren beharra duten 15 gurasok, eta Oinarrizko Jendarte Zerbitzuetako ordezkari politiko eta teknikariak eta Osasun Zentruko pediatriak eta erizainak. Eskutitza Nafarroako Arartekoari, Osasunbideari

eta Gizarte Ongizate Sailari helaraziko zaie eta arazoari lehenbailehen irteera ematea eskatuko zaie. Horren berri azaroaren 30eko agerraldian eman zuten.

Gaur egun, atentzio goiztiarraren baitan, logopedia eta estimulazio zerbitzuak eskaintzen dira Bortzirietan ANFAS erakundearen bidez, baina fisioterapia nahi duenak Iruñera joan behar du. Ondorioz, errepideko arriskuaz gain, joan-etorrietarako zailtasunak daude eta horrek fisioterapia-saioak gutxitzea dakar. Gainera, joan-etorriak ordaintzeko dirulaguntzak ken-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Gurasoak, Mankomunitateko teknikariak eta politikariak, pediatria eta erizaina azaroaren 30ean Etxalarren egindako agerraldian.

du dira. Aitzitik, legeak dio guttienerako zerbitzuok Nafarroa osoan norbere etxebizitzaren hurbilean eskaini behar direla.

Bortzirietako bizilagunak gainerako nafarrekin konparatuta desberdintasun egoeran daudela ere kritikatu du-

IRUÑERA JOAN BEHAR
Atentzio goiztiarraren baitan, logopedia eta estimulazio zerbitzuak eskaintzen dira Bortzirietan, baina fisioterapia nahi duenak Iruñera joan behar du.

te, fisioterapia zerbitzua ez baita bakarrik Iruñeran ematen, Lizarra eta Tuteraldekoek ere beraien herrietan hartzen baitute.

Horregatik, arazoa ezagutzera eman eta fisioterapia zerbitzua ezartzeko eskatzeaz gain, zenbait irtenbide ere proposatu dituzte: logopedia eta estimulazio zerbitzuak Bortzirietan eskaintzen dituen ANFASi fisioterapeuta bat kontratatzeke baimena ematea, zerbitzua Lesakako Osasun Zentroan ematea baloratzea, dagoeneko haur fisioterapeuta batekin lan

egiten duen Aspacerekin zerbitzua konzertatzea, edo, azkenik, fisioterapeuta Iruñetik Bortzirietara hurbiltzea.

Belen Compayns pediatriaren hitzetan, estimulazio –2004 inguruan– eta logopediaren zerbitzuak –duela 3-4 urte–, protestatu ondotik paratu ziren. Bortziria izan zen Iruñetik kanpo arreta goiztiarreko zerbitzu horiek lortu zituen lehen eskualdea eta gero hedatu zen bertze eremuetara. Fisioterapeutarekin ere bide bera segitu dute eta helburua lortzeko itxaropena dute, «beharra badelako».



ABENDUAREN 27TIK URTARRILAREN 5ERA
errege egunetako-kanpaina

%10

%10a, etorkizuneko erosketetan trukatu ditzazkezun puntutan Club mas por ti -ko berezo **GUZTIENTZAT** Larun-Haizpeko ondorengo dendetan

- Agara kirolak
- Arturo
- Goya
- Igone paper-denda eta oparotak
- Kirolak Zela
- Martzutzak
- Mikkala

Sustapen honek abenduaren 27tik urtarrilaren 5a arte balio du. Clubeko denda, 945 01 01 31 edo www.clubmasporiti.com informazio zailtaske eta clubmasporiti-lik eskaintzen dituzten abentak guztiztas azalduz.



BORTZIRIAK

FERIAK → KASIK 200 AZIENDA BURU AURKEZTU ZIREN PLAZARA

Makukobordara joan da aurten Lesakan behi onenaren saria

Aitor AROTZENA

Eguraldi kaxkarrari aurre eginez 191 azien-da buru aurkeztu ziren azaroaren 25eko Lesa-kako feria egunean, 107 zaldi eta behor, 32 pottoka, 46 behi, batzuk bere aretzearekin, bi zezen eta bortz ahare.

Sariei dagokienez, behi aziendetan, suizetan Berako Begibeltzenekobordako Joxean Igoak eskuratu zituen hiru lehen sariak, 190, 160 eta 100 eurokoak. Baina aurten, hobekien aurkeztutako behiari emandako txapela Lesakako Nabaz auzoko Makukobordara baizik. Haragitako behietan hiru sariak baserri honetako Asuncion Aiestaranentzat izan ziren. Frisona arrazako lehen saria, 190 eurokoa, Pilotegiko Manuel Maiak eraman zuen.

Zaldi aziendetan, 125 euroko lehen saria eta hobekien aurkeztutakoari emandako txapela eta bigarren saria Iriberriko Francisco Muñoa Alfarorentzat izan ziren eta hirugarrena, Jose Anto-



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Ehun zaldi eta behor baino gehiago eta 32 pottoka bildu ziren plaza ingurura.

nio Larralderenak lortu zuen. Ahareetan, hiru lehenbiziko sariak Berako Miguel Angel Etxegararentzat izan ziren.

Aziendez gain, hainbertze salmenta postu paratu ziren karriketan. Aizkora eta motozerra desafioak ikusgai izan ziren eta Lizaso eta Irazu bertsolariak ere aritu ziren plazan. Presoeikin elkartasunez elkarretartzea egin zen eta zozketatutako zerria Txarroltikira joan zen.

AJOARRIERO LEHIAKETA

Bezperako ajoarriero lehiaketa ikusgarria suertatu zen, 16 bikote aurkeztu baitziren, inoiz baino gehiago. Hiru lehenbiziko sariak Bortzirietako Gorriak peñakoentzat izan ziren, lehenbizikoa Juan Ignacio Etxepare eta Maite Ortegarentzat, bigarrena Juan Luis Otxoteko Kalixa eta Agustin Zubietarentzat eta hirugarrena Xebita Susperregi eta Alicia Martinentzat.

LEGASA

Eguberrien seinalea eskolan

TTIPI-TTAPA

Gutti gelditzen zaie eskolako lagunei oporrak hartzeko, egun batzuk baino ez. Baina aitzinetik, urteko azken eskola egunean, abenduaren 22an, eta Eguberriak hurbiltzen ari direlako, Eguberrietako kanta batzuk abesten ariko dira neska-mutikoak eta irakasleak 11:00-etatik aitzinera. Kantuan ibili ondotik, gurasoek prestatutako gosaria izanen dute.

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

Eginazu
TTIPI-TTAPAren alde
proiektu zenbakia:
15.996

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
**Nafarroan
orain!**
Berria erosi taldea

masai
MARIA IÑARRIA IRIURETA
MASAJISTA
Masajoi - Bontzuek - Reiki

**BIZKARREKO MINA
LEPO ETA BURUKO
TENTSIOA
BIHURDURAK
ZUNTZ HAUSTURAK
LUZAKETAK
MUGIKORTASUNA
HOBETZEA
ERLAXAZIO TEKNIKAK
BESTEAK**

Beretaberri Plaza C - 1. B
31793 NARBARTE
tel. 649 543 924

EUSKARA → NAFARROAKO GOBERNUARI ESKARIA

«Gutxieneko hornidura ekonomiko duina» jartzeko eskatu dute euskara zerbitzuek

Hitzarmena duintasunez hornitzeko mozioa sinatu dute 80 eragilek

TTIPI-TTAPA

«Euskara zerbitzuek garapen handia izan dute. Baina zoritxarrez, bultzatu duten garapenak ez du [Nafarroako Gobernuaren] pareko dirulaguntzaren hazkunderik izan, kontrakoa baizik». Horrela salatu zuten azaroaren 30ean Euskararen Erabilpena Udal Esparruan Normalizatzeko Lankidetzaren Hitzarmeneko Jarraipen Batzordeko kideek Iruñean egindako agerraldian. Hitzarmena Duintasunez Hornitzeko Mo-



UTZITAKO ARGAZKIA

Tokiko entitateetako ordezkariak agerraldia eskaini zuten azaroaren 30ean.

zioa sinatu dute Nafarroako 80 entitateek, tartean daude eskualdeko 23 udal: Baztan, Arantzeta, Bera, Etxalar, Igantzi, Lesaka, Arano, Areso, Goizueta, Leitza, Bertizarana, Beintza-Labaien, Donamaria, Do-

neztebe, Elgorriaga, Eratsun, Ezkurra, Ituren, Oiz, Saldias, Sunbilla, Urroz eta Zubietza.

Toki Administrazioaren arloan euskararen erabilpena babestu, berreskuratu, bultzatu, garatu eta normaltzeko,

1998an sinatu zuten tokiko entitateek eta Nafarroako Gobernuak Euskararen Normalizatzeko Lankidetzaren Hitzarmena, hau da, alor ekonomiko, tekniko eta antolamendukoan lankidetzak. Baina 10 urte-

ra, «dagozkion konpromiso ekonomikoak betetzetik oso urrun» dagoela kritikatu dute. 1999an euskara zerbitzuek gastatutakotik Gobernutik %43,3 jaso zen eta aurten %6,12 baino ez. «Agerian gelditu da murrizteko asmoak azken bi urtetako krisaldi ekonomikoarekin lotura zuzenik ez duela, jaitsierarik handiena 2005ean eman baitzen: %43koa».

Toki entitateentzako diru-saila Gobernuaren aurrekontu osoaren %0,028 izan zen 99an eta 2010erako %,0037koa izanzen litzateke. Hala, Gobernuak guttieneko hornidura ekonomiko duina jartzea «ezinbestekotzat» jo dute eta 2010erako 1.235.000 euro «egokiak» direla iritzi diote.



- Eskopeten salmenta eta konponketa
- Ehiza eta arrantza goiak
- Ehiza baimenen tramitazioa

armadenda

andueza

Paotxa Eraikina • Gorostiaga, z/g • Anaka Industrialdea
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN
c.andueza@euskalnet.net

SUNBILLA

OSPAKIZUNAK → ULIBELTZAK ELKARTEA

Kantu zaharren afaria eginen da larunbat honetan Ulibeltzak elkartean

Urtezahar Egunean ere afaria eginen da elkartean

Itxaso ARRIETA

Ez da kantu zaharren afaria egiten den lehen aldia, baina aurtengoan ere ez du alde batera utzi Ulibeltzak Elkarteak. Larunbat honetan, abenduan 18, eginen da. Menua ere jakinarazi dute antolatzaileek: arrain zopa, redondoa saltsan patata purrearekin eta gaztanbara. Edariak, kafea eta kopa barne, guztia 20 eurotan. Astearte honetan akitzekoa zen izena emateko epea, Itturburu ostatuan zegoen zerrendan.

URTEZAHARRA

Urteari behar bezalakoa akabera emateko, Urtezahar Egunean ere afaria eginen da. Joan den urtean bezala, Ulibeltzak Elkarteak antolatuko du eta hauxe izanen da menua: pateak, otarrainxkak, arrain zopa, bakailaozko piper beteak, azpizuna piperrekin, turroia, mahatsa, edariak-txanpaina barne-, kafea eta kopa eta kotiloiko boltsak 40 eurotan. Horrez gain, Ageralde akordeolariarekin ere dantzaldia izanen da.

Urtezahar Egunean afarira joan nahi duenak abenduaren 28ra bitartean txartelak Itturburu ostatuan izanen ditu eskura.

Olentzero egunerako berrikuntza

Gutti gelditzen da Eguberrietarako eta Olentzeroren bisita eguna ere gainean dago. Dena den, komenigarria izaten da aitzinetik pixka bat prestatzea eta hortaz, ortziral honetan, abenduak 17, 16:00etan entsaioak egiten dira beheitiko eskolan.

Eta Olentzero menditik etorriko den egunean, abenduaren 24an, aldaketa bat izanen da aurtengoan. Orain arte 14:30ean gelditu eta buelta osoa eman izan da. Baina ttikienei itzulialuzeegi egiten zitzaizela eta, 15:30ean ateratzea erabaki da, eta bi taldetan banatuta egiten da herrian barnako itzulia. Beheitiko eskolatik abiatuta, talde batean 9 urtez azpikoak ibiliko dira, eta auzo bat egiten dute. Zaharra-goak errepideko auzoan ibiliko dira.

Ondotik, berendua izanen dute Ulibeltzak elkartean eta Olentzerori eskutitza eman eta berarekin argazkia ateratzeko aukera ere or-



ARGAZKIAK: MIKEL GEREKA

Eskola ttikien lehen erantzuna positiboa

Lehenbiziko aldia izateko, Malerreko zazpi eskola ttikien bestaren balorazio orokorra «oso positiboa» izan da. Horrela azaldu digu Mikel Gereka Malerreko eskola ttikietako koordinatzaileak. Beintza-Labaien, Eratsun, Ituren, Legasa, Narbarte, Saldias eta Sunbillako eskoletako 161 ikasle eta 26 irakasleetatik gehienak elkartu ziren azaroaren 26an herrian. Taldetan banatuta, hiru ekin-tza egin zituzten ikasleek: joko fisikoak frontoian, gela barrenean mahai-jokoe-tan eta muralak egiten aritu ziren, eta azkenik, Pello Añorga ipuin-kontalaria-ren saioa ere «zoragarria» izan omen zen. Bazkaria, musika eta txokolatada ere izan zituzten. Topaketaren egin den lehen aldia izan da, eta alde horretatik, hurrengoegi begira, gauzak hobetu daitezkeelakoan dago Gereka, baina helburua beteta pozik gelditu da erantzunarekin. Aipatzekoa da, azken bizpahiru urteotan esfortzu handia egin dela Malerreko eskola ttikiak dinamizatu eta talde bakar gisa funtzionatzeko koordinazio proiektu bat garatzeko, eta hala, ikasturte honetan, Mikel Gereka da ordu batzuez koordinazio lanetan aritzen dena. Hain zuzen, elkarlan horren emaitzetako bat, azaroaren 26ko besta izan zen.

duan izanen dute neska-mutikoeak. Trukean Olentzerok opari ttiki bat emanen die.

MARIDOMINGI LEHENAGOTIK

Hori baino lehen, abenduaren 22an Maridomingi etorriko da Ulibeltzak Elkartera, 16:00etan.

Antzerkia Donezteben

Herrian antzerkia ikasten ari direnek entsaioetatik taula gainetarako saltoa egiten dute abenduaren 23an, ortzegunarekin. Egundorretan, Doneztebe-ko Zineman antzeztuko dute.

Kinto bestak

Kinto besta bat baino gehiago egiten ari dira azken aldian herrian. Azaroaren 27an 1945, 1946 eta 1947an jaiotakoak egin zuten, eta hilaren 8an 70 eta 85 urte artean dituztenak. Larunbat honetan, abenduak 18, 1980an sortutakoena izanen da.

BAI EUSKARARI ZOZKETA Malerrekan
Saritutako zenbakiak

2 lagunentzako otordua Hostal Ezkurran: **4770**
Opari txartela Ibarrola Mertzerian: **6505**
Oinetako pare bat Casa Ostizen: **5500**
Produktu sorta bat Kimetz Belardendan: **2359**
Deitu Malerreko Mankomunitatera: **948 451 746**

bai
euskarari

KIROLA → FAXISMOAREN KONTRA

Mendiaren Eguna antolatu du Errekak larunbat honetarako

Juan Vallejo mendizalearen proiektioa eskainiko da

TTIPI-TTAPA

Bertze urte batez, Mendiaren Eguna antolatu du Erreka Kirol Elkarteak. Larunbatean, hilak 18, egingen da.

07:30ean mendi irteera egingen da Leurtzakoko

Zirkora. Hartara, Errekak Bonozorrotz mendian duen buzoia bisitatuko da, nahiz eta aurtengo ezezagunek hautsia duten.

13:00etan mendizale-poteoa izanen da eta 14:30ean bazkaria Kasiñon. Bazkarira joan nahi dutenek txartelak Titi Ostatuan eskura ditzateke, ortzeguna baino lehen.

Dena den, Zinemaren egunen den eguneko ekitaldi nagusiari 19:30ean

emanen zaio hasiera. Aurtengo ere goi mailako mendizale bat etorriko da: Juan Vallejo, hain zuzen, eta *Broad Peak 2010* proiektioa eskainiko du. Alberto Iñurritegi eta Mikel Zabalza rekin balentria haundia egindakoa da Vallejo (Gasteiz, 1970), Erdiko Broad Peak-ean bide berri bat ireki eta Broad Peak-eko hiru puntak kateatzea lortu baitute,

soka finkorik eta garraio-laririk gabe eta dena bizkar gainean garraiatuz.

Bai Euskarari

Malerekako Bai Euskarari zozketako zenbaki sarituak hauek dira: 4.770 (2 lagunendako otordua Hostal Ezkurran); 6.505 (opari txartela Ibarrola Mertzerian); 5.500 (oinetako pare bat Casa Ostizen) eta 2.359 (produktu sorta Kimetz Belardendan).

Emanaldi berezia

Ortziral honetan, hilak 17, kontzertu berezia izanen da elizan, 20:30ean. Mendi Abesbatza eta Donostiako Udal Txistulari Taldearekin batera, dantza taldekoek eta Agorreta Musika Eskolako ikasleek parte hartuko dute.

Olentzero eskolan

Urtero bezala, hilaren 22an, Eguberrietako jaialdia egingen dute eskolako neska-mutikoek gimnasioan eta menditik etorriko den Olentzero hartuko dute bisitan.

FLASH

Errekaren ereserkia

Lainoaren Umeak, Zeruren Koloreak. Halaxe du izena Erreka Kirol Elkartearen ereserkiak. Mikel eta Poti Rekartek egin dute konposizioa, eta hitzak Txomin eta David Mindegia eta Mikel Rekarterenak dira. Konponketak eta partiturak, berriz, Ainhoa Sanz eta Cecilia Otaegik egokitu dituzte. Abestiko ahots nagusia Alberto Zunzarrenena da eta koroan, Xabier Bañares, Pascual Bertiz, Joxe Irigoien, Juan Telletxea, Javier txo eta Lorena Almandoz, Pablo Elizondo, Ibai Mariyekurrena, Mikel Rekartek, Izaro Martin, Maitte Urreaga, Maialen Zamorano, Ainhoa San Miguel eta Maitane Larretxeak parte hartu dute. Musika-tresnen artean, perkusioa (Mikel Rekartek), bibolina (Cecilia Otaegi) eta pianoa (Ainhoa Sanz) entzun daitezke eta grabaketa eta produkzioa Jorge Mariñelarenak egin du. Aitzinerago bertsio animatuagoa egingen dutela ere iragarri dute. Eskubaloitza taldeen aurkezpenean—azaroaren 28an—eman zuten Elkarteak ereserkiaren berri. 8 taldeak 140 jokalaririk dituzte Errekak eskubaloian.



ARGAZKIAK: TTIPI-TTAPA

Ohikoez gain, bertzelako kontuak Udazkeneko Ferian

Udazkeneko Feria egunean jendetza ibili zen herrian eta Merkatuko Plazan ez ezik, herri osoan barna hedatuta zeuden postuetan harat-honatean. Aziendei dagokienez, 30 bat behi buru eta 15 bat behor eta pottoka izan ziren plazan. Piriniar eta suitzar arrazako behiekin batera, *salers* eta *charolesa* arteko nahasketak diren behiak ere ikusi ziren. Eliz atarian, berriz, Zubietako talo-egileak eta Saharaztangoen tonbola ere izan ziren, azken hau inoiz baino gehiago Saharako herriari babesa eskaintzeko asmoarekin. Alhondigian, Emakume Baserritarren Begirada argazki erakusketa egon zen zabalik eta Anasaps-Dizdira Elkartearen Ate Irekien Eguna egin zuten eta bulego barrenean buruko gaixotasunak dituztenen arte eta kultur adierazpenak ikusteko eta irakurtzeko aukera izan zen. Merkatuko Plaza ondoko zubian, bertzelalde, Marmoles Baztango langileek ere bere aldarrikapenaren berri eman zuten, *Despidorik ez!*, *Solución* ya zioen pankartaren gibelean. Arratsaldean, Feria Eguna borobiltzeko, herri kirol saio bikaina izan zen frontoian.

artlepo
web orriak
irudi korporatiboa
kartelak
gonbidapenak
egutegiak
liburuxkak
logotipoak
txartelak
oroigarriak
www.artlepo.com

onddo
SA ZURTA
sudaderak
kamisetak
Tenporadako
arropa eta
outlet
www.onddobazarra.com

Denda berria Donezteben!!
Zazpigarutze, 3 - LB Doneztebe 948 450 478
artlepo@artlepo.com

ITUREN

EGUBERRIAK → OSPAKIZUNAK

Ibintzak salgai ditu urteko jarduerak finantziatzen lagunduko duten boletoak

Errege bezperan eginen da zozketa

Arkaitz MINDEGIA

Dagoeneko salgai daude urtero Ibintza Kultur Taldeak ateratzen dituen boletoak. Jakina denez, urtean osoan, Kultur Egunak, Joalduen Eguna, dantza ikastaroak, Trinitate Egunko bazkaria, antzerkiak... ordaintzeko diru iturri bat da izaten da hori.

Lehenengo saria bi lagunendako asteburua izanen da landetxe batean, bigarrena bainuetxean bi lagunendako saioa eta hirugarrena, berriz, bi lagunendako afaria Altxunea erretegian.

Zozketa, ohi bezala, urtarilaren 5ean, Errege Bezperan, eginen da Iturengo Ostatuan.

Behin zozketa egingakoan, zenbaki sarituek inguruko komunikabideen bidez jakinaraziko dira: TTIPI-TTAPAN,

Xaloea telebistan eta Xorroxin Irratian. Zorte on!

Eguberriak gainean

Abenduan sartuak gauden honetan, kanpora begiratzuz eguraldi txarra ikusten dugu, hotza, euria eta mendie-

tan elurra. Horrekin ohartzen gara negua laister dugula, baina ate joka ditugunak Eguberriak dira. Eguberrietako oporrak hartu aitzinetik, eskolako neska-mutikoak ikuskizun, besta, musika eta algara izanen dute. Baina ez dira

horrekin bakarrik geldituko, eskutitzak idatziz, Olentzero egunerako Eguberrietako kantak ikasten eta kantatuz hortxe ibiliko baitira.

Beste herrietan bezala, Aurtitzen eta Ituren Olentzero etorri baino lehen gaztetxoak he-

rriari buelta emanez ibiliko dira Eguberrietako abestiak kantatuz. Gainera, agian Iturenera Olentzerok bisita egingen du.

URTEZAHARRA ETA ERREGE BEZPERA

Urtea bapo-bapo afalduz akituko dugu eta 12 mahats janez hasi urte berria. Baina horren ondotik, Errege bezpera besta haundia izaten dugu, bai Iturenen eta Aurtitzen ere, afari baten bueltan biltzen baitira denak. Iturengo kasuan, Ibintza Kultur Taldearen boletoen zozketa ere orduan egiten da. Gauerdia hurbiltzean, Ituren, Aurtitz eta Zubietan joare soinuak entzuten hasiko dira: gazte ala zahar, mutil ala neska, joare soinuak zabaltzen ariko dira lau haizetara.

Eguberriak horrelaxe pasako ditugu gure txoko honetan. Lerro hau bidez, denei Eguberri zoriontsuak opa dizkizuegu eta Urteberri On! Ea ez dugun ikatzik oparrien artean.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Maika Ariztegi bederatzigarren aldiz txapeldun

Maika Ariztegi bederatzigarrenez jantzi du txapela Euskadiko Txokor-Biltze Txapelketan. Gainera, 2008ko marka gainditu du, bere lana 7 minutu eta 21 segundotan egin baitu. Bertalde, Euskal Herriko II. Mailako aizkorako finala azaroaren 19an jokatu zen Donezteben. Guztira sei aizkolarik hartu zuten parte eta tartean Ander Erasun aurtiztarak. Ez zuen garaipena lortzerik izan, eta 26:22an egin zuen bere lana.

Koipe eta olio bereizleen kutxatilen garbiketa

Sukalde industrialetako Koipe eta olio bereizleen Kutxatilen Garbiketa eta Kudeaketa **ZERBITZU INTEGRAL BERRIA** (LER 190809 hondakina). Honekin administrazioaren aurrean sukaldeko uren kudeaketa egokia frogatu ahal izango duzu eta Legea bete.

Tel.: 902 366 251 • ecogras@ecogras.es • www.ecogras.es

Landare olio erabilian
Kudeaketa baimendua:
GNP/23/NA/2004
Hondakin arretaketa
gaitasuneko kudeaketa
baimendua:
T/153/NA/2005

ECOGRAS

Erabilitako landare olioaren bilketa

Zaindu zeure ingurumena!

GIZARTEA → HAUR ETA GAZTETXOEN TXOKOA

Gazteguneaz arduratuko diren gurasoen karguak banatu dituzte

Aste honetan arduradunekin hastekoa zen martxan

Fermin ETXEKOLONEA

Azken orduko aldatetarik ez baldin bada behinik behin, ludotekak edo gazteguneak ateak zabalik izanen ditu. Orain arte gurasoen ardurapean egon dira neska-mutikoak ludotekan, baina astearte honetatik aurrera Txas Esparza eta Ainhua Larrearen esku gelditzekoa zen ardura.

Atzeratu egin dena inaugurazio ofiziala izan da. Hasiera batean abenduaren 12an egitekoa zen, baina hilabete hasierako bileretan, egunez aldatzea erabaki zen. Lerro hauek idazterakoan oraindik zehaztu gabea zen eguna.

KARGU BANAKETA

Gaztegunearen funtzionamenduaz arduratuko diren gurasoen karguak ere banatu dituzte eta honela gelditu dira:

Ines Gereka izanzen da lehendakaria; Maria Salanueva lehendakariordea, Arantxa Diez diruzaina eta Txas Esparza idazkari lanetan ariko da.

Olentzero

Abenduaren 24an

Olentzeroren bisita hartuko dugu herrian eta seguruenik opariak banatuko ditu estalpean.

Filma Gaztegunean

Euskarabidearen eskutik, abenduaren 4an *Goazen ilargira* marrazki-bizidunen fil-

ma ikusteko aukera izan zen Gaztegunean. Hala, Ilargian barna buelta emateko aukera izan zuten ludotekan bildu ziren 25 neska-mutiko eta hurrek.

Herritarrek futbiton

Malerrekako Gazte

Asanbladak antolatutako futbito txapelketan hartu zuten parte herritarrek abenduaren 3an eta 4an Sunbillaan. Ez zuten, ordea, zortea aldeko izan eta jokatutako hiru partidetatik bi galdu eta bestea berdin egin zuten. Dena den, esaten den bezala, parte hartzea da garrantzitsua.

Ander Fuentes bertsotan

Abenduaren 3an jokatutako Doneztebeko Ekaitza ostatuan Malerrekako bertso eskolaren bigarren taldekako lehiaketa eta *Bertzi guzik* taldean aritu zen Ander Fuentes *Itturri* herritarra. Iban Garro-Maialen Belarraren orde- eta Irati Arrieta-ekin osatu zuen hirukotea eta *Iturengo* taldearen kontra aritu ziren. Iturendarrek hartu zieten aurre, eta hortaz, eurek izan ziren Bortzirietako Taldeko XII: Bertso Txapelketara sailkatu zirenak.



ARGAZKIA: AMAIA ELIZALDE

Joxepa Loiarte eta Jesus Santesteban Urrezko Ezteiak

Fermineneko Joxepa Loiartek eta Jesus Santestebanek 50 urte egin zituzten ezkonduz azaroaren 26an, eta Urrezko Ezteiak ez direlako egunero betetzen, azaroaren 28an familia giroan elkartu ziren. Meza izan zuten lehenbizi, joaldun eta txistulariak tartean zirela, eta ondotik, denek elkarrekin bazkaldu zuten. Bost seme-alaba eta dozena bat biloba hazi ditu Fermineneko senar-emateak eta herri guziaren izenean, zorionak.

616 513 491

Pitti ESKABAZIOAK

GARRAIOAK, ESKABAZIOAK, KONTENEDOREEN ZERBITZUAK

Kontenedoreak: 5 m³ - 7 m³ - 12 m³ - 20 m³

Mota guztietako hondakinak biltzen dira

Tel/Fax: 948 45 13 89
C/ Amezitia, 1 • 31740 Doneztebe (Nafarroa)

APARAN, S.A.

ERIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagaiak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab.

APARAN

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

URROZ

TURISMOA → LEURTZAKO DENBORALDIA

35.000 bisitaritik gora izan dira aurten Leurtzako urtegieta

Banaz bertze, 140 lagun izan dira 2010ean urtegieta

Joseba URROTZ

Udazkena ailegatu denez, urtero bezala, egin da Leurtzako Aisi Eremuaren denboraldiaren datu bilketa eta hausnarketa.

203 egunez hartu dituzte datuak bertan

egon diren zaindarien, eta hortik abiatuta, gainerako 160 egunentzat atera dira kontuak. Horren arabera, aurten Leurtzako urtegieta 35.000 bisitari baino gehiago izan direla ondoriozta daiteke.

Iaz baino 1.500 pertsona guttiago zenbatu dira, baina azken urteotako datuen antzera mantentzen da. Beti ere, eguraldiaren arabera aldatuak izaten direla



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

Abendu hasieran elurtua ikusi genituen Leurtzako bazterrak.

kontuan hartu behar da.

Banaz bertze, eguneko 140 bisitari ateratzen da, eta ematen du urtean zehar bisitak bantzeko joera finkatzen ari dela. Aipatu, 2009an eguneko 145 lagun pasatu zirela kalkulatu zela, 2008an 120, 2007an 158 eta 2006an 162.

BIDEA MOLDATZEN

Urroztik Leurtzako urtegieta doan bideko zuloetan –markatuak dagoeneko– konponketak egingen dira.

Hirigintza Plana

Herriarentzat Hirigintza Plan berria egiteko pausuak mantso-man-

tso ematen ari dira, eta laister, Udalak lehenbiziko onespina emanen dio. Ondotik, herritarrek ikusi eta aztertu dezaten erakusgai egonen da, eta azalpenak nahi dituenak, hitzordua ere eskatzen ahal izanen du. Horren berri, aitzinera go emanen dugu.



Ameztia Hoste bar asador
Hostela Cabatu erretoria

Pintxoak eta bokatak | Janaria eramateko

ESPEZIALITATEAK:
Arrainak eta haragiak parrilan
Garaiko barazkiak

*Ameztiako langileak
eskerrak eman nahi dizkizuegu
bezero guztiei gurrera etortzeagatik.*

Zorionak eta urteberri on!

Ameztia, 9 | DONEZTEBE
T. 948 450 028 (ostatua) | T. 948 451 902 (jatekeak)
info@bertizbtt.com
www.ameztia.com



bertizBTT

Zuen itzulia
Donezteben bukatzen baduzue
IBILGAILUAN ETXERA eramango zaituztegu

f 948 450 028 | Doneztebe | info@bertizbtt.com

**Zatoz! zure neurrira egindako
ibilbidea antolatuko dugu
zonaldean!**

www.bertizbtt.com



NAFARRAKO LEHENENGO BTT ZENTROA

GIZARTEA → ETXEBIZITZAK ETA BIZTANLERIA

Jendea laketzen hasia da herrian

Azken urteotan lau etxe berri dira eta beste lau berri egin dira

Eneko eta Markel

Etxean jan eta kanpoan lan. Lana etxetik hurbil samarrean bilatzea lehen bezain zaila dago. Zahar batzuek diote lan eskasi hau ez dutela behinere ezagutu; hala ere, kontent egoteko motiborik badago, jendea laketzen hasia baita herrian. Joan den hamar urtean, etxe franko berriak egin ere. Eta denak zerrenda batean paratuz ge-

ro, koadro polita gelditzen da. Bakarren bat faltako da, baina irudi bat egiteko balio du.

Berrituak

Azpiko etxea
Joanea
Maxengo borda
Otxonea

Berriak eginak

Argiñeneberria
Goikoetxea
Migeltxonea
Orereta

Horietaz aparte, Joaneko bordaren ondoan etxe bat eginen ari dira; Maxengo bordaren ondoan, beste bat, eta Mikelenean ere berritzen ari dira. Hiru horiek noiz-



ARGAZKIA: MARKEL ETA ENEKO

Ezkur urtea elur urtea bada, aurtan maiz ikusteko gaude holako erretratua.

DATUA

100

LAGUN

inguru bizi dira gaur
egun Saldisan.

Aspaldietan ttikitzen ari zen Saldisa. Ehun bat lagun izanen ditu, askoz gehiago ez. Eskolan ere, berriro ar-

te, bost mutiko, doi-doia. Baina aurtan, nes-kato bat hasia da Otsontara, eta, ondoko urtean ez bada hurrengoan, beste haur bat hasiko da. Gainera, familia esperoan izan behar dute beste bi emakumek. Beste gaineoan, asteburuetan sumatzen da zainak hemengoak dituztela herritik kanpora bizitzera joan zirenek. Ea herria bizkortzen den denen arte.

ELGORRIAGA

BALNEARIO - BAINUETXE
Errotaldean z/g 31744 Elgorriaga (Nafarroa)
Tel. 948 45 60 45 - www.balnearioelgorriaga.com

Eguberri zoriontsuak opa dizkizuegu

EZKURRA/ERATSUN

GIZARTEA → MEMORIA HISTORIKOA

Makien arrastoak aurkitzeko egindako azken ahaleginek ez dute fruiturik eman

Hiru makien bila aritu dira 15 lagun

Fernando ETXEBERRIA

Eratsungo Alkote borden ondoan, 1951ean exekutatu ziren hiru makien arrastoak aurkitzeko egin diren azken saiakerek ez dute zalantzarik argitu. Helburu horretan aritu ziren azaroaren 20an, Aranzadi Zientzia Elkartekoak eta herritarak, baina ez zuten ezer lortu.

Herritar batzuen argibideei segituz, 09:30 aldera hasi ziren lurra mugitzen, eta bi orduko lanen ondotik, arrastorik ageri ez zela-eta, hondeatzailer makinarekin ekin zioten. Halere, alferrik, ez baitzen zorterik izan eta 15:00 aldera, bildutako 15 bat lagunak Barranka ostatura joan ziren bazkaltzera.

Duela urte batzuk ere, Aranzadiko kideak inguru horretan ibili ziren, eta zenbait herritar ere elkarriketatu zituzten. Geroako utzi zuten kontua. Baina Jose Luis Martinez Barranco leitzarraren interesari esker eta fusi-

latutako senitartekoen elkartearen kolaborazioarekin, behar ziren baimeak eta Presidentzia Ministeriotik dirulaguntzak eskuratu ziren.

Emaitzik gabe zalantzak areagotu egin dira. Gainera, sortzez eratsundarra baina heretik kanpo bizi den batek baieztatu egin du makiak Lartargi eremuan lurperatu zirela, baina gerora, herriko apaizak gorpuak lurretik atera eta hilerria eraman zituela. Hildakoen oroimenez apaizak hileta elizkizunak egin nahi izan zituela dioenik ere bada, baina agintariak debekatu omen zioten.

Istripua

Eratsungo Axura Beheko baserrian bizi zen Aquilino Loiarthetik topatu zuten hilaren 7an bere baserrirako pistan, ibilgailuarekin amildu ondotik. 42 metroko erroka izan eta Zumarrezta-ko erreka aldera joan zen. Abenduaren 7an aurkitu zuten ibilgailua, baina ez dute istripuaren eguna zehazterik izan, hilaren 4an ikusi baitzuten azken aldiz Goizuetan.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Argazkiko koadrila hau aritu zen azaroaren 20an makien arrastoen bila.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Iturri berria

Telletxea-Mariezkurrena familiaren interesari esker, Txomingo aldean dagoen ur arrastoa kanalizatu egin da, eta depositu bat jarri da inguruko etxeak urez hornitu ahal izateko. Egariarekin dagoen edozein ere joan daiteke aipatutako tokira, eta kanpo aldera duen hoditik ur freskoa edan.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Ezkurako lehenengo landetxea

Zenbait urtetako gestio lanaren ondotik, hasi da Vitoriano Iparra Ezkurako lehenengo landetxea izan dena eraikitzen. Argazkian ikus daitekeen bezala, oso haundia da, eta dagoen tokia hain ederra izanda, seguru, heldu den urteko udan martxan jarritakoan, jende asko erakarriko duela. Horrez gain, beste bi etxe ere egiten ari dira eta pozgarria da hori, biztanleria igoko den seinale baita. Izan ere, azken 10 urteotan erroldan 50 gutxiago izan baitira. Azken aldian, Portugalgo familia bat ere etorri da, hiru seme-alabekin.



Eguberriak 2010

Jostailuak, edo arropak direla, kosmetika produktuak zein osagarriak, auziztan opariekin asmatzea zaila izaten da, eta buruhauste bat baino gehiago sortzen digu opari aproposa aurkitzeak. Gehigarri honetan proposamen komertzialak, aholkuak eta han eta hemen, gure herrietan, antolatu diren jardueren buruzko informazioak topatuko dituzu. Baliagarri izanen zaizkizuelakoan, Eguberri on!

Merkataritza bizirik dagoen tokietan, herriak ere bizi-bizi daude.

Erosi gure dendetan!



**ETXETRESNA ELEKTRIKOAK
JAURENA**

Julio Caro Baroja. 6 behea
31780 BERA
Nafarroa
Tel/Faxa: 948 631 217

EGUBERRI ON!!!



Etxetresnen denda



GOYA

- Baserritar jantziak
- Arropak
- Malindireak
- Mantak
- Toallak
- Gortinak
- Alfonbrak




EGUBERRI ON !!
Altzatè, 5 • BERA
948 630 083

TABERNA ZAHARRA



Gizon eta emakumeendako
arropa-denda

Gortinak eta
etxerako arropak

**ZATUZ
GABONETAKO
OPARIA
EROSTERA!**



Merkatarien karrika, 11 • DONEZTEBE - T 948 450 007

EGUBERRIETAKO JARDUERAK

Bera eta Doneztebeko merkatarien elkarteek prest dituzte hainbat jarduera haurrentzat opor egun hauetarako

Eguberrietako aste hauek bereziak izaten dira gure herrietan. Eta ez bakarrik opari eta opor garaia delako. Familiak elkartzea, zinemara joatea, Olentzero, Noel eta Errege Magoak ikustera ateratzea, haurrentzat antolatu dituzten jardueretan parte hartzea... Azkeneko urteotan ez da falta izaten denbora librerako eskaintzarik gure herrietan. Horieta batzuk merkatarien elkarteek antolatzen dituzte, zehazki **Berako Larun Haizpe** elkarteak eta **Doneztebarrak** elkarteak. Baztango Bertan Elkarteak, Leitzako Kaxkabeltza Elkarteak eta Lesakako merkataria eta zerbitzu elkartekoek ere antolatu dituzte jardueraren batzuk, baina ez bereziki haurrentzako.

DONEZTEBE: antzerkia eta jokoak zineman

Haurren opor egunak jardueraz betetzen saiatu dira Doneztebarrak elkartekoak. Horrela, bada, Olentzero aitzineko egunerako **antzerki saioa** iragarri dute, arratsaldeko 6etan zinema aretoan. Eta urteko azkeneko astean, 27an, 28an eta 29an, **haurrendako jokoak** izanen dira toki berean arratsaldeko 5etatik 7etara.

SARIAK ETA ZOZKETAK FIDELTASUNA ESKERTZEKO

Bera, Baztan, Doneztebe, Leiza eta L... merkatariek euren kanpainak antolatu

Generalean, eguberrietako kanpaina garrantzitsua izaten da dendentzat nahiz eta, krisia dela eta, merkataritza giroa inoiz baino motelagoa dagoela aitortzen duten.

BERA: 15 erosketa txartel, bakoitza 100 eurokoa

Iaz egindakoaren bide beretik, Larun Haizpe elkarteak dendentan 100 euroko 15 erosketa txartel zozketatuko dira bezeroen artean. Zozketa urtarilaren 7an izanen da.

BAZTAN: fideltasun txartelarekin, 69 sariren zozketa

Fideltasun Txartelen sistema hautatu dute baztandarrek eguberrietako kanpaina dinamizatzeke. Txartelak ilbeltzaren 7an bilduko dituzte eta zozketa 10ean egingen dute. Bertalalde, Bertan elkarteak **2011ko egutegiak** ere banatu dituzte egunotan.



Doneztebeko gaztetxoek olentzeroa, artxiboko argazki batean.

Kantu zaharrak, txistor jatea, tonbola eta irrintzi lehiaketa

Abenduaren 30eko arratsaldean eguberri giroa karriketara pasatuko da. **Kantu tradizio-nalak** abesten ibiliko dira 4:30etik aitzinera Donezteben karrikaz karrika. Ondotik, 6:30 aldera **txistor jatea** izanen da Santa Luzia Plazan, hau ere kantu zaharren animazioarekin. Eta egunari akabera emateko, iluntzeko 7etan **tonbolaren** zozketa eta sari banaketa izanen da eta segidan Zubietako Aierri taldeak animatuta, **irrintzi lehiaketa**.

BERA: puzgarriak, haurrendako tailerrak...

Aurtengoa ez da haurrendako jarduerak antolatzen duen lehenbiziko aldia Berako Larun Haizpe elkartearentzat. Aitzineko urte hauetan ere egin zuten ahalegin bat etxeko tikiak izan zezaten dibertimendurik eguberrietako opor egunetan eta, aurtun ere, prestatuta dute antzekorik. Zehazki, **abenduaren 26tik 30era** puzgarriak eta haurrentzako tailerrak izanen dira Eztegar pilotalekuan nahikoa ordutegi zabalean: goizeko 11etatik eguerdiko 1:30era eta arratsaldeko 3etatik 7etara. Larun Haizpe elkarteak arduradunek jakinarazi dutenez, eguneko sarrerak 3 euro balioko du eta 5 egunetarako paseak 10 euro.

DONEZTEBE: sariz betetako tonbola abenduaren 30ean

Sistema originala hautatu dute Doneztebarrak elkarteek. Izan ere, egunotan elkarteak bazkide diren dendetan boletoak banatuko dituzte bezeroen artean eta, azaroaren 30ean tonbolaren zozketa egingen da. Bapateko premioak (70 baino gehiago), denda bakoitzaren opariak (30 euro ingurukoak) eta balio handiagoko berte hainbat banatuko dira tonbolan. Hori bai, sari guzti-guztiak egunean berean banatuko direla adierazi dute antolatzaileek.

Hortaz, boleto baten jabe den guztiak hobe du Tonbolara joatea, badaezpada.

LESACA: erosketak egiteko 29 orga zozketatuko dituzte

Elkarteak partaide den denda bakoitzak sari bat emanen du erosleen artean: erosketak egiteko orga edo karro tiki bat, produktuz betea. Hortarako, erosketak egi-terakoan boletoak banatuko dira eta, gero, errege eguna pasatuta zozketak egingen dira. Gisa honetara, 29 sari emanen dira aurtun, bazkide diren dendak haina sari.

LEITZA: osotara 1.800 euro banatuko dira erosketak txarteletan

Kaxkabeltzako kide diren 38 bazkideen artean zozketa antolatu dute aurtun. Ilbeltzaren 5ean emanen dira ezagutzera sariak Karrape irratia bitartez: 500, 400 eta 300 euroko erosketak bono bana eta beste 6 gehiago 100 eurokoak.

carniceria harategia
Esarte
ELAZONDO 948 580 128
DONEZTEBE 948 456 152

Mutuberria Alimentacion S.L.
Aliprox
T. 948 456 152
Zazpigerutze, 8 | 31740 DONEZTEBE
mutuberria_alimentacion@hotmail.com

Kotoi

- Gortinak
- Estoreak
- Etxerako ehungintza
- OsagarriaK

eguberri on!!

Bidasoa 14 • 31780 Bera T.F. 948 631 660

Lesakako
atu dituzte

TXALUPA, S.I. ARRANDEGIA

Arrain eta marisko freskoa aste osoan
Enkarguak hartzen ditugu

Zorionak eta urteberri onak



Kanttonberri, 3 behea - BERA
T. 627 443 012 - 948 631 575

Amaia
estetika zentroa

ESTETIKA
Aurpegi eta gorpuzko tratamenduak
Presoterapia
Medikuntzako laserra
Medikuntza
estetikako kontsultak
Makillajea
Manikura eta pedikura
Solarium bertikala

ILE-APAINDEGIA
Ile-tratamenduak
Andregeentzako orrazkera biduak

LURRINDEGIA
Kosmetika eta mekanik
opertsuekiko tratamenduak

OPARIAK
Beltzak, karpinak, botak, espartak...

Tel. 948 450 163 | Ameztia • DONEZTEBE

Hemen gastezue:
948 637 167
www.oninart.com
LESACA

oninart
jantzi boutique

Onluzpe
Astelehena • Ortzil
10:00 - 13:00
16:00 - 20:00

LARUNBATA
GONDAK IREREA

ASTELEHEN
GONDAK IREREA

Regala 2010

Eguberrietako erakutsia
opari bat, OPARUE
Sartzen duzu 100.000eko erakutsia

amarbatuak | BUCYAL | PETA | smosh! | Gite

Photo: jofre S. 51170 LESACA (Bilbao) - 948 637 167 - www.oninart.com

EGUBERRIETAKO AGENDA

Kultur elkarte, ikastetxe eta udalek ere antolatu dituzte hainbat jarduera

Hurrengo asteotako opor egunak ardatz hartuta, udalerri gehienetan bada antolatua zerbait, batez ere haurrendako

Herri guzti-guztietan ez baldin bada, ia gehienetan aterako da Olentzero edo Orantzaro eguberri bezperatan plaza eta karriketara. Gehienetan ikastetxeen arrimuan antolatuko dira, kultur elkarteek ere aritzen dira (Baztandarren Biltzarra, Leitzako Kultur Taldea, Igantziko Biltoki...), eta udalek ere errekurso dezente jartzen dituzte, Lesakako Udalak antolatzen duen lehiaketa, kasurako.

Filma emanaldiak Baztandarren Biltzarren eskutik

Anizen abenduaren 27an, **Lekaroz**en 28an, **Azpilkuetan** 29an eta **Oronozen** 30ean. Hau idazterakoan antolatzailak ez zituzten zehaztuak tituluak eta ordutegiak.

Iruritan, Guraso Elkartearen eskutik, jarduera mor-doa dago antolatua errege bezperaraino: eskulanean erakusketak, ipuin kontalaria, gozogintza tailerrak...

Leitzan Orantzaro berreskuratu nahi dute

Aspaldiko usadioa berpiztu nahian dabil Leitzako Kultur Taldea. www.leitzakultura.net webgunean honen inguruko informazioa ematen da: "Horrelako asko paratzen ziren lehen, duela 50 urte arte, gure herrian. Usadio hori berpizten saiatu beharra dago, berezi-berezia baita, eta badirodi gure inguruan bakarra izandu dela horrelako ohitterarik".

Lesakan Olentzero lehiaketa

Azken urteotako bide beretik, olentzero eta jaiotza lehiaketa egingen da 24an, eguerdian plazan. Adinaren arabera hainbat sari emanen dira. Iaz 23 talde lehiatu ziren, denetara. Ilunabarrean, Olentzero irabazle kalejiran ibiliko da Lesakako Musika Bandak antolatuta.



Leitzan, garai batean, Orantzaren eredueta emakumeak ere lehen-tasuneko papera zuen.

Haur Txokoa Arantzan, Etxalarren eta Igantzin

Lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko jardueren artean, Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatutako jarduerak daude Arantzan, Etxalarren eta Igantzin Eguberrietako oporraldiari begira. Abenduaren 23tik urtarrilaren 7ra egingen dira, goizeko 10:00etatik 13:00etara. Denera 9 saio izanen dira, herri bakoitzean 4 besta egun hartuko baitute: abenduaren 24, 25 eta urtarrilaren 1 eta 6a Arantzan eta Igantzin eta abenduaren 25 eta 31 eta urtarrilaren 1 eta 6a Etxalarren. Arantzan eta Etxalarren eskolan egingen da Haur Txokoa eta Igantzin Ziber-ean.

Izen ematea abenduaren 21a baino lehen 948 635036 telefonora deituz 09:00etatik 12:30era edo ssb@lesaka.net helbidera idatzita.

Herri bakoitzean gehienez 15 haur apuntatzen ahalko dira, eta guttienez 10. Laugarren urtea da Mankomunitateak Haur Txokoa antolatzen duela.



VENTA **PEIO**[®] MERKATARITZA GUNEAK



USAIN GOXOEN TXOKOA
aurkituko duzu

GIORGIO ARMANI | DIOR | CHANEL
THIERRY MUGLER | YVES SAINT LAURENT
D&G | LANCÔME | JEAN PAUL GAULTIER
DKNY | LACOSTE | CAROLINA HERRERA

... eta gainera ARROPETAN
DESIGUAL | LEVI'S | DOCKERS....



www.venta-peio.com

(0034) 902 210 800



KRISI EKONOMIKOAREN ERAGINEZ

Aurten gutiago gastatuko dugula uste dute adituek

Nafarroako Gobernuak ezagutera eman dituen datuen arabera, batez bertze, joan den urtean pertsona bakoitzak 239 euro gastatu genituen opari eta jostailuetan, 193 euro janarietan eta 89 euro loterian. Aurten, ekonomiaren egoerak txarrera egin duela ikusita, kontsumoaren indizea murriztu egingen dela aurreikusten dute adituek.

Opariak, janariak eta loteria dira, hurrenez hurren, gastuaren osagai nagusiak

Kontsumo burugabearekin kasu emateko eskatu du Irache kontsumitzaileen elkarteak

Irache Kontsumitzaileen Elkarteak dioenez, kontsumismo boladak bultzatuta sobera pentsatu gabe kontsumitzeak arazo larriak ekartzen dizkie hainbat eta hainbat familiei. Horregatik, eguberri hauetan ardura gehiagorekin kontsumitzeko honako aholku hauek azpimarratu ditu:

- **Prestatu erosi beharrekoen zerrenda eta zehaztu zenbateraino gastatzen ahal dugun.** Ez erosi behar beharrezkoa dena baino. Horixe da Iracheren ustez neurri-gabeko kontsumotik eskapatzeko modu bakarra. Hortarako nahitaezkoa da pentsatzen jartzea eta beharrezkoak ditugun gauzen zerrenda zehatz-mehatz prestatzea eta, horrekin batera, gutti gora-beherako aurrekontu bat zehaztea.
- **Erreparatu ongi produktuen etiketei.** Etiketei arreta haundiz begiratzeko ohitura nabarmen zabaldu bada ere, urte sasoi honetan bereziki garrantzitsua da ongi-ongi erreparatzea erosten den produktu hori noiz arte kontsumitzen ahal den, zein osagai dituen eta, orohar, baldintza onetan ote dagoen.
- **Kontuz 2x1 eskaintzekin.** Lehen begiratuan 2x1 eskaintzek komenigarriak direla ematen badute ere, batzuetan ez da hala izaten. Hortaz, lehenik kalkulatu banakako prezioa zenbatean ateratzen den edota ezaugarri berdinak dituen eskaintza horretan ez dagoenarekin alderatuz.
- **Tenorez egin erosketak.** Gauza jakina da hainbat produktu garestitu egiten direla abenduaren 24a edo urtarrilaren 6a hurbildu ahala. Eta ez hori bakarrik. Garestitzea gero eta lehenagotik hasten da azken urteotan. Horregatik, kontserbazio arazorik ematen ez duten produktu horiek eta garestitzeko joera dutenak tenorez erostea da hoberena.
- **Izoztu abendu hasieran.** Erositako produktu freskoa baldin bada, erosi merke dagoenean eta sartu izozkailuan. Jada izoztua erosten baldin bada, hotzaren katea hausten ez dugun bitartean janariak ez dute kalitaterik galduko. Hortarako, erosi eta berehala sartu izoztuen poltsatan eta ahal bezain laster izozkailuan. Ez ahaztu, desizoztu diren produktuak ez direla sekulan berriro izoztu behar.





- **Ez ibili presaka.** Denda edo supermerkatua jendez gainezka dagoen orduak txarrenak dira erosketa onak egiteko. Izan ere, presaka dabilenak sobera pentsatu gabe erosteko arrisku gehiago izaten baitu.
- **Konparatu prezioak.** Erabakita duzunean zer den erosi nahi duzuna, komeni da saltoki desberdinetan duen prezioa konparatzea, izan izaten baitira diferentziak batetik bertara.
- **Gorde fakturak.** Eskatu beti erosketaren tiketa eta gorde. Erreklamazioen bat egin beharrean bazeunde, behar beharrezko izanen baituzu faktura edo tiketa aurkeztea.
- **Bermea edo garantia.** Kontsumo gaiek guttienez bi urteko berme edo garantia izaten dute. Horrexegatik, nahitaezkoa da erosketaren erreziboa ongi altxatzea, horrekin justifikatuko baituzu bermea. Produktuak berekin duen berme-agiria ere altxatzea komeni izaten da.
- **Irudimena eta birziklatzea.** Opari bat egin nahi badiozu lagun bati, aunitzan ez da beharrezkoa izaten diru aunitz gastatzea. Batzuetan, bigarren eskuko gauzen saltokietan aurkituko duzu baliagarri izaten ahal zaizun gauza hori nabarmen merkeago.
- **Produktu alternatiboak sukaldarako.** Eguberriak otordu oparoekin ospatzeko garai aproposak izaten dira. Alabaina, horrek ez luke zertan garestitu behar neurri gabe otorduen gastua. Garai hauetan kontsumitu ohi ditugun produktuak –bisiguak, mariskoak, bildotsa– izaten dira gehien garestitzen direnak. Horregatik, pentsatzen jarri eta arruntagoak diren osagaiak erabiliz plater bereziak egitea ez legoke gaizki. Emaizta aski gustagarria izan daiteke eta, dudarik gabe, sakelak eskertuko du.
- **Opari erabilgarriak.** Eguneroko bizitza arruntean erabilgarriak izanen diren opariak dira gomendagarrienak. Hartara, urtean zehar aurreztuko du/dugu.
- **Marka txuriko produktuak.** Ez dugu zertan izen handiko markekin itsutu behar, ez baitira izaten beti kalitate hobeagokoak. Elikagaien sektorean, marka txuriko produktuak antzeko kalitatea izaten dute eta marka ezagunetakoak baino dezente merkeago daude. Estatistiken arabera, gero eta gehiago kontsumitzen dira.
- **Utzi geroxeago erosteko.** Ez da beharrezkoa nahi dugun guztia eguberrietan erostea. Hainbat kasutan, batez ere arropetan, aste gutti batzuk beranduago merkeago erosteko aukera izanen baita.
- **Internetaren aukera.** Balieke bisitatu dituzun saltokietan ez aurkitu izana bilatzen zenuen hori. Holakoetan, interneten begiratzea izaten da hoberena. Gero eta gehiago dira internetez erosten dutenak. Europako bertze hainbat herrialdetan, halere, dezente gehiago dira normalki internet bidez erosten dutenak.

Lulu
38tik 64ra bitarteko neurriak
Hondarribia kalea, 15. Atzeko aldetik
IRUN | Tel. 943 616 165

%20
deskontua

maxibebé

Jalo berrientzako behar duzun guztia
Bezero txartelarekin sekulako abantailak
Eskaintza bereziak

Josta Mendi
Ordutegia:
9:30-13:00 / 16:00-20:00
Larunbatetan:
10:00-13:30 / 16:30-20:00

Artaleku, 3 • IRUN • 943 638 223
Prim, 59 • DONOSTIA • 943 470 244

besta


tout pour la fête

Gabonetako apaingarriak
Jantziak
Petardo, suziriak

... bestarako guztia !

Geltokiko karrika, 13
64700 Hendaia
Tél.: +33 (0)5 59 48 37 58





POSTREAK

Ausartenentzat, hona hemen etxeko errezetak

Normalena dendetan erostea bada ere, badaude zenbait errezeta etxean egindako turroiekin txundituta utziko dituzula familiakoak eta lagunak.

Klasikoena, turroi biguna

Xixona turroi tradizionala egin daiteke, turroi biguna izenez ezagutzen dena. Horretarako, hasi almendrak eta hurrak ehotzen, hauts mehea bihurtu arte. Gero, arrautza-zuringoak elur puntuan jarri eta, prest dituzunean, fruitu lehorrekin nahasten dira. Bien bitartean, eltze batean ezitia eta azukrea jarriko dira su motelean. Irakitan hasten denean, aurreko nahasketa gehituko zaio eta kanelaz hautseztatuko da. Guztia ireragingo zaio zurezko koilara batekin hamar bat minutuz. Sutatik kenduko da eta oreka molde batera isuriko. Giro-tenperaturan hozten utziko zaio eta kontsumitzeko prest egongo da.



Girlatxe turroia. Fruitu lehor txigortuak eta janaria txikitzeko makinan txikituak, faltarik gabe egon behar duten osagaiak dira. Bertze turroibariatate hau egiteko, janaria txikitzeko makina elektriko batean jarriko dira zatitutako fruta antzigtarekin eta eztiarekin. Guztia ongi-ongi nahastu eta moldera botako, aldeztu aurretik laberako plastiko gardenaz forratuta dagoela eta ertzetatik apur bat ateratzen dela. Edukia koilara baten laguntzaz nibelatuko da, sobera utzitako plastikoz estali, beste molde batekin estali eta, gainean, pisua jarriko zaio edukia prentsatzeko. 24-48 orduz posatzen uztea komeniko da. Ondotik, plastikoa kendu eta zerbitzatzeko prest izanen duzu.

Glutenik gabeko gozokien aukera zabalagoa da egunetik egunera

Zeliakoek dieta zorrotza egin behar izaten dute, glutenak hertze meharra kaltetzen baitie. Glutena ogi-irinak, zekaleak, garagarrik, maltak eta oloak duten proteina da. Beraz, arras erabilia izaten da barkillo, mazapan, polboroi edota gozogintzako produktu aunitan.

Zeliakoentzat arazoa da turroien oreka estaltzen duen olata, normalean, ogi-irinez egiten dena. Il-do horretatik, horrelako gozokiak egitera dedikatzen diren zenbait enpresek patata-fekulaz eginko olata erabiltzen dute, glutenik gabekoa. Urte sasoi honetan, supermerkatuetan, glutenik gabeko turroi gogorren eta bigunen, bonboien, almendrazko mantekatuen eta mazapanen aukera zabala aurki daiteke, urte osoan aurki daitezken glutenik gabeko gailatez gain, jakina.



non jantzi zure barnealdea

BIDEAN



IRUÑEA
COMEDIAS 8-10



Olentzeroren opariak **BIDEAN** denda





Merkaopari
www.merkaopari.es

Urtero bezala, berriz eragitsi dira Eguberriak
Beti bezala konfiantzaz eta preziorik onenean. **Zorionak**



e edurne
HAUR ARROPADENDA

Altzaia, 30 • BERA • 948 631 491



ttiipi-ttapa

Eginzazu **TTIPI-TTAPA**ren alde
Proiektu zenbakia: **15.996**

Leure bezainak aukeratu eta proiektu **can**



bixkiak
KIROL ETA MODAKO arropa denda
Arretxeo, 7 B2 • LESAKA • 948 638 110

AUKERA ZABALA
lentzeria eta pijametan
Behoko plaza 10
31770 Lesaka
T. 948 627 514

Designal, bang, world, g, g

Eguberri haetan... **EROSI**
KATTAGORRI eta BIXKIAKen
Urtarrilak 2, igandea, **IREKIA**

kattagorria
lentzeria mertzeria

DIRUA AURREZTEKO AHOLKUA

Ez utzi azkeneko ordurako eguberrietako erosketak

Dagoeneko etxe guztietan hasiak gara arduratzen besta-egun hauetan zer jarri bazkaldu/afaltzeko eta, zer oparitu lagun eta senideei. Zalantzarik gabe, gabonetako erritualaren zurrinbiloan sartuak gaude buru belarri.

Ahal dugun neurrian, erosketak aurreratzea komeni zaigu: lasaiago ibiliko gara dendatan, besta egun bezperetako jendetzarekin kasailan aritu gabe. Eta gainera, prezio hobeak aurkituko ditugu seguruenik.

Hala ere, Eguberrietako lehen produktuekin erne ibili behar dugu. Kontuan izan noiz ontziratut dituzten eta noiz bukatzen zaien kontsumitzeko epea, aunitan salgai jartzen baitira aurreko Gabonetan saltzerik izan ez ziren produktuak. Horrek ez du erran nahi gaizki daudenik, baina, edozein modutan, produktu zaharrak dira.

Kontsumitzaileen Elkarrekin honako aholkua eman dute beti: deus erosi baino lehen, konparatu hainbat saltokitako prezioak. Urteko edozein garaitan kontuan hartu beharreko aholkua da; baina Eguberrietan gehiago oraindik, prezioak izugarri garestitzen baitira.

Erosketak tenorez egitea da hobereena

Abenduko bigarren edo hirugarren astea egun aproposak dira gabonetako erosketak egiteko. Hobe da gabonetako jaki gozoen (arkumea, bisigua, itsaski edo mariskoak eta moluskuak) erosketak tenorez egitea, izoztu eta gero, ez baitute kalitaterik galtzen; gehiegizko prezioa, berriz, bai, galdu egiten dute.

Urtaro honetan, iragarkien presioa izugarria izaten da. Itsu-itsuan ibiliz gero, astakeria ederrak egiten dira. Beraz, erne egon beharra dago. Batez ere, umeengatik.

Ohitura ona da erosi behar ditugun gauzen zerrenda egitea kontsumoaren tentazioan ez erortzeko

Ongi eginez gero eta zerrendatxoari kasu eginez gero, behar ditugun gauzak baino ez ditugu erosiko. Gabonetan, batez beste, 480€ gastatzen ditugu familia bakoitzeko. Ia dena janari eta jostailuak erosten. Kasu egin, hortaz, kontsumismo basati eta zentzugabeari. Bertzenaz, etxeko ekonomia hankaz gora jarriko dugu.

- Konparatu prezioak, markak eta produktuen kalitatea.
- Egin erosketak tenorez.
- Ez kontsumitu neurrik gabe.

Ahal den neurrian, aurreratu erosketak eta konparatu begiz jo duzun produktu horrek saltoki desberdinetan duen prezioa

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA

KATEA-BIKE



**BIZIKLETA SALMENTA
ETA KONPONKETA**

Zorionak eta urte berri on!

CAPELETTI
HOMME

Mendibil merkatala sarrera
20302 IRUN
943 624 672
www.capeletti.com.es



MERCHE
MODA HOMME

Ezkongaiatzat jantziak

Serapio Mujika, 9
20302 IRUN
Tel.: 943 612 626

**ZORIONAK ETA
EGUBERRI ON!!**



the cottle

ZORIONAK!



Kanttonberri, 5 • 31780 BERA • Tel. 948 625 285





HAUR ETA GAZTETXOENDAKO

Euskarazko produktuen katalogoa

Urteko garai honetan seme-alabei edo ingurukoei euskarazko liburuak, musika edota bideoak erosi eta oparitzeko aukera paregabea izaten dela kontuan hartuz, Euskarazko Produktuen Katalogoaren edizio berria osatu dute, beste urte batez —aurtengoa 13. Edizioa da—, Euskal Herriko 105 udal eta mankomunitatetako Euskara Zerbitzuek. Euskal Herriko hainbat lurraldetako teknikariak elkarlanean aritzen dira katalogoa prestatzeko, eta, alde horretatik, garrantzi berezia dauka egitasmoak.

Gurasoentzat eta 16 urte bitarteko ahur eta gazteentzat

Gurasoentzako eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzako ehunka erreferentzia biltzen ditu edizio berri honek.

Merkatuan dauden produktuen artean hautaketa egin da, berritasuna, egokitasuna eta kalitatea kontuan hartuta; eta zortzi ataletan sailkatuta jaso dira: musika, liburuak, aldizkariak, filmak, jostailu eta jokoak, DVD eta informatika produktuak, komikiak eta gurasoentzako produktuak. Gainera, produktu bakoitzaren gutxi gorabeherako prezioa ematen da, eta zenbait ataletan adinaren arabera banaketa egiten da.

Interneten ere erabilgarri

Horretaz gain, www.katalogoa.org webgunean, paperean jasotako produktuez gain, merkaturatutako aurkitu daitezkeen beste asko agertzen dira. Aukera dago, gainera, argitaletxearen denda birtualera iristeko produktuaren gainean klik eginez eta, nahi izatera, begiz jotako produktuaren erosketa etxetik egiteko. Urte osoan zehar bizirik eta eguneratua dagoen gunea da, argitaletxeek berek aukera baitute pro-

duktu berriak sartzeko merkaturatu ahala eta deskatalogatuak gelditu direnak kentzeko. Hartara, Euskarazko Produktuen Katalogoaren webgunea urte osoan kontsulta daiteke, eta irakurleek, beren iruzkinak eta komentarioak egin ahal izango dituzte bertan, irakurri, ikusi, entzun edota jostatzeko hautatu duten produktuaren inguruan.



KRISTON TONBOLA



DONEZTEBARRAK MERKATARI ELKARTEA ZUREKIN BITI
ASOCIACION DE COMERCIANTES

150 OPARI BAINO GEHIAGO
ZOZKETA: ABENDUAK 30, 19:00etan
Sariak Mapfreko erakusleihoan ikusgai, zoaz ikustera!!

*hemen erosi
eta tonbolako
sariak zuretzat*

Antolatzailea:
DNEZTEBARRAK MERKATARI ELKARTEA

MERKATARI ELKARTEKO DENDAK

- Academia de ingles Angie
- Alustiza perfumeria
- Amaia perfumeria
- Amezti bar
- Apezteguia Berria
- Arrate estetika zentroa
- Bar Bixen
- Bar El Café
- Bar titi
- Carniceria Elorza
- Carniceria Saldias
- Casa Lacar
- Casa Taberna
- Centro veterinario Ostiz
- Cocinas Amaia
- Cosas de Casa
- DIA autoservicio
- Estación de servicio Santesteban
- Farmacia Mendia
- Floristeria Belen
- Honorio Taberna
- J.J. Picabea
- Katash joyeria
- Kamamila arropa denda
- Kimetz belardenda
- Kosma arropa denda
- Kukuka haur arropa denda
- Luis Martin harategia
- Mail posta
- Mapfre seguros
- Marash zapatadenda
- Mendaia motor Opel-Suzuki
- Mendi-Txuri
- Miquelena
- Muebles Telletxea
- Olazar aroztegia
- Onddo ta punto
- Pasteleria Julia
- Restaurante Santa Maria
- Seguros Aris
- Talleres San Miguel
- Talleres Santesteban
- Zaldua argazkidenda

EGUBERRIAK 2010

ABENDUAK 23

18:00 Antzerkia zinema aretoan

ABENDUAK 27

17:00-19:00 Haurrendako jokoak zinema aretoan

ABENDUAK 28

17:00-19:00 Haurrendako jokoak zinema aretoan

ABENDUAK 29

17:00-19:00 Haurrendako jokoak zinema aretoan

animatuta!

ABENDUAK 30

16:30etatik aurrera kantu zaharrak Doneztebeko kaleetan

18:30 Txistorrada kantu zaharrekin animatuta

19:00 Tonbolako zozketa eta sari banaketa

19:30 Irrintzi lehiaketa Zubietako Ayerri taldeak animatuta

URTARRILAK 3 de ENERO

17:00-19:00 Haurrendako jokoak zinema aretoan

COLABORADORES | LAUNUTZAILEAK



Ayuntamiento de Santesteban



Ayuntamiento de Santesteban

MAKILLAJE-JOERAK, EGUBERRIETARAKO

Kolore berotsuak hotzari aurpegia emateko

Eguberri hauetako makillajeak badu bere-berea den ezaugarria: laurogeigarren hamarkadako makillajearen eragina.

Arretaz delineatu begien beheko eta gaineko ertzak eta emazioz itzal pixka bat betazalei. Nakare-koloreko itzalek zure begirada bizi-bizi argituko dute eta zure begietara bilduko dute gainerako guztien arreta. Bertzenaz, urre edo zilar kolore xuabea, edo duzun *look*arekin ongi datorren koloreren bat erabil dezakezu. Jakina, bolumena emateko betile-maskara nahitaezkoa da. Eta begirada osatzeko, markatu ongi bekainak eta, hara! begitarte osoa txundigarria geldituko zaizu.

Ezpainetarako kolore gorri klasikoak edo arrosa koloreak ezin egokiagoak dira, xua-beenetatik hasi eta bizi-bizienetara.

Eta, azkenean, masailak makillatzea baino ez zaigu gelditzen. Ezpainen eta begien arteko lotura arrosa edo urre koloreko tonuekin bikain geldituko zaizu.



ARRATE
ESTETIKA ZENTROA

Intzakardi, 7
DONEZTEBE
Telefonoa: 948 450 286

Masaje pertsonalizatuak • Manikura • Pedikura
Gorputzerako tratamenduak • Depilazioak • Makillajeak
Aurpegiarako tratamendu pertsonalizatuak
Produktu-solmentu pertsonalizatuak eta aholkularitza

EGUBERRI ZORIONTSUA PASAI

EGUBERRIETAN IZUGARRIZKO ESKAINTZA
zatoz informazio eske!

OPARIAK PRIESTATZEN DITUGU
(produktuak / opari txikiak...)

ainhoa
estilista

URTE BERRI ON!!!

Bittoria 59
LESAKA
948 637 436



OGI BERRI
ARTESANOS PANADEROS

Parrokia, 19 • DONEZTEBE • 948 450 624

Ogi freskoa egunero eta egun osoan
Goizeko 08:00-21:00.
23 ogi mota ezberdin
Gozotegia: tarta eta pastelak aukeran
ENKARGUAK HARTZEN DIRA

SANDWICH-ak:

- Bikini (Tiki undaxipikoa, gasta eta motako ogi)
- Runtikoa (Tiki undaxipikoa edo bodega undaxipikoa, gasta eta hogaza ogi)
- Begitarte (Ogi berdinak, Makilko ogianekin edo hogaza ogianekin)

"Gure obradorean egindako turroi artesanoak aurkitu daitezke neurri ezberdinetan: ohiko tabletak eta degustazio tamainan ere, zatitxo txikietan era guztietako turroiak dastatzeko, betegarri izan gabe."

Pinpirin
PELLUQUERIA • ULEA PAINDUEGIA

Aitziber
Ubiria Santesteban

EGUBERRI ON!!!

Plaza zaharra 26
31770 LESAKA
Tfnos: 948 63 80 37

* Argazkia: Lameriñas



dagoeneko
951
LAGUNEK
egin dute
gure alde

eskerrik asko!



TTIPI-TTAPAK
zure laguntza behar du
proiektu zenbakia

15.996

x. geure bezeroek x+
aukeratutako can
x+ proiektua



Zure laguntza
eskertzeko,
poltsa eder hau
duzu opari!

**ESKA EZAZU HURBILEN
DUZUN NAFARROAKO
KUTXAKO BULEGOAN**
abenduaren 30a baino lehen



**DESKONTUAK
ZOKKETAK
ALDIZKARIA
MUSUTRUK**

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

GABONETAKO TTIPI SASKIA

SASKIAK DUENA:

Txapela Buruan ta ibili munduan 2 kamiseta, Añite Porras liburu (Ikastolen Elkartea),
Hada baten heziketa liburu (Ereir), Etorikun anikutsua liburu (Ikastola),
Off-On liburu (Ereir), Ortodaximen apirik liburu (Igola), Kukuruku!
Zer diozu CD-a (Pirix, Porrota eta Marimolots), Notakoa, koto? (Ikastola)
Gauaren Sakonean liburu (Ereir), Animalen familiak liburu (Txartela),
Molly Moonen mundua geldiarazten du (Ereir), Auzpegiak gabeko
hitzaleak liburu (Ereir), Pitiñ Otzara (Ikastolen Elkartea),
Daniela dama ederra liburu (Ikastola), Zer gara gu Nor
gara gu maha jolas (Elkar), eta Kamiseta bat
(Pirix, Porrota eta Marimolots)

ttipi-ttapa

531 ALEKO IRABAZLEAK

* ONDDO TA PUNTO KAMISETA

Ana ALMANDOZ | URDAZUBI

* ONIN ART JERTSEA

Izaskun ALTXU | ITUREN

* IKASTOLEN ELKARTEA 4 LIBURU

Jon SANTSINENA | ETXALAR

* HERIOTZARAKO JANTZITA LIBURUA

Adela ARLEGI | BERA

* RUPER ORDORIKA CD

Joseba URROTZ | URROZ

* IBAIZABAL 3 LIBURU


Ageda GOIENETXE | ETXALAR

ZORIONAK

* Hilebete bateko epaie sariak bitzeko



DESKONTUAK



GOIZUETA

KULTURA → KONZERTUA LARUNBATEAN

Umore Ona Koruaren Eguberrietako emanaldia hilaren 18an egingen da

Zuzendari berriarekin egingen den lehen saioa izanen da

Esteban AROTZENA

Urte osoko egunik haundienaren atarian da dagoeneko Umore Ona Korua, hurrengo larunbatean, hilaren 18an, burutuko baita abesbatzarentzat kuttunena den kontzertua, Eguberrietakoa, alegia.

13 abesti eskainiko ditu Umore Onak ilunabarreko 8etatik aurrera Elizan ospatuko den emanaldian, bost berriak –*Good News, An Irish Blessing, Tournion, Maitia Nun Zira eta Maritxu Nora Zoaz*– eta besteak lehen plazartuak: *A tu lado, Txoriak Txori, Haurtxoa Seas-*

kan, Hator Hator, Kantuz, Olentzero eta Goizian Argi Hastian, hain zuzen. Helduak hasi aurretik eta dagoeneko ohikoa bihurtu den bezala, gaztetxoek taldeak hiruzpalau kantuz osatutako emanaldia eskainiko du.

ZUZENDARI BERRIA

Jakina den bezala, bere ibilbidearen lehen hiru urteak Igaratza Apeztearearen gidaritzapean egin ondoren, Nuria Colomerren esku dago abesbatza lehengo otsailaz geroztik. Abeslari eta musikari kataluniarrek zuzendutako lehen kontzertua izanen da, beraz, Umore Ona kontzertat hurrengo larunbatekoa. Abeslari guztiak bilduko dituen afariak emanen dio bukaera urteroko kantu festa honi.



Baialtzinikin...

Nafarroako Kutxak ireki duen bulego berrian Internetarako konexioa dagoela doan edozein herritarren esku?

HAUTSAK KENTZEN...

Pili Untxalok udal artxiboetatik jasotako berri zaharren arabera, 1687 urtearen aurretik eskola bazen gurean. Juan Domingo de Alduncin maixuari urte horretako urrian bukatzen zitzaion kontratua, eta luzapena eskatu zuen. Ba, horixe egin zuten alkateak, zinpekoek (*jurado*) eta beste zeinbait herritarrek osatzen zuen juntak: beste lau urtetarako luzatu.



ARGAZKIAK: Z. LUJANBIO ZABALA

Herria lur jota festarik haundienaren biharamunean

Antolatzaile eta herritar guziei Feriaren arrakastak sortu zien poza atsekabe bihurtu zen Xabi igantziar gazteari bizia kendu zion istripuaren berria zabaldu bezain laster. Dena den, esan beharrekoa da, paregabea suertatu zela eguna gainerako zentzu guztietan. Herriko pilota plazak gainezka bete ziren: bat artisau eta salmenta postuz, bestea aziendaz eta hirugarrena bazkaltiarrez. Horrez gain, urtean zehar parekorik ez duen festa giroa nagusitu zen herriko kale eta tabernetan.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Pilotaren Ibilbidea

Profesional mailako pilotari txapeldun haundien herrietan plakak paratu ditu Nafarroako Gobernuak. Argazkiko hau Aimar Olaizolaren omenez Lubineko frontoiko sarrera nagusiko paretean dago.

EZKONTZARAKO ESKAINTZA BEREZIA

Andregaiaren erramua +
elizako loreak +
detaileak eginez gero
KOTXEKO LOREAK OPARI

NARBARTE
T. 948 59 22 00

Serpentina kanpokoak badiatzen

Marrazteko detaileak, Marrokan elizara eta kargomarturua eramateri ditugu. Kanpokoak eta berriak: lantzenak, zaharzak, patata salgai, kargomarturak, lantzenak, aukera zabala...

ALDIZKARIA

Kalean da herritarren artean osatutako Miaxiria aldizkaria

Garai bateko eta oraingo kontuak biltzen ditu

Maider eta Kontxi

Honezkero jasoko zenuten Miaxiria aldizkari dotorea etxean. Herritar askoren artean exari-exarian sortutako lanaz etxeko patxadan gozatzeko aukera izango duzue, beraz. Garai bateko kontuak, denbora-pasak, herritar berrien pasarteak eta gure inguruetan egiteko ibilaldiak aurkituko dituzue bertan, besteak beste.

Olentzeroren bisita etxeetan

Urteroko ohiturari jarraituz, etxez etxe ibi-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Aranoko garai bateko kontuak eta gaur egungoak ageri dira Miaxiria aldizkarian.

liko dira herriko txikiak beraien gurasoen laguntzarekin. Goizean herrian barna ibiliko dira haurrak, gurasoak eta Olentzero buruhandia ere bai eta horretarako hitzordua 09:00etan egin dute,

Suro auzoan. Goiz osoa kantuz alaitu ostean, geratzen zen gose apurra Kontsejun aseko dute, han izanen baitute jan eta edatekoa.

laz bildutako diruarekin udaletxeko gan-

bara, jostailuz eta materialez osatu ahal izan zuten. Aurtengo honetan ere, iritsiko da dirua San Martin bezalako jairen bat ospatu eta berriro ere haurrentzat eskuera kutsia egiteko.

LANA

%2,15 igo da langabezia eskualdean azaroan

TTIPI-TTAPA

Uda denboraldi kaxkarra izan zen lan arloan eskualdean, ekainetik irailera 121 langabe gehiagok eman baitzuten izena Doneztebeko Enplegu Bulegoan. Urrian joera horri buelta eman zitzaion, baina azaroan ere lehengo bidera bueltatu da, 24 langabe gehiagorekin bukatu baita hilabetea eta 1.140 lagun daude lanik gabe. Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez 380 kontratu egin ziren azaroan, horietatik 66 mugabeak. Zerbitzu arloan izan da azaroan langabeen igoerarik handiena, 637tik 660ra. Eraikuntzan ere 143tik 147ra igo da eta industrian, aldiz, 250etik 247ra jaitsi da.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

**OPARI
PRAKTIKOAK
ZORIONAK!**

Maite

Iñaki

Carlos

Ana

Maria

LEITZA

GIZARTEA → GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEAREN EKIMENEZ

Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean laguntza gida kaleratu da

Arazo honekin hartu beharreko bideak zehaztu dira

TTIPI-TTAPA

«Tratu txarrak jasaten dituzula uste duzu? Zuregatik eta/edo zure seme-alabengatik gaizki sentitzen zara?». Galdera horiei erantzuteko, eta «gertatzen ari dena begiratzea edozein aldaketa hasteko lehen pausoa dela» iritzita, emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean, laguntzeko eskuorria kaleratu du Leitzza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak. Jendea kontzientziatu eta arazoaren aurrean hartu behar diren bideak argitu nahi izan dituzte.

Laguntza behar izanez gero, Mankomunitatera dei daiteke (948 510840), eta han, harerra, informazioa eta orientazioa, laguntza psikosozial pertsonala eta beste zerbitzuekin koordinazioa eskainiko dira.

Hilerria

haunditzeari buruz

2011n hilerria zabaldu behar dela-eta, Udalak zenbat nitxo/kolunbario partikular eraiki nahi diren jakiteko zerrendak zabaldu ditu. Abenduaren 31 arte egonen

da zabalik eta baldintzak, prezioak, jabetza epeak eta bestelakoak galdetzeko udal idazkaritzara hurbildu behar da.

Orantzaroa berritua

Aurtengo Orantzaroaren eguna berezia izanen da. Berezia edo aurreko urteekin alderatuz, behintzat, desberdina. Izan ere, deialdi berezia egin da, garai batean herrian izaten ziren Orantzaroaren

ereduak berreskuratze-ko. Egin berri den ikerketa baten arabera, garai batean Leitzan Orantzaroaren bi eredu zeuden: oraindik mantentzen den gizonarena eta aspaldian galdua den emakumearena. Ba, aurtengo, kaleratu Orantzaroaren bi irudiak ikusteko ahalegina egiteko eskatu da, eta aldi berean, Orantzaroaren izena berreskuratze-ko ere bai, urteetan Olen-

tzero esanez ordezkaturia izan baita.

Hilaren 24an, 12:00-etan, haurrak eskolatik abiatu eta bazkal ordura arte herrian ibiliko dira bazterrak alaitzen. 18:30 aldera Orantzaroa jaitsiko da menditik eta bere itzulia egindakoan, plaza-ira joanen da –eguraldi txarrarekin frontoira-. Eta gero, Orantzaroa eta Maimurren ikuskizuna izanen da.



ARGAZKIA: GIZARTE ZERBITZUAK

Ekuatoriar gizonezkoekin alkoholaren kontsumoaz solasean

Mushuk ñankunata izeneko –kichwa hizkuntzan bide egokia edo zuzena esan nahi du– formakuntza tailerra egin dute berriki Gizarte Zerbitzuek ekuatoriar gizonezkoekin. Gai jakinen inguruan hausnartzeko eta lantzeko beharra zegoelako abiatu zuten ekimena Gizarte Zerbitzuetatik, zehazki, alkoholaren kontsumoak eragindako kaltearen garrantzia lantzeko. Ekuatoriar gizonezkoekin bitartekari lana egiteko pertsona bat bilatu zuten lehenbizi, galdetegi bat eginez, eta Segundo Cepeda aukeratu zuten. Azaroaren 9an egin zuten aurkezpena eta horren ondotik, beste lau saio antolatuz zituzten, Teresa Martinez prebentzio eta Maite Perurena gizarteratze programetako teknikariek. ‘Erregularizazioa, isunen ondorioak, lege informazioa eta gaia nola bizi duten’, ‘alkohola eta bere eraginak alkoholemietan. Mitoak eta ideia faltsuak. Edariaren graduazioak’, ‘aisialdirako aukerak’ eta ‘ohitura osasuntsuak bultzatzeaz’ aritu dira. Astearte honetako azken saioan, diplomak eta gutxieneko asistentzia maila eman dutenei alkoholimetro bat banatzekoak ziren.

FLASH

Ginekologia zerbitzua eskatzeko sinadura bilketa

Behar bezalako ginekologia zerbitzua eskatzuz, Leitzza, Goizueta, Areso eta Aranoko Udalek sinadura bilketa abiatu dute. Sinadurak udal-erakunde eta Osasun Etxeetan egin daitezke abenduaren 31 baino lehen. Epea pasatuta, Osasun kontseilariaren aurrean aurkeztuko dira.

Atekabeltz

Atekabeltz eraikina kudeatzeko proposamenak urtarilaren 15a arte aurkeztu ahal dira. Baldintza pleguak udal idazkaritzan eskatu behar dira eta elkarte-taldeek beraien proposamenak aurkezteko aukera izanen dute.

Mendibil Taldearen urteko batzarra

Urteko asanblada egingen du Mendibil Mendi Taldeak abenduaren 23an, 19:30ean Aurrea elkartearen. Eta abenduaren 21ean (19:00-20:00) eta 23an (18:00-19:30) 2011ko federatze txartela egiteko papaleoa egingen da hau ere, Aurrera elkartearen.

Mus Txapelketa

Larunbatean jokatu da Euskal Herriko Mus Txapelketaren Leitzako kanporaketaren finala Torrean (17:00). Txapeldunek txapel baina, axuri bat eta bi botila sagardo hartuko dituzte; bigarrenak lau txuleta eta bi botila sagardo; hirugarrenak bi oilasko eta bi botila sagardo eta laugarrenak bi gazta eta bi botila sagardo. Sarituek herrialde mailako kanporaketarako txartela lortuko dute eta agian, Euskal Herrikoako ere bai.

Aritzela
DEKORAZIO
TAILERRA

- Kortxoak • Telak • Kortxoak inguruko jendea gutxiak
- Ohe eta etxeak janzteak • Euskarri janzteak • Inbentarioak

T: 948 61 00 11 • 635 71 39 92
Larrea Industrialdia, Suelze 3 LEITZA (Nafarroa)

gaztelu sol
iturgintza

kalefakzioa • saneamendua • gasa

Tfnoa: 948 510 086 • 948 510 156
Faxa: 948 610 856
LEITZA

AZPIEGITURAK → OBRAK UDALETXEAN

Alkatearen bulegoa jarriko da udaletxeko lehenengo solairuan

Komunak egokitu eta igogailua ere instalatuko dira

Juana Mari SAIZAR

Herriko Etxea mol-datzeko obrak Gorritz enpresari eman zaizkio. Egin beharreko lanen artean, hauek aipa daitezke: lehenengo solairuan alkatearen bulegoa jarriko da lehen aldiz, oraindik ez baitzeukan. Horrez gain, komunak ezinduentzat egokituko dira eta igogailua ere jarriko da goiko solairuraino.

Energia aurrezteko aldaketak argiterian

Aurrezpen plan energetikoa dela eta, argiteria publikoan fluxu-erreduttore elektrikoa jarriko da.

Udalaren laguntza Egoberriei begira

Gabonak tarteko, Udalak dirulaguntza eman-

go du Guraso Elkartek plazan jarriko dituen irudi berrientzat.

Olentzero eskolan eta kalean

Inguruko ikastetxe gehienetan bezala, Aresokoan ere, eskolako neska-mutikoak izanen

dira Olentzerori ongi-etorria egingo dieten lehenak.

Urtero bezala, Gabonetako oporrak hartu aurretik, abenduaren 22an eskolako haurrek abestiak kantatu eta antzerkiak egingo dituzte. Baina horrekin batera, aurtun, berrikuntza gi-

sa, Olentzero handi bat ere egin dute eskolan eta berarekin batera, herrian barna ibiliko dira kalejiran ikasle, irakasle eta gurasoak, trikitilarien laguntzarekin. Ondoren, Guraso Elkar-teak gonbidatuta, benetako Olentzero etorriko da eta psikomo-

trizitate gelan egingen zaio harrera, bertsoak kantatuz. Guztia amaitzeko denek batera ha-maiketako eder bat egingen dute.

Okerrak zuzentzen

Azken momentuko lanak presaz egindakoak izaten direnez, hainbat akats egin genituen aurreko alean. Alde batetik, eskolaren izen berria Aresoko Nazabal Eskola izango da. Izen hau Guraso Elkartean eta Eskolako Kontseiluak onartu dute. Orain akta batean Udalak onartu behar du, eta gero foru agindu bat aterako da. Horren ondoren, boletinean argitaratuko da eta azkenik, Hezkuntza kontseilariak baiezkoa emango duela pentsatzen dugu, baina erantzuna ezezkoa ere izan daiteke. Hurrengoan berriak gehiago kontrastatzen saiatuko gara.

Bestalde, Estitxuri abizena aldatu genion, eta ez da Marzol, Estitxu Azpiroz baizik. Barkatu eragozpenak.



ARGAZKIAK: IGONE GOIKOETXEA

Euskararen Eguna

Abenduaren 3ko Euskararen Egunean, elurra izan zen gonbidatuetako bat. Elurra zela-eta, Jakoba Errekondoren hitzaldia bertan behera gelditu zen, baina gainerakoan, UEMAren eskutik antzerkia izan zen umeentzat. Hotzari aurre egiteko taloak eta pintxoak egon ziren trinketean eta nahikoa jan eta edanda dantza saioa ere egin zen.

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontrabutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea

- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LEZAKA: Biltzila, 71-behea • Tel: 948 637 050 • Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 • Tel: 948 133 328 • Faxa: 948 133 713

behetik
Eskalerak igotzea... ez da azfapal
plataformak
igogailu bereziak
aulki bereziak...

Afarga-toki, 14 • T. 943 368 781 • 671 073 888
www.bebetik.com

BAZTAN

BATZAR NAGUSIAK → BI URTEREN ONDOTIK

Igande honetan egingen dira herrietako alkateak izendatzeko hauteskundeak

Ordenantza berriak onartzeko prozedurak aitzinera darrai

TTIPI-TTAPA

Ordenantzen arabera, bi urtetik behin, abenduko hirugarren igandean egin behar dira herrietako alkateak izendatzeko bozketak. Eta aurten horrela tokatzen denez, halaxe egingen da igande honetan, abenduak 19, 15 herrietan.

Lau urteren ondotik, Baztangoiza, Elizondo, Erberia eta Basaburuko batzarkide berriak ere laster aukeratu dira.

ORDENANTZA BERRIAK

2008an abiatu zen Ordenantza, Zerga eta Paramentuak berritzeko prozesua. Horretarako batzordea ere eratu zen: Virginia Aleman alkateak, NaBaiko zinegotzi batek eta UPNko bik, Elizondo, Irurita, Almandoz eta Arizkongo alkateek herrietako alkateen izenean, Baztangoizako batzarkideak bertze guzti- en izenean, basozainak eta Prospektiker-Inguru- neko aholkularitzak osatu zuten.

Aipatu batzordeak 2009ko urrian onartu zuen Ordenantzen hasierako zirriborroa eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta alegazioak aurkezteko epearen ondotik, araudi berriari egin zaizkion alegazioak aztertze-ko lana akitu berri du batzorde-

ak. Azaroaren 30ean al- daketen berri eman zien Batzar Nagusiko kideei eta behin betiko onar- tzea gelditzen da orain, urtarrian egingen dena.

Bereziki aspaldiko araudia eguneratzeko abiatu zen duela bi urte prozesua, baina horrez gain, izan ditu bertze hel- buru batzuk ere: «Batzar Nagusiaren papera in- dardu eta honen egite- koak zehaztu, herritarrei erabilera komunalei bu- ruzko beharretan eran- tzun eraginkorragoa eman, Batzarreen fun- tzionamendua erregula- tu eta hobetu, Auzola- nen garrantzia azpima- rratu, herritarren parte- hartzea bultzatu...».

Zehaztu diren ataleta- ko batzuk hauek dira: he- rrietako alkateen izenda- penak eta eskumenak, Batzarreak, Auzolanak, kontribuzioak, Batzar Nagusien eraketa eta batzarkideen izendape- na, herri ondasunak, la- rreak, herri lurretan lan- daketak egitea, herri lu- rretan eraikuntzak egi- tea, ehiza eta onddo eta perretxikoen bilketa, ki- rol eta aisialdiko jardue- rak, ura, suteak, mendi- ko bide eta pistak, herri lurren permutak, arau- hausteen zigorrak...

Aldiz, badira adosta- sun ezaren ondorioz, Or- denantzetatik kanpo gel- ditu diren zenbait puntu: Batzar Nagusietako pre- sidentea alkatea ez ber- tze norbait izateko pro- posamena (presidentea alkatea izatearen alde 14 boto, 10 kontra), giza- eskubide, emakume

HELBURUAK

Aspaldi ukitu gabeko araudia eguneratzea izan da Ordenantzak berritzearen helburu nagusia.

DATUA

138

ARTIKULU
eta 23 kapitulu dituzte
Ordenantzak.

edota herrien adierazpe- nak, eta euskara, hez- kuntza, osasuna eta gi- zarte-ekonomiaren sus- tapenaren nazioarteko eskubideak. Bi kasuo- tan, proposamenak Or- denantzetan sartzearen aurka agertu dira Batzar Nagusietako kide gehie- nak: lehenengoan kon- tra 15 eta alde 9 eta biga- rrenean 14 kontra eta 10 alde. Udal aurrekontuak eta plan orokorrak Ba- tzar Nagusietan onar- zeko proposamenak ere kanpoan gelditu dira.

EZKER ABERTZALEAREN OHARRA

Ezker Abertzaleak oharbidez jakinarazi duenez, egin direnak baino «Ordenantza osoagoak behar ditu Baztanek. Egi- turaren oinarria herrieta- ko batzarra behar du izan, elkarbizitzara eta beha- rrei aitzin egiteko alor guz- tiak bildu, eta horretara- ko behar diren eskume- nak artikulatu». Gainera- tu duenez, NaBai eta UPNek «ongi mugatuta zuten Ordenantzak no- raino ailega daitezkeen.

BAZTANGO BATZAR NAGUSIAK

Herrietako alkateak bi urterako izendatzen dira eta batzarkideak, berriz, lau urtetarako. Hauek dira 15 herrietan azken bi urteotan alka- te eta lau urteotan batzarkide izan direnak:

BAZTANGOIZA

Batzarkidea	Juan Luis Karrikaburu (Erratzu)
Amaiur	Julian Rekalde
Azpilkueta	Jon Alkasena
Erratzu	Juan Jose Bidart
Arizkun	Juan Kruz Iriarte

ELIZONDO

Batzarkidea	Peio Oskariz (Lekaroz)
Elbete	-
Elizondo	Xabi Torres
Lekaroz	Jabier Elizalde

ERBERIA

Batzarkidea	Peio Berho (Oronoz)
Irurita	Pello Obregozo
Arraioz	Sotero Etxandi
Oronoz-Mugairi	Bittor Elizagoien
Gartzain	Jose Luis Elizegi

BASABURUA

Batzarkidea	Andoni Barrenetxe (Berroeta)
Ziga	Pablo Zenoz
Aniz	Asier Maritorea
Berroeta	Arantxa Zelaia
Almandoz	Luis Roldan

Nafarroako Tokiko Admin- nistrazio legeak ematen dien eskumenak ez di- tuzte Juntakideekin kon- partitu nahi. Horregatik jartzen dizkiete mugak Ordenantzei». Alegazio- ak aztertze-ko batzor- detik kanpo utzi izana ere leporatu dio NaBairi. Eta alegazioei buruz zera

erran du: «Ordenantzen azken zirriborroa nola gel- ditu den ikusita, alega- zio guztiak aztertu dire- la baieztatu daiteke, baina Udalaren zeregina zalan- tzan jartzen ez dituzte- nak onartu dira bakarrik. 264 alegazio aurkeztu di- ra; horietatik 192 onartu dira eta 92 baztertu.



EGUBERRIAK → OSPAKIZUNAK HERRIZ HERRI

Eguberrietako oporren atarian Olentzeroren bisita hartuko dute herrietako eskolek

Abenduaren
22an karrikaz
karrika ibiliko
dira

TTIPI-TTAPA

Badatoz Eguberriak, eta horrekin batera, Olentzero ere laster izanen dugu herriz-herri eta etxez-etxe bisitan.

Amaiurko eskolan, adibidez, abenduaren 22an egingen dute Olentzero. 11:00 aldera herriaritzulia emanen diote txistulariekin eta animatzen diren herriar guztiekin.

Erratzun ere, Eguberrietako oporrak hartuko dituzten azken egunean, abenduaren 22an, 12:00 inguruan elkartu eta txistularien lagun-tzarekin eta Olentzero soinean karriketan barrena ibiliko dira ikasle, irakasle eta gurasoak, etxe batzutan *ttautte* hartuz eta kantatuz. Itzuliaren ondotik, 13:30ean Kastonean bazkalduko dute eta arratsaldean Elkartean ikuskizuna izanen dute.

Egun berean, hilak 22, **Arizkun**en eskolako haur, irakasle eta gurasoak karrikaz-karrika



ARGAZKIA: AMAIUR ETA ERRATZUKO ESKOLAK

Amaiur eta Erratzuko eskoletako neska-mutikoak Olentzerorekin.

ibiliko dira, kantuan eta puxkak bilduz. Eta eskolatik jakinarazi digutenez, herrian ez ezik, auzoren bat ere egingen dute. Ondotik, gurasoen aitzinean aurretik prestatutako saio bat egiten dute haurrek. Aurten Kantutegi Zaharrari buruzko informazioa eman eta kantu batzuk ere abestuko omen dituzte eta akitzeko Guraso Elkartea Herriko Elkartean denentzat luntxa eskainiko du.

Arraiozen ere, egun berean, eskolan egingen dako Olentzeroarekin, herrian zehar ibilaldia egingen da, herria alai-

tuaz kanta eta musika soinuekin.

Eskolako bisitez gaiten, Olentzero herriz herri ibiliko da abenduaren 24an.

'Ni Bidasoa' dokumentala

Berriki estrenatu den *Ni Bidasoa* izeneko dokumentala ikusteko aukera izanen da ortziral honetan Arizkunenean. Ganbarako areto tiki-an. 19:00etan hasiko da. Dokumentala ibaia-ri buruzkoa da, «ibaia-ren iraganera, orainera eta etorkizunera hurbiltzen da» eta hainbat

elkarrizketarekin osatu dute. Honela aurkeztu dute: «50 milioi urte ditut eta atzo, orain dela 50.000 urte, zuen arbasoak iritsi ziren lurralde hauetara. Hasieran pentsatu nuen Ama-Lurrak hautatu espezie zinetela... Baina zer gertatu zaizue hon-darreko 100 urteotan?».

Truke merkatua Gaztetxean

Larunbat honetan, abenduak 18, truke merkatua egingen da Elizondoko Gaztetxean. 10:00etan hasi eta 14:00etara egingen da.

aroztegia 1890az geroztik



Arotxa

GARAJEKO ATE SEKZIONALAK



Miguel Azcárraga (Irurita)
T. 948 581 418 | 650 532 073
arotxa.taller@gmail.com



ARGAZKIA: LEGARRA

Amaiurrek irabazi ditu Nafarroako txapelketa guziak

Amaiurko sokatira taldeak Nafarroako txapel guziak irabazi ditu aurten, bai gizasemeen bai emakumeen artean ere. Azaroaren 27an jokatu zen azken jardunaldia Zugarramurdin. 375 kiloz beheitiko kategorian seinaka aritu diren emakumeendako hirugarren eta hondar jardunaldia zen eta Amaiurko taldeak ez zuen ezusterako tarterik utzi. Aitzineko bi saioetan bezala, tiraldi guziak bereganatu zituzten. Emakumeek bezalaxe, gizasemeek ere 590 kiloko txapela jantzi zuten. Zortzinaka, 590 kiloko bigarren eta azken jardunaldia zuten eta oraingoan ere tiraldi guziak irabazi zituzten. Beraz, Amaiurrek 590 eta 630 kiloz beheitiko txapelak jantzi ditu gizasemeetan.

BAZTAN

GIZARTEA → AROZTEGIA JAUREGIKO EGITASMOA

Udal Planaren aldaketa onartzen duen erabakia deuseztatzeko eskatu dute

Plataformak
gorako
errekurtsoa
aurkeztu du

TTIPI-TTAPA

Aroztegia eta gero zer? plataformak gorako errekurtsoa jarri du Aroztegia Jauregia alderdian, Nafarroako Gobernua Udal Planaren aldaketa puntualari emandako behin betiko onespina dela eta. Irailaren 13an eman zion Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Sailak behin betiko onarpena Palacio de

Aroztegia S.L.k sustatuko espedienteari.

SUTEA


Errekurtsoa aurkeztetakoan aipatu diren irregulartasunaren artean, sutearen afera dago. Izan ere, plataformak dioenez, 2005eko martxoaren 23an Aroztegia parajea sutea izan zen, eta legeaz, sutea egon den tokian ezin da 30 urtez lurra birkalifikatu». Legearen kontra, Udal Planaren aldaketa onartzen duen erabakia «deustatzeko» eskatu dio Aroztegia eta gero zer? taldeak Gobernuari.



ARGAZKIA: RAKEL GONÍ

Osasunazaleen bazkaria

Urtero bezala abenduaren 3an, Baztango Gorriek Osasunako peñako zaleen bazkaria izan zen Elizondoko Galarza jatetxean. Karrikan elurra mara-mara ari bazuen ere, jatetxe barnean giroa arras ona izan zen.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Begoña Durrutiren lanekin liburutegia apaindua

Begoña Durruti Arizkungo margolaria izan da liburutegi berriko kristalak apaintzeaz arduratu dena. Udalaren helburua irakurleari «intimitatea eta lasaitasuna» ematea izan da. Durrutik adierazi duenez, marrazkietako «pertsonaia batzuk betiko heldu, haur eta gazteen literaturatik hartu ditut, eta bertze batzuk, berriz, euskal tradizioko ipuinetatik».

ferreteria
Quevedo

TXERRI HILTZEAN
ERABILTZEKO TRESNAK



Santiago 31 · ELIZONDO · Tfnoa: 948 580 234 · Faxe: 948 581 210

MENDIA → BAZTANGO MENDIGOIZALEAK

Aurtengo azken pausoak egiten ari direnean 2011ko ateraldiak zehaztu dituzte mendizaleek

Igande honetan Legatera joanen dira eta 26an Auzara

TTIPI-TTAPA

Baztango Mendigoizaleak urteko azken ateraldiak egiten ari dira. Zehazki, bi gelditzen zaizkie urtea akitzeko: igande honetan **Legatera** eta abenduaren 26an **Auzara** egingen dituztenak.

80. hamarkada hasieran taldea sortu zenetik mendi tontor andana zapaldu dute, baina badira behin baino gehiagotan errepikatutako ateraldi batzuk ere. Horietako bat da, hain zuzen, Elizondo eta Auritz lotzen dituen. Azaroaren 14an egin zuten artea, Urepel eta Alduden baina.

2011KO IRTEERAK

Urte berriko ateraldiak ere zehaztuak dituzte. Hurbilen dauden hitzorduek aipatze aldera, hauek izanen dira ilbeltzekoak: hilaren 2an, Elizondo-Bailei-Urballo-**Harrikulunka**-Belaun-Bearzun-Elizondo ateraldia egingen da, 08:00etan abiatuta. Hilaren 9an, Lekaroz-Olaberri-Beltzuri-Etxebertzeko borda-Eskisaroi-Atxuela-**Unboto**-Bagordi-Lekaroz bidea egingen dute (08:00etan). Ilbeltzaren 16rako Berroeta-Barazelai-**Gartzaga**-Saioako erreka-Berroeta bidea aukeratu dute (08:00). Hilaren 23an Lizarmeaka-Otsondo-lketzatea-**Urdazubi**-In-daburua-Iriarte-Altzola-Lizarmeaka (08:00) egingen dute. Ilbeltzaren 30ean **Beintza-Labainera** joanen dira (08:00).



ARGAZKIA: DIARIO DE NAVARRA


Azaroaren 14an Elizondo eta Auritz lotzen dituen bidea egin zuten mendigoizaleek.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herriaren alde egindako lana eskertuz

Bestak antolatzen emandako laguntza eskertuz, Elizondoko herriak bazkari batera gonbidatu zituen abenduaren 4an Antxitonea trinketea. Bat edo berte faltako ziren, eta alde horretatik, barkamena eskatu diete gonbidatu gabe gelditu zirenei, baina gehienak han izan ziren: 80 pertsona inguru bildu ziren salda, piperrada, bildotsa (txilindron eta errea) eta euskal pastela jateko. Ondotik fanfaremifa fanfarearekin eta herriko bi bertsolari gazterekin poteoa egin zen ostatuetan barna. Elizondoko herriak eskerrak eman nahi dizkie herriaren alde lan egiten duten guztiei!



ARGAZKIAK: ARANTXA ZELAI

San Martinak Berroetan

Urtero bezala, San Martin egunean emakumeen afaria izan zen Berroetan. Dozena bat emakume bildu ziren afaltzera eta gustora aski pasatu zuten. Bertetik, ondoko larunbatean, herri afaria izan zen eta 40 lagun inguru bildu ziren ohitura bihurtu den txuleta jateko.



ANTXITONEA
Trinketea

24 logela bainuarekin - Apartakalea
Alojatu gurea gure gurekin - Hain trinketea eta TI
Gela berria sukaldar eta hostalariarekin

Bradilo Iriarte 16, Elizondo • 948 581 807 • 948 581 853
hostal@antxitonea.com • www.antxitonea.com

BAZTAN

BERTSOLARITZA → NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEAK ANTOLATUTA

Iñaki Aleman iruritarrak irabazi du laugarren Izeta Sariketa

Nafarroako 13 bertsolari aritu ziren Elizondon hilaren 8an

TTIPI-TTAPA

Abenduaren 8an egin zen Elizondon Izeta sari-keraren edizio berria. Nafarroako 13 bertsolari hartu zuten parte egun osoz izan zen saioan eta azkenean Iñaki Alemanek lortu zuen sari-keraren laugarren edizio hau irabaztea. Mariano Izeta zenaren Ines alabaren eskutik jasozuen txapela Irurita-ko bertsolariak.

Saioa Alkaiza antsoaindarrarentzat izan zen bigarren postua eta hirugarrena, berriz, Josu Sanjurjo lesakarra-
rentzat. Bertze hiru bertsolari izan ziren finalean: Leitzako Jose Luis Barberia *Zili*, Iruñeko Ainhoa Aranburu eta Lesakako Iban Garro. Elizondoko aretoa bete egin zen finala ikusteko eta saio polit eta bizia eskaini zuten bertsolari gazteek.

Aurtengo Izeta sari-kereta goizetik abiatu zen. 13 bertsolarien artean bi kanporaketa jokatu ziren, horren ondotik, finalerako seikotea erabakitzeke. Parte-hartzaile guztiekin egin zen bazkariaren ondotik, arratsaldeko saioa egin zen, Alaitz Rekondo lesakar aurkezlearen gidaritzapean. Epaile lanetan, berriz, Nerea Bruño, Mikel Altzuart eta Josu Etxanobe aritu ziren.

HARROBI LANA EGINEZ

Nafarroako Bertsozale Elkartek bi urtetik behin antolatzen du Nafarroako bertsolari berria sustatzea helburu duen Izeta sari-kereta. 2004an egin zen lehen-dabiziko aldiz. Lau edizio hauetan, bertsolarien harrobia izan da eta hala izaten segitzea da Elkartearen helburua. Elizondoko Jon Barberena, Iruñeko Oier Lakuntza eta Gartzaingo Jon Elizetxe izan dira Izeta sari-kereta orain arte irabazi duten bertsolariak.



ARGAZKIA: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Iñaki Aleman txapela soinean.



ARGAZKIAK: PELLO SAN MILLAN

Sahararen aldeko Elkartasun Eguna

Azaroaren 27an Sahararen alde Erratzun egindako Elkartasun Egunaz «balorazio guztiz positiboa» egin digu Mikel Gereka Saharaztan elkarteko kideak, «erantzuna hunkigarria» izan zela erranez. Hotzari gogor egin, eta goizean goizetik ibili zen jendea, eta bildutakoen aldetik «berotasuna» somatu zuten antolatzaileek, baina baita «borondatea» ere. Alde horretatik, parte hartu zutenei eskerrak emateaz gain, bereziki eskertu nahi izan dute Baztango eskolatan neska-mutikoez egindako mural eta marrazkiak «gaia oso ongi landua zegoen eta polita gelditu zen frontoia». Baina ikasle eta irakasleen lanaz gain, Erratzuko Herriaren, eta batez ere, Kultur Taldearen laguntza goraipatu nahi izan dute. Zerbait aldatzekotan, «eguraldia», erantzun digu Gerekak, hotz haundia egin baitzuen egun horretan. Hurrengo urteari begira, gisa honetako ekimenen bat egitea ez dute baztertu, nahiz eta oraindik deus erabaki gabea izan. Aipatu, bertalde, hilabete honetan Saharako kanpamenduetara joatekoak zirela Saharaztaneko sei-zazpi kide.





PVC eta aluminio aroztegia

Neurrira egindako leihoak
Diseinu eta modelo ezberdinak
Banakako soluzioak
Isolamendu termiko eta akustikoak
Energia aurrezpenak

Ordoki industrialdea • ARIZKUN
Tel. 948 453 259 • Fax. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com
www.betikopvc.com

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa salmenta eta instalazioa



OBRA BERRIETAN ETA BERRIKUNTZETAN ESPEZIALIZATUAK

URDAZUBI

ARTEA → AZARO BUKAERAZ GEROZTIK

3.000 eta 450 kiloko bi eskultura paratu dituzte Monasterioan

Iñaki Ruiz de Eguino eskultorearen lanak dira

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 29az geroztik, bi eskultura ikusgarri daude Monasterioan. Bakoitzaren lanari eta erranahiari garrantzirik kendu gabe, neurria eta pisua dira, bertzeak bertze, ikusgarri egiten dituena, 3.000 eta 450 kilo baituzte.

Iñaki Ruiz de Eguino eskultorearen lanak dira eta *Levantate* edo *Altxa zaitez* izenekoa da haundiena, altzairuz egi-

na eta kanpoan dagoena, hain zuzen. Bertzea, beriz, *El nacimiento de cubo* edo *Kuboaren jaiotza* izenekoa, 450 kilokoa, Klaustroan paratu dute.

Urte bukaerara arte ikusgai dagoen *Euskal Herriko pintura*, 50 urte erakusketaren barne daude bi eskulturak eta saldu arte Urdazubin segituko dute.

Olentzeroren bisita

Urtero bezala, aurtengo ere menditik plaza-
ra hurbilduko da Olentzero, orga eta guzti. 18:30 alderako etorriko da eta orduan banatuko ditu opariak, edo akaso, ikatza ere bai.

UTZITAKO ARGAZKIA

Urdazubitik Annapurnara

Sasoian daudela ez dago erran beharrik. Izan ere, duela gutti Annapurna aldean ibili dira Jose Luis Bidaurre eta Sagrario Elizegi koinatuak. 15 egunez egon dira han eta 5.400 metroko altueran hainbat bazter ezagutu dituzte.



ARGAZKIAK: ONDIKOL

Euskal Herriko eta mexikar doinuekin kantuan eta dantzan

350 lagun bildu ziren azaroaren 27an, Dantxarinea ko Lugarana jatetxean zazpi-garren aldiz egin zen Euskal Kantu Zaharren Egunean. Aurtengoan, berrikuntza nagusia, euskal kantuekin batera mexikarrak ere aditu zirela izan zen. Hala, Jalisko Band taldeak Mexikoko korridoak eta rantxerak jo zituenean, jendea kantari ez ezik, dantzan ere ibili zen. Gainera, Jalisko Bandekoek ezusteko kantaria ere izan zuten oholtzan, Angel Mari Peñagarikanok mikrofona eskuetan ederki kantatu baitzuen. Giro goxoagoan eta bilduagoan, kantu hunkigarriak atera ziren Aresoko Jaione Olazabal eta Jon Gurrutxagaren ahotsetatik, baita Mixel Aire *Xalbador II.a* Urepelgo artzainaren semearen, Baigorriko Askarrain eta Uharte-Garaziko Ihidoiren ahotsetatik ere. Angel Mariezkurrena antolatzailea gustura gelditu zen egunak emandakoarekin eta urtero 35.000 euro inguruko aurrekontuari aurre egin behar izaten badio ere, heldu den urterako gogotsu agertu zen.

ASISTENCIA DOMICILIARIA
ZENTURIA

Zure zerbitzura eguneko 24 orduak...
... urteko 365 egunak
ZENTURIA-rekin ETXEAN BEZALA
.....INON EZ!
ZENTURIA ETXERO LAGUNTZA TALDEA
ZURI LAGUNTZERA DATORE!
► Arreta pertsonalizatua - garbitasuna-Jaki/Oheratu
► Etxeko laguntza - garbitasuna - konpainia
► Fitoterapiak - produktu naturalak
► Fisioterapia - errehabilitazioa etxean
► Asteburuak - familiaren atsedenaldia
► Gauak - ospitalea/etxea
► Burneko langileen kudeaketa
► Langile kualifikatuak
MIENDEKOTASUN LIGERAKO PRESTAZIO
EKONOMIKOEN KUDEAKETA EGITEN DUGU
Telefonoak: 943 639 049 - 656 737 698
ayudadomiciliaria@zenturia.es
www.zenturia.es

MONTXO OSTATU

Dantxarineatik
2 km-tara
TABAKO-DENDA
ANZAN-BORDA • URDAZUBI
Egunero irekia 10:30etik 02:30era

zalain
JATETXEA - RESTAURANTE
Zalain auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.com


IKUSKIZUNA → ZAZPIAK BAT DANTZA TALDEAREN ESKUTIK

Integrazio Batzordearen alde ikusgarria antolatu du dantza taldeak iganderako

‘Oroitzapenetik bidaiarat’ izena paratu diote ekimenari

Joanes GARCIA/TTIPI-TTAPA

Integrazio Batzordearen aldeko ekimen berria antolatu du Zazpiak Bat dantza taldeak: *Oroitzapenetik bidaiarat* ikusgarria, hain zuzen. Igande honetan, abenduak 19, 100 bat lagun mugiaraziko ditu jaialdi honek kiroldegian. 18:00etan hasiko da, eta ondotik, jatekoa eta edatekoa ere egonen da. Sartzea 10 eurokoa izanen da helduentzat eta 6 eurokoa 6-16 urte bitartekoentzat.

Xehetasun gehiago Claire Grillardi egindako elkarrizketan irakurriko dituzue (3. orrialdea).

Telethon arrakastatsua

Joan den urteko markek gainditu egin ditu urritasuna duten per-

tsonen laguntzeko aurtengo Telethon ekimenak.

Hazilaren 14an egin dako kontzertuan 600 euro inguru bildu ziren, eta abenduaren 3an haurren herri kirol jolasekin eta abenduaren

DATUA

3.900

EURO

bildu dira aurtengo Telethonarentzat.

4an Larrunera upatutako jendearekin bertze 3.300 euro lortu ziren. Guztira, beraz, 3.900 euro. Joan den urtean 70 lagun igo baziren trenetaz Larrunera, aurtengo 120k egin zuten; trena beteta joan zen.

Erantzuna ikusita balarazio arras ona egin du Turismo Bulegoak.

Presoen aldeko ekimena

Duela urte pare bat bezala, Herriko Etxeko ostalua etsia dela baliatzen da presoen aldeko aperitifa egiteko arkupean. Hazilaren 21ean, igandearekin, eguerdi aldean jendealdana hurbildu zen sustenguz, umore onean mementu goxo bat pasatzera.

Eguberrietako marrazki lehiaketa

Bertze urteetan bezala, Eguberrietako marrazki lehiaketa antolatu du aurtengo ere Turismo Bulegoak. Neska-mutikoen Eguberrietako oporrak hartu aitzinetik bilduko dira lanak eta ondotik, abenduaren 20tik aitzinera erakusgai paratuko dira Turismo Bulegoko ordutegian. Aurkeztutako lanen artean sariak banatuko dira urtarrilean.



ARGAZKIAK: JOANES GARCIA

Oientzero larunbatean etorriko da!

Abenduaren 18an Euskal Herriko ikazkin famatuena menditik jautsiko da hiru eskoletako ikasleekin eta saratarrekin Eguberriak ospatzera. 17:00 aldean Oihain ikastolako haurrek harrera egingen diote eta ondotik plazan ibiliko da musikariek lagundurik. Herriko Etxeak aperitifa eskainiko du arkupeetan eta ikastolako gurasoek gaztainak erreko dituzte

ANZABAL INMOBILIARIA

- Zuzen Anzabalek, Autoa, etxebizitza, istripu eta biktima aniztasunak
- Lan aholkularitza Normatiko eta Aniztasun Sozialak
- Aholkularitza fiskala Errenta Deklarazioa, BEZA...
- Inmobiliaria Baserri, bodega, pisu, etab... salmenta eta alkatariak
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T/F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

**HERRIKO ETXEN
EDINETE
CAFÉ DE LA MAIRIE**

T: 055 93 42 519
Maitzen eta Véronique

SARA

**TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN**

facebook

www.facebook.com/ttipittapa

**ZUBIONDO
Jatetxea**

Agardotegia jatetxea

Alasta karrika
BERA NAFARROA

Tel. 945 64 472

SENPERE

OSPAKIZUNAK → EGUERRIAK GAINEAN

Urtats gau alaia prestatzen ari dira Ibarrungo gazteak Inharrea baserrian

Taxiak izanen dira jendea etxerat eraman ahal izateko

daindu eta gualdian parte hartzen ahalko da eta taxiak eramanez dituzten etxerat bilduko diren besta egileak.

Franck DOLOSOR

Senpereko errebesta Ibarrungo Inharrean ospatu zuten abenduaren 4an, baina ez dira hor bukatuko urteko sasoin honetako ekitaldiak. Herriko baserri ezagunenak, besta leku baliatuenak, bertze animazioa biziko baitu urtats gauean Ibarrungo gazteria urtats gaua apailatzen ari baita.

Parte hartu nahi dutenek izenak ematekoak ziren eta abenduaren 9tik eta 12ra artean egin behar zen Eskola tabernan. 50 euro or-

Herriko Etxea auzitan berriz

Paueko Auzitegiak ezeztatu egin du Senpereko Herriko Etxeak Euskal Herriko Laborantza Ganbara elkarteari eman zion bi mila euroko diru laguntza. Prefetak salatu zuen afera eta justiziak dio elkarte horrek ez diola onurarik ekartzen zuzenean Senpereko herriari. Andere auzapezak arrunt kontrakoa pentsatzen du eta erran duenez, helegitea aurkeztuko diote epaiari afera berriz ikusia izan dadin.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Matxin ohoratua

Senpertarra, laboraria, bertsularia eta aitzindaria... Hitz hauek laburbiltzen dute Matxin Irabola (1879-1935) bertsulariaren bizia. Gizon hunen bizi zinez interesgarria ezagutarazteko xedearekin bere biografia idatzi du Franck Dolosor Haltza berriketari senpertar gazteak. ELKAR argitaletxeak plazaratu duen liburuan jakiten da maila haundiko bertsulariaren aita aranoarra zela eta ama saratarra. Orain arte, Irabolaz eta Senperez sekulan jakin ez diren xehetasun frango agertzen du Dolosorren bigarren liburu honek. Hazilaren 28an Larralde baserrian egindako aurkezpen ekitaldian, idazleak eskerrak eman zizkion Andoni Iturriotzi Bertsularien Lagunak elkartearen esku utzi baitu bere etxea, Amotz Larralde, eta bertsulari haundiaren itxura duen orotarria eman zion -ikus beheitian dagoen ezkerreko argazkia-. Kazetariaren ustez, Matxinek begi onez ikusiko luke laguntza paregabe hori. Ondotik, bertsu saio zinez goxoa iragan zen Amets Arzallus, Sustrai Colina, Mixel Aire Xalbador, Fermin Mihura eta Joana Itzainarekin -argazki nagusia-. Informazio gehiagorako <http://matxinirabola.unblog.fr> Interneteko ataria bisita daiteke.

Iñaki Alzuyet margoak
Pintura dekoratiboa eta industriala • Fitxadak • Bemeakdeak
Dekorazioak: etxekoak, beladurak
Lakatu eta berrizatuak kabinak • Pladurak
Harri eta eguna arendatzeekin garbitzen da
Itur-ttapi etxea - Landibar Auzoa - 31711 URDAZUBI
Tel: 659 862 417 - pinturasalzuyet@yahoo.es

Martiko
Pol. Zorion, s/n.
31780 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625018 Fax: 948 625036
www.martiko.com
Hastiduen adinak eta erakutsak

Martikorekin zu zeu sukaldari.

DENDA
ORDUTEGIA
ASTELEHENEKIN
ORTZIALERAN
8.30etik
12.30era
14.30etik
17.00etara

ttipi-ttapa
www.ttipi.net

LIZUN
GAZTANDEGIA
Sunbilla - Tel: 948 450 862

OSPAKIZUNAK → URTEKO BESTA

Arkupeak elkarteko lehendakari kargua utziko du Felipe Ganboak ekainean

600 bat lagunek parte hartu dute urte bukaerako bestan

DATUA

25

URTE

beteko ditu Arkupeak elkarteak 2011ko ekainean eta orduan utziko du kargua Felipe Ganboak.

TTIPI-TTAPA

Azkeneko urteetako ohiturari eutsiz, urte bukaerako besta ospatu zuen Arkupeak jubilatuz, pentsionista eta alargunen elkarteak azaroaren 20an Donezteben. 600 bat bazkide bildu ziren hitzordura, baina Felipe Ganboa elkarteko presidentea ez zen ekitaldian izan, egun berean hil baitzen Juanita bere arreba. Hortaz, heldu den urteko ekainean kargua uzteko asmoa duen presidentearen diskurtsorik gabe joan zen eguna.

Eguerdian, hildako bazkideen omenez, Mikel Blain apezak meza

eman zuen Doneztebeko elizan eta bertsolariak ere aritu ziren. Ondotik, bazkaria izan zuten kiroldegian. Bazkalondoan, dantzaldia Jallisko Band taldearekin.

Arkupeak elkarteak eskualdeko eta Irun edo Iruñea aldeko 3.500 bazkide ditu gaur egun. 1986ko ekainaren 30ean sortu zen eta beraz, heldu den urteko ekainean Zilarrezko Ezteiak ospatuko ditu.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO/ONDIKOL

Ehunka erretiratu bildu zen azaroaren 20an Doneztebeko kiroldegiko bazkarian.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

EZKONTZAK

Jose Jabier Oiartzabal Apeztegia eta **Junkal Iturria Iparragirre**, Lesakakoa eta Arantzakoa, azaroaren 20an Arantzazan.

Esteban Arozena Larralde eta **Begoña Sarasua Arruti**, Lesakakoa eta As-teasukoa, azaroaren 13an, Lesakan.

Ricardo Magaña Junco eta **Idoia Gartzia Arbelaiz**, Kubakoa eta Oiartzungoa, azaroaren 27an Igantzian.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Beñat Telletxea Sein, Igantzikoa, abenduaren 1ean.

Luka Max Ferro Knoff, Goizuetakoa, azaroaren 19an.

Markel Ariztegi Bereau, Iturengoa, azaroaren 14an.

Naia Apeztegia Ariztegi, abenduaren 1ean, Iturengoa.

Ellande Endara, Sarakoa, azaroaren 12an.

Melody Pereira Ayez, Sarakoa, azaroaren 22an.

Ariadna Ugal Covos, Narbartekoa, azaroaren 17an.

Narrea Andresena Grajirena, Legasakoa, abenduaren 3an.

Mikel Legasa Goia, Lesakakoa, azaroaren 15ean.

Aroa Arozena Tapia, Lesakakoa, azaroaren 21ean.

Alazne Zubieta Iribarren, Lesakakoa, azaroaren 26an.

Aitor Mitxelena Sunsundegi, Lesakakoa, azaroaren 28an.

Marina Iriberrri Casquero, Arantzakoa, abenduaren 6an.

Ane Bertiz Georgieva, Etxalarkoa, azaroaren 2an.

Intza Txoperena Etxarte, Etxalarkoa, azaroaren 18an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Joshe Ciganda Legarreta, Oiz-Donetzebekoa, azaroaren 15ean Pasaian, 87 urte.

Cesareo Gartzia Fernandez, Sarakoa, azaroaren 17an, 79 urte.

Jose Luis Cia Maz, Iruritakoa, azaroaren 19an, 60 urte.

Juana Ganboa Jorajuria, Berakoa, azaroaren 20an, 85 urte.

Martin Martinez Urkizu, Leitzakoa, azaroaren 20an, 71 urte.

Francisco Iturbide Maia, Elizondokoa, azaroaren 21ean, 88 urte.

Manuel Bergara Almandoz, Arantzakoa, azaroaren 21ean, 61 urte.

Joakin Lasaga Irazoki, Donamariakoa, azaroaren 22an, 73 urte.

Francisca Ado Perugorria, Berakoa, azaroaren 23an, 93 urte.

Sebastian Barberena Aleman, Erratzukoa, azaroaren 23an, 91 urte.

Jose Luis Izquierdo Mendez, Alkaigakoa, azaroaren 25ean, 57 urte.

Iñaki Martin Eskudero, Berakoa, azaroaren 26an, 42 urte.

Maria Etxenike Agerrebere, Gartzaingoa, azaroaren 27an, 99 urte.

Joxe Telletxea Martiarena, Bera-Lesakakoa, azaroaren 28an, 80 urte.

Xabi Telletxea Etxeberria, Igantzikoa, azaroaren 28an, 33 urte.

Jose Manuel Saldias Etxegia, Donetzebekoa, abenduaren 4an, 65 urte.

Maria Latasa Galarregi, Etxalarkoa, abenduaren 3an, 92 urte.

Graciano Agerralde Etxeberria, Zugarramurdikoa, abenduaren 5ean, 77 urte.

Aquilino Loiarde Jaunarena, Eratsungoa, abenduaren 7an, 80 urte.

Maria Esther Urrutia Berrio, Iruritakoa, abenduaren 7an, 40 urte.

Bittor Irisarri Sanzberro, Etxalarkoa, abenduaren 7an, 80 urte.

Maritxu Jauregi Fagoaga, Berakoa, abenduaren 8an, 93 urte.



**Joshe
CIGANDA LEGARRETA**

Oiz 1923/03/09-Pasaia 2010/11/15



ZURE FAMILIA



**Rosa Maria
JUANENA AROZENA**

Legasan, 2009ko abenduaren 16an
I. URTEURRENA

Gure artetik joan zinela
abenduaren 16an betekoa da urtea
egunero faltan bota ditugu
zure irrifarre eta umorea
familiarren bihotzean betirako daukagu
leku haundi bat zuretzat gordea.

ZURE FAMILIA



**Iñaki
MARTIN ESKUDERO**

Lanerako beti prest
bestarako bezala
hau zen guretzat
mutil mundiala.

OINEZ IKASTOLAKO MUNTAI TALDEA

AIZKORA → EUSKADIKO BIGARREN MAILAKO TXAPELKETA

Oihan Larretxea Euskadiko lehen mailan ariko da heldu den urtean

Finalean azpitxapeldun izan da Lasaren gibeletik

LARRETXEAN FIN
Txapeldunarengandik minutu eta 14 segundora gelditu zen Oihan Larretxea finalean.

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Jexuxmari Lasa gipuzkoarrak irabazi du II. Mailako Euskadiko Aizkora Txapelketa. Lehenengoz jantzi zuen txapela azaroaren 19an Donezteben, baina Oihan Larretxea beratarren lana ere azpimarratzeko izan zen, txapeldunorde gelditu baitzen eta horrenbertzez, biek lortu zuten heldu den denboraldian Euskadiko Maila Nagusian arietzeko txartela. Lasa txapeldunak minutu eta 14 segundoko alde atera zion Larretxeari.

Ondoko sei aizkola-riak aritu ziren lehen: **Xabier Mindegia** (Beintza Labaien, 26 urte), **Oihan Larretxea** (Bera, 20 urte), Jexuxmari Lasa (Legorreta, 36 urte), Manuel Kañamares (Arostegi, 46 urte), **Ander Erasun** (Aurtitz, 20 urte) eta Ugaitz Murgertza (Mutriku, 23 urte). Bakoitzak seina pagoenbor moztu zituen: bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta bi oinbiko.

Kanporaketako denborarik onena Mindegia-ak egina zuen (15:02),

baina Donezteben has-tapenetik hartu zuen probaren burua Lasak eta horrela segitu zuen azken aizkorakada eman arte. Azken egurrean biziki ahalegindu zen Larretxea Lasa gainditzeko, baina alde handi samarra zuen txapeldunak ordurako. Hala ere, Larretxeak bigarren postua lortu nahi izan zuen kosta ahala kosta, eta bai lortu ere. Beraz, heldu den sasoiaren lehenengoz ariko da Maila Nagusian Berako gaztea.

SAILKAPENA

1. J. Lasa: 23:17.
2. O. Larretxea: 24:31.
3. U. Murgertza: 25:52.
4. A. Erasun: 26:22.
5. X. Mindegia: 27:15.
6. M. Kañamares: 27:55.



Oihan Larretxea lanean.

ARGAZKIA: KOLDO ALDUNTZIN



Ander Erasun aizkoran.

ARGAZKIA: KOLDO ALDUNTZIN

PILOTA → AURTEN BIGARREN ALDIZ

Sei leitzarrek parte hartuko dute 'Ni ere Pilotari' txapelketan

Txapelketako finalak urtarilaren 16an jokatu dira

TTIPI-TTAPA | LEITZA

Joan den urteko arrakasta ikusita, Nafarroako Federazioko Emakumea eta Pilota Batzordeak aurtengo bigarren aldiz antolatu du *Ni ere Pilotari* txapelketa. Aben-

duaren 12an abiatu zen Agoitzen eta larunbat honetan, abenduak 18, Etxarri-Aranazko pilotalekuan izanen du segida; urtarilaren 2an Espinalen jokatu da hirugarren saioa, urtarilaren 9an Iruñeko Obere-na pilotalekuan eta finalak Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatu dira urtarilaren 16an.

Emakumeen pilota indartzea da helburu na-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urtean egin zen lehen aldiz *Ni ere Pilotari* txapelketa.

gusia, eta hala, Nafarroan eta hemendik kanpo pilotan jolasten duten emakumeak gero eta gehiago izatea nahi da. Sei kategoriatan neurtuko dituzte indarrak: benjamin,

alebin, infantil, jubenil eta seniorren bigarren eta lehenengo mailan. Horien artean, sei leitzar ariko dira: Amaia Ezkurdia eta Itsaso Morato alde batetik, eta Ane Garro eta

Andrea Kasares bestetik, infantiletan ariko dira. Enara Lasartek seniorren bigarren mailan jokatu du eta lera Agirrek seniorren lehenengo mailan.

Berako Zalain auzoko industrialdean dagoen Lulu-Park Skate Park Indoor aretoaren inaugurazio ekitaldia egin zen azaroaren 20an. Bizikletekin, patinekin edo skateare-

kin saltoak egitea gogoko duten kirolariek estalpeko gune bat daukate, inguru hone-tako bakarra. Abendutik hasita, asteburuetan atea irekiko dituztela aipatu digu

Hegoi Ado, gunearen arduradunetako batek, «ibili nahi duen edozeineri diru laguntza tiiki baten truke, parkeari bizia emateko intentzioarekin».

Hegoi ADO | Berako Lulu-Park Skate Park Indoor

«Bizikleta, skate edo patinak urte osoan erabiltzeko aukera dugu»

Aitor AROTZENA | BERA

Lulu-Park Skate Park Indoor izen ingelesaren giblean, gure inguruan ezagutzen ez zen gunea zabaldu berri dute Beran. Hegoi Ado arduradunak aipatu digunez, «skate park bat, bizikletaz, patinez edo skatez (monopatinez) ibiltzeko prestaturik dagoen zirkuito bat da. Hauek modulu ezberdinez osatuta daude, jendeak ulertzeko modulu ezagunetarikoa "U"ak dira». Eta Indoor erraterakoan, teilatuaren babesa duela erran nahi du, Zalaingo industrialdeko nabe batean egin baita. Eskualdean gisa honetako lehenbiziko parkea da, baina gehiago ere badira: «Bai, gehiago aurki daitezke –dio Adok–, baina ez daude askorik. Hemen inguruan bat Monrealen (Iruñeatik 15 minututara) eta beste bat Biarritzen aurki daiteke. Monrealekoa Berakoaren antzera autogestio-natua dago. Biarritzekoaren kasuan berriz Herriko Etxearen laguntza daukate proiektua aurrera eramateko». Izan ere, partikulari egindako proiektua da eta bertan zenbat diru sartu duten ezin izan digu zehaztu Adok: «Aurrekontua? Ez, ez dugu horrelakorik ezagutzen! Aurrekontu bat egin izan bagenu izutu eta ko-



ARGAZKIA: INIGO BLAS

Hegoi Ado, bizikletarekin, Luluparken inaugurazio egunean.

rrika atera izango ginateke. Gure arazorik handiena alokailua, argia... hilabetero etortzen diren gastu horiek dira. Beste gauzak laneko gogoarekin poliki poliki sortzen joaten baitira». Eta Luluparken kudeaketa izanen da hemendik aitzinerako burukominik handiena. Adok aipatu digunez, «hau partikularra da. Betidanik izan da modalitate hauetarako afizioa inguruan, eta horri esker betidanik mugitu izan gara gauzak sortzeko. Halere, partikularra izatea-

BERTZE EKITALDIAK
«Azaroaren 20an egin genuen inaugurazioa. Bertan bizikletaz erakustaldi bat egon zen, eta ondoren kontzertuak eta jai giroa, barbakoa... Jende aunitz bildu zen. Egia esan gure asmoa ez da beste ekitaldiak antolatzea, baina oraintxe bertan horrelako ekitaldien laguntzarik gabe ez daukagu hau aurrera ateratzeko gaitasunik»

ren arazoetarikoa bat, instalazioak ez direla jendearen esku geratzen da, eta honek kirolaren garapena moteldu egiten du. Eta gainera, horrelako instalazio batzuk diseinatu eta sortzeaz gain, alokailua, argia, material eta abarren gastuei aurre egin behar zaie. Hori dela eta, bazkide edo erabiltzaileak behar beharrezkoak ditugu».

Lehen Matxada futbol zelaian ere bazen halako salto eremu bat, baina barnean izateak urte osoan erabiltzeko auke-

ra ematen du: «Matxadakoa herriak egin zuen Berako zenbait gazteri esker, baina gestio txar baten ondorioz dena bertan behera joan zen. Azken finean gauza hauek egitea ez da erraza baina askoz zailagoa dena mantenua da. Horrek egunerokolana suposatzen baitu. Egurrezko skate parkaren kasuan, eskulaneko mantentzea asko gutxitzen da, eta indoor-a izanez urte osoan erabiltzeko aukera ematen du. Gainera, eguraldi txarari aurre egi ona jartzeko aukera ematen digu». Bera inguruan bizikletekin saltoak egiten dituzten hainbat kirolari ezagunak dira, baina skatea ez da hain ezaguna. Halere, horietatik ere badaudela aipatu digu Adok: «Leku guztietan denetarik aurkitzen da. Arazoa, instalazioak dira. Bertan falta direnean jendea kanpora joaten da gustoko duena egitera, eta elkartasun hori galdu egiten da». Abendutik aitzinera asteburuetan atea irekitzeko asmoa dute, parkeari bizia emateko intentzioarekin eta eskerak eman nahi dizkiete «Lulupark sortzen, nahiz aitzinera eramaten lagundu digutenei eta inauguraziora agertu zen jendeari». Informazio gehiago 649 783783 edo 675 008104 telefonoetan.

HERRI KIROLAK → TXOKOR BILTZA

Fernando Etxegarai eta Maika Ariztegik irabazi dituzte Euskadiko txapelketak

9. txapela da lturengo emakumearentzat eta 7.a Berako gizase-mearentzat

TTIPI-TTAPA | BERA/ITUREN

Maika Ariztegi eta Fernando Etxegarai dira aurten ere Euskadiko Txokor-Biltze Txapelketako txapeldunak. Ariztegi iturendarrak bederatzigarren urtez jantzi du txapela eta gainera, berak orain dela bi urte (2008) ezarritako marka ondu du lau segundotan. Etxegarai beratarak, berriz, zazpigarren urtez jantzi du



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Fernando Etxegarai txokorrak biltzen.

txapela, eta lau segundogatik ez du hobetu berak 2008an ezarritako marka. Azaroaren 20an, jokatu zen txapelketa, Ozetan (Araba).

BEDERATZIGARRENA ARIZTEGIRENTZAT

Ariztegik 7 minutu eta 21 segundo behar izan zituen 2008an marka ezartzeko. Joan den ur-

tean bi segundo gehiago behar izan zituen eta aurtengoan 07:17an saskiratu zituen 50 txokorrak, eta hori bi aldiz bota zuela txokorra sas-

kitik kanpo. Saioa akitutakoan, sinetsi ezinda gelditu zen marka berriro hobetu zuela erran ziotenean.

ETXEGARIRENTZAT ZAZPIGARRENA

Etxegarai kasik hutsik egin gabe aritu zen proba osoan, eta saioaren hasieran ez zuela 2008ko marka onduko (06:18) adierazi arren, lau segundora gelditu zen eta txapela jantzi zuen. Aurten, hala ere, bi aldiz ondu du Euskadiko Txapelketako marka: Nafarroako Txapelketan eta Zazpi Herrialdeen Arteko Txapelketan, bietan txapeldun izan eta 50 txokorrak 06:11n saskiratu zituen.

PILOTA → ESKUZ BINAKAKO LEHIA

41 bikotek parte hartu dute Bortzirietako txapelketan

Hamargarren pilota txapelketa izan da

TTIPI-TTAPA | BERA

Bortzirietako eskuz binakako X. pilota txapelketak eman du aurten goa. 41 bikote aritu dira eta finalak azaroaren 27an jokatu ziren Beran.

Aurrebenjamin mailan, Etxalarko Altxataka Markel Etxarte eta Koldo Bizentek 18-13 irabazi zieten Berako Gure Txokoako Jon Pagola eta Unax Villameari.

Benjamin B mailan, Igantziko Biltokiko Gariakoitz Txoperena eta Patxi Loiartek 18-15 irabazi zieten Lesakako Arkupeko Aritz Otxoteko eta Asier Larralderi; **benja-**



ARGAZKIA: GOIKO

Bortzirietako eskuz binakako txapelketako finalistak.

min A mailan, Gure Txokoako Asier Telletxea eta Xiker Lizardi nagusitu ziren, 18-3, Arkupeko Ander Goizueta eta Antton Petrirenaren aurka.

Alebin B mailan, Altxataka Iker Bizente eta Eneko Sanzberrok 18-12 irabazi zieten Arkupe-

ko Aimar Zamorano eta Iker Iriarteri; **Alebin A mailan**, Biltokiko Jokin Mitxeo eta Enaitz Telletxea gailendu ziren, 18-10, Gure Txokoako Oier Larretxea eta Yago Cantorori irabazita

Infantiletan, Igantziko Oihan Canabal eta Le-

sakako Julen Palenzuelak 18-10 irabazi zieten Berako Andoni Lazkanotegi eta Etxalarko Joseba Irazokiri, eta **kade-teetan**, Berako Ander Errandonea eta Xabi Mendik 18-13, Berako Mattin Garbisu eta Lesakako Jon Olaizolari.

abenduak 16-urtarrilak 5

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Ekitaldiak



BERA | 2010.12.26

Txileri buruzko zikloaren bukaera Kaxerna Gaztetxean

Salvador Allenderi buruzko «Compañero presidente» dokumentalarekin bukatuko da Kaxerna Gaztetxeak egin duen Txileri buruzko zikloa.

Lehiaketak



LESAKA | 2010.12.24

Olentzero eta jaiotza lehiaketa eguerdian plazan

Olentzero inguruko herri guzietako plaza, ikastetxe eta etxetara jautsiko bada ere, Lesakan bakarrik egingen dute lehiaketa ikusgarria.

Ospakizunak



DONEZTEBE | 2010.12.18

Errekaren Mendi Egunean Juan Vallejoren emanaldia

Goizean Leurtzako zirkora mendi irteera, eguerdian poteoa, gero bazkaria eta 19:30ean, Juan Vallejoren «Broad Peak 2010» proiektzioa ikusgai zineman.

Hitzaldiak

ARANTZA

Euskal Herriaren egoeraz

Abenduaren 28an
Euskal Herria errepre-sioaren jo puntu sola-saldia, 19:00etan Ekaitza Elkartean.

GOIZUETA

Aroztegiako proiektua

Abenduaren 17an
Aroztegia eta gero zer? solasaldia, 19:00etan Gaztetxean.

Ospakizunak

DONEZTEBE

Mendiaren Eguna Errekaren eskutik

Abenduaren 18an antolatatu du Errekak. 07:30ean Leurtzako zirkora mendi irteera. 13:00etan mendizale poteoa. 14:30ean bazkaria Kasinon. 19:30ean Juan Vallejo mendizaleak *Broad Peak 2010* proiektzioa eskainiko du.

SUNBILLA

Kantu Zaharren afaria Ulibeltzak elkarte

Abenduaren 18an
Kantu Zaharren afaria egingen da Ulibeltzak elkarte.

Lehiaketak

BERA

Bortzirietako haur eta gazteen ipuin lehiaketa

Abenduaren 16an sari banaketa egingen da 18:00etan liburutegian.

LESAKA

Olentzero eta Jaiotzen lehiaketa

Abenduaren 24an
eguerdian egingen da lehiaketa plazan. Olentzero irabazlearekin kalejira musika bandak lagunduta 18:30ean.

Antzerkiak

BERA

El Kiosko antzeslana

Abenduaren 18an
Ezezagunok Antzerki Elkartearen *El Kiosko* antzeslana 20:00etan Kultur Etxean. Sarrera: 2 euro.

Kontzertuak

LESAKA

Eguberrietako kontzertua

Abenduaren 19an Lesakako musika taldeak herrian barna 10:30ean.

Abenduaren 22an
udaletzeko pleno aretoan Musika Eskolako en emanaldia 17:00etan.

BERA

Eguberrietako kontzertua

Abenduaren 21ean
Isidoro Fagoaga Musika Eskolaren saioa Kultur Etxean (17:30).

ELIZONDO

Eguberrietako kontzertua

Abenduaren 18an
Udal Musika Eskolaren kontzertua 18:00etan parrokan.

Joseina eta Txutxin Ibañez Lurren

Abenduaren 18an Joseina Lur dantzalekuan 01:00etan. 9 euro eta kontsumizio bat doan 03:30 arte.
Abenduaren 25ean
Txutxin Ibañez 00:30-etik aitzinera. 9 euro eta kontsumizio bat doan 03:30 arte eta tekilada debalde.

IRURITA

Eguberrietako kontzertua

Abenduaren 27an Eli-

zondoko Banda
Recreoren kontzertua
19:00etan parrokan.

ZUGARRAMURDI

Danba taldea aterpean

Abenduaren 18an
Danba taldearen kontzertua Graxiana aterpean, 23:00etan.

Erakusketak

ELIZONDO

Patxi Aranoaren pintura erakusketa

Azaroaren 29tik urtarrilaren 8ra Patxi

PROPOSAMENA

ELIZONDO

Txutxin Ibañez Eguberri gauean Lurren

Eguberri eguna akitzeko eta turroiak, maza-panak eta txanpaina jausteko zer hoberik mexikana doinuekin dantzatea baino? Aukera hori eskaiko du Lur dantzalekuak Txutxin Ibañez ezagunaren eskutik. 9 euroko sarrerarekin kontsumizioa doan izanen da eta tekilada debalde. Hilaren 18an, berriz, Joseinak eskainiko du emanaldia.



Zinema

BERA

Txileri buruzko zikloa
Kaxerna Gaztetxean

Abenduaren 26an
Compañero presidente
Salvador Allenderi buruzko 2008ko dokumentala 19:00etan Gaztetxean.

ELIZONDO

Zinema euskaraz zikloa

Abenduaren 27an *Ponyo amildegian* filma ikusgai 18:00etan Museo Etnografikoan.
Abenduaren 29an *Goazen Ilargira* filma ikusgai 18:00etan Museo Etnografikoan.

Ikastaroak

BERA

Dantza klasikoa-ballet
ikastaroa haurrentzat

Abenduaren 26tik
31ra dantza klasikoa eta ballet ikastaroa haurrentzat Kultur Etxean.

Mendi irteerak

BAZTAN

Urte bukaera eta
hasierako ateraldiak

Abenduaren 19an
Baztango Mendigoizaleak Legatera.

Abenduaren 26an
Baztango Mendigoizaleak Auzara.

Urtarrilaren 2an Elizondo-Bailei-Urballa-Harrikulunka-Belaun-Beartzun-Elizondo ateraldia (08:00)

BERA

Urteko azken irteera

Abenduaren 19an
Azkura irteera Larun Tiki Mendi Taldearen eskutik. 09:30ean larmoteneatik abiatu eta Etxalarrera autoz.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu:
www.ttipi.net
(agenda)

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua



Beste gu

ASIER MENDOZA

Elkar, 2010

Kristianek ez du bere aurpegia argi ikusten ispi-luan, eta gauza arraro gehiago ere gertatzen zaizkio: usaimena zorroztea, ahots batzuk entzutea, odolak erakartzea... Banpiro bihurtzen ari ote da? Aldi berean, jakin-min handia pizten diote bere etxe parean bizi diren Morgandarrek: Darel eta Veronika aita-ama misteriotsuek eta Elizabeth alaba tuntunak. Ageriko istorioak ustekabea dauka gordeta, ordea, umorez eta irudimenez landuriko kontakizun honetan. Gazteen gustuko gai bat ikuspegi ironikoz lantzen duen eleberrri honi esker irabazi du Asier Mendozak I. Mikel Zarate Haur Literaturako Saria, epaimahaia osatzen zuten Julen Gabiria, Leire Bilbao eta Xabier Mendigurenen erabakiz. Asier Mendoza idazleak aitzinetik sari batzuk irabazi dituen arren, hauxe du argitaraturiko lehenengo liburua, 12 urtetik goitiko neska-mutikoei zuzendua. Liburuko marrazkiak Ivan Matak egin ditu.

Musika



Gose III

GOSE

La Chiquilla, 2010

Gose taldearen laugarren diskoa arrosa da eta bikoitza. Baina ez, bigarrena oparian, doan eskaini digute. Gose taldearen laugarren diskoa DVDa da eta CDa oparixoa. Gose taldearen laugarren diskoa entzun baino ikusi egiten da, bideoa baita. Gose taldeak bere buruari ere egin dion oparia da laugarren disko osoa, DVDa zein CDa. Gose taldeak hameka laguntzaile, musikari-gonbidatu eta bertzelako ekintzaile ekarri ditu bere ingurura. Hirugarren diskoaren aurkezpen birako irudiak eta dokumental luzea sartu dira DVDan, Mikel Clementeren zuzendaritzapean. Musika eta irudia. Gose taldearen jakiaren osagai nagusiak euren hasieratik, begietatik ere sartzen delako musika. Bertze oparian, CDan, musikari ilara luzea aurkituko dugu: Fermin Muguruza, Oreka TX, Kutxi (Marea), Os-korri, Josu Zabala, Petti&Andoni, Makala, Miren&Lipus, Naroa, Pirritx eta Porrotx Bonberenea txarangarekin, Gari, Mikel Urdangarin...

Internet



Euskarazko produktuen katalogoa

WWW.KATALOGOA.ORG

Euskarazko produktuen katalogoak 13 urteko ibilbidea osatu du. Nafarroako udal gutxi batzuk abiatu zuten ekimena eta 105 toki-entitate dira gaur egun parte hartzen dutenak. Euskal Herriko hainbat udalek egin dute bat euskarazko produktak sustatzeko ekimen honetan: handiak nahiz txikiak; euskaldun aunitzekoak nahiz guttikoak; kostaldekoak, erriberakoak, errioxakoak edo mendialdekoak... Guztiak ere argi ikusi dute euskarazko produktak erdaren itsasora nabarmendu behar direla, eta egon badagoen hori erdarazko produktuen itzaletik argitara ekarri behar dela. Euskarazko produktuen katalogoa bultzatzen duten udal erakundeek bat egin dute Euskal Herrian 200.000 aleko zabalkundea duen Katalogoa osatzeko eta banatzeko, etxeko haur eta gaztetxoek euskaraz jolasteko, ikasteko, irakurtzeko eta gozatzeko aukera izan dezaten.

Nire aukera



Bixente TABERNA
Berako Ayla argazki dendakoa

«Famiiarekin mendira joatea edo bizikletan ibiltzea gustatzen zait»

Argazki dendako lanaz gain, Larun Haizpe elkarteko presidentea eta seme-alaben aita da Taberna. Beraz, asti libre ez du soberan izaten, eta orduan «gure gustuko gauzak egiten ditugu familiarrekin». Argazkigintza aparte, «txirindulan eta mendian ibiltzea» ditu gustuko eta seme-alabak ere afizio horietara bideratzen saiatzen da. Alde horretatik, «boka-dilloak hartu eta egun osoa mendian pasatzea» gustatzen zaio, «hori nahikoa da». Piri-nioak, Lizarralde, Aralar... «ez da urrun joan behar egun bat edo bi kanpoan pasatzeko, aterpe bat hartuz, hotel tiki bat...». Kirola baino gehiago «gorputza pixko bat mugitzea» gogoko du. Opor luzeagoetan gustora joaten da «eguzki lekuetara». Andaluzia eta Mediterraneo alderako joera dauka eta horien artean Granada bereziki gustatu zaio: «Hagitz polita da, desberdina... Sierra Nevada, Alpujarrak... dena zoragarria da. Gure ingurua izatez politagoa da, baina ezberdina da».

ETXEBIZITZAK
salgai

ETXALAR. Lizaietako parajea zaharbertitze-ko borda salgai. Lur eremuarekin. ☎661 121540.

BERA. Pisua salgai. 3 logela, jantoki osatua eta sukaldea balkoiarekin. 2 logelek ere balkoia dute. Gasa eta berokuntza zentrala. 3. solairuan eta igogailuarekin. ☎948 631381 / 697 436845/ elvetearra@aol.com.

DONEZTEBE. Zazpigarutze plazan 115m²ko pisua salgai. 3 logela, 2 bainugela eta trastelekua. Eguzkitsua eta estreina-tu gabea. ☎630 948271.

BERA. Pisua salgai. 2 lo-

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisua, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-
rekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

gela, sukaldea, egongela eta komuna. Oso eguzkitsua. ☎699 397279.

LESKA. Etxebizitza salgai. Prezio onean. ☎609 477277.

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

BERA. 89m²ko pisua salgai, 4. solairuan. 3 logela, bainugela, komuna, sukaldea, egongela, trastelekua eta balkoi handia, bista ederrarekin. Gas naturala, berogailu eta igogailuarekin. ☎681 017423.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttiipi.net edo www.ttiipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ETXEBIZITZAK
errentan eman

ETXALAR. Bi bizitzako etxebizitza lur eremuarekin errentan emateko. ☎662 244389/696 890471.

BERA. Eztegar pasealekuan (28.a), pisua errentan emateko. 3 logela, sukaldea eta bainugela ditu. Gela guztiek kanpora ematen dute. Bero-gailua. 600 euro hilean. ☎620 364541.

DONEZTEBE. Herri erdian dagoen pisua errentan emateko. 3 logela, 2 bainugela, egongela-jangela eta sukaldea. Gela guztiek kanpora ematen dute. ☎699 798207.

GARAJEAK/LOKALAK
salgai

BERA. Kanttonberri ka-

rrikan 78 m²ko lokal komertziala salgai. ☎627 914271.

IGANTZI. Lokal komertziala salgai edo errentan emateko. ☎615 746622.

GARAJEAK/LOKALAK
errentan eman

ETXALAR. Funtzionamenduan dagoen ile-apaindegia errentan emateko. ☎948 635025.

DONEZTEBE. Udaletxe ondoan lokala konpartitzeko. Elkarte, kultur talde, edozein ekintzetarako bulegoa... Arrazoizko prezioan. ☎948 451443/ 687 976828/ dizdira@anasaps.org.

IRUÑEA. Errotxapea auzoan 835 mko lokala errentan emateko. ☎948 265801.

DONEZTEBE. Donama-

riarako errepidean 50 m²ko lokala errentan emateko, bainugela, argia eta ur beroarekin. Lokal komertziala izandakoa. ☎656 768024.

BERA. Altzate karrikan lokal komertziala errentan emateko. ☎948 630788.

BERA
JANARIDENDA
eskualdatzen da
610 61 31 57

LURRAK/ORUBEAK
erosi

BERA. Partikular batek eraikitzeke lur eremua erosiko luke. ☎616 308344.

ZERBITZUAK
denetarik

ARANTZA
Zurgindegia
- Klase guztetako zurgin lanak
- Eskatu erreklamazioak konpromisoa gabe
- Jose Mari Garmendia
Tel. 948 631 948 - 647 810 144
Gertakaria - ARANTZA

BORDA
ISOLAMENDUAK
Termikoak | Akustikoak
Suaen kontrakoak
Plader lanak - Eraberritzeak
Erretintak - Industriadak
Dekorazioak - Sobel modularrak
T/F: 948 637 546 - M: 609 477 377
LESKA - bordeak@bordeak.com

LANA
eskariak

LEITZALDEAN eta LEKUNBERRI INGU-RUAN. Neska bat lan bila. Urte osoan ariko litza-teke: umeak edo adinekoak zaintzen, etxeak garbitzen, zerbitzari, dendarri... Auto propioa eta manipulazio txartela... ☎695 716894/ 948 510665.

BAZTAN-DONEZTEBE - n neska gazte bat Lehen Hezkuntzako umeei klase partikularrak ematen edo haurrak zaintzeko. Esperientzia duena eta autoarekin. ☎678 309025.

MALERREKA, BAZTAN edo BORTZIRIETAN neska gazte bat edozein lanetan ariko litzateke. Sukaldean laguntzen eta haurrak zaintzen esperientzia duena. Autoa ere badu eta ordutegi zabalarekin. ☎660 481578.

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(azaroaren 26tik abenduaren 3ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 33,00 € (=)

Zerri gizena
1,026 € kilo. (=)

Zerramak:
0,400€ Kg/bizirik. (=)

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,01 (=)
1.koa 3,70 (=)
2.koa 3,27 (=)
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,09 (=)
1.koa 3,80 (=)
2.koa 3,47 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 130,00 (=)
idixkoak 200,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 108,00 (=)
idixkoak 130,00 (=)
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,70/2,80
Zaldi-behorrak: 1,55/1,69
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 7,40/8,10
8-10 kilokoak: 6,30/6,60

Doneztebeko **35 urteko igeltsero** batek edozein gauzetan lan eginen luke. ☎665 729001.

LANA

eskaintzak

LESAKA. Lindurrenbor-
da sagardotegian zerbi-
tzari euskalduna behar
da asteburuetan lan egi-
teko. ☎948 637212.

MOTORRAK

salgai

Ford focus 1.8 TDI sal-
gai. GTX matrikula. 13.500
euro. ☎635 739849.

Citroen Berlingo 1.9 D
salgai. 80.000 KM. ☎686
990087/948 630217.

LESAKA. Yamaha R1
egoera onean salgai. Gur-
pila eta arrastreko kit-a
berriak. Extra askorekin.
2.900 euro. ☎619 738965.



Explorer Kobra KBR 125
motorra salgai. 0 kilome-
tro. 1.500 euro. ☎948
637840.



Opel Corsa 1.2 salgai.
90.000 KM. Egoera oso
onean. Errebisioak kon-
tzesionarioetan pasatuak.
1.000 euro. ☎655 716411.

MOTORRAK

tailerrak

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI

(gasolina eta diesela)

MITSUBISHI

(luze eta laburrak)

TURISMOAK



ANIMALIAK

opari

5 hilabeteko **zakurkume**
arra opari. ☎948 630780
(20:00etatik aitzinera).

Hispaniel eta artzain za-
kurraren arteko nahas-
ketako 2 **zakurkume**
opari. ☎679 892622.



DENETARIK

galdu/aurkituak

LESAKA. Bizikleta bat
agertu da ekainean. ☎948
637005.

LESAKA. Bizikleta ager-
tu da, hauraren aulkia gi-
belean duela. ☎948
637005.

DENETARIK

salerosketak

SUNBILLA. Su egurra
salgai, lotean edo xehe-
tua. ☎659 867287 /699
461394.

DONEZTEBE. Taxi pla-
za salgai. ☎609 486052.

Ferrolri **gasolio berogai-**
lua salgai. Gutti erabilia
eta egoera onean. ☎618
962777.



Zero Sette markako **tri-**
kitixa erosi nahi da. ☎635
334816.

1,10x1,25 metroko 10
kontraleiho eta 5 leiho eta
1,10x2,25 metroko 3 kon-
traleiho salgai. Bigarren
eskukoak. ☎690 256709.

3 metroko **haritzezko ar-**
mairua salgai, 3 modu-
lukoa. Egoera onean.
☎617 461649.



Lau su dituen **sukalde**
industriala salgai. Repa-
gas markakoa. Lapiko er-
doilgaitzak ere bai. ☎617
461649.

Egurrezko sukaldea sal-
gia. Deville markakoa eta
76 cmko zabalera. Mo-
du onean. ☎948 635273.

Scooter gorria salgai,

egoera onean. Hainbat
gauza duela gutti berri-
tuak. ☎661 385796.



AVIA **DONEZTEBEKO**
GASOLINDEGIA

Eta nola ez, gure betiko zerbitzuak:
Etxez-etxezko gasolio-zerbitzua | Auto-garbitzaile automatikoa
Presio bidezko garbiketa | Autoaren barneko garbiketa

CLUB AVIA TXARTELAarekin
%2ko deskontua gasolio eta gasolinan
eta %5ko deskontua dendan

www.clubavia.es
Leiza E., 49 • DONEZTEBE | 948 451 679 | www.doneztebe.com

ttipi-ttapa
dagoeneko
951
LAGUNEK
egin dute
gure alde
asterrit asko!

TTIPI-TTAPA
gure laguntza behar du
proiektu zenbakia
15.996

Okindegia Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Especialitatea parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labeen erre, goxo goxo!

Ordoki Industrialdea
Tfn: 948 453 403
31713 ARIZKUN

ZALAIN MOTOR
BERA

Urtebukaerako
ESKAINTZAK eta **LIKIDAZIOAK**
30 IBILGAILU bigarren eskukoak
T. 948 63 11 57 M. 608 50 30 43

urtebetetzeak

Argazki soilak: 4€; bikoitzak: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,34€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txakea; 4) www.ttipi.net bitartez



Goizuetako **IRATI APEZTEXEA** Ansak urtea bete du abenduaren 3an. Zorionak eta muxu handi bat gure potxolari. Atta, ama, Ander eta Antton.



Aunitz urtez **JOXEMIEL** zure urtebetetze eguna gatik, lagun eta senideen partetik. Muxu eta besarkada bat euskal preso eta iheslari guztiei. Animo!



ALODI MANTEROLA URROZ 4 urte bete ditu abenduaren 12an. Zorionak eta muxu bat atta, ama, Leire, izeba eta amaxiren partetik.



GANIX eta **ALAITZ AGILAR** **LAZKANOTEGIK** 7 eta 16 urte beteko dituzte abenduaren 18an eta urtarilaren 7an. Zorionak eta muxu haundi bat atta, ama eta Ainhoaren partetik.



JANIRE TELLETXEAK eta **ASIER IRAZOKIK** abenduaren 14an eta 29an 7 eta 3 urte egingen dituzte. Zorionak eta bi muxu haundi bi xorgintxo hauei familia guztia partetik.



SAIOA eta **OIER ORBEGOZO** lesakarak urteak bete dituzte abenduaren 1ean eta 12an. Zorionak eta muxu haundi bat aitabxo eta amaxoren partetik.



Zorionak attatto!! **JOXE MARK** urteak bete ditu azaroaren 29an. Aunitz urtez familia guztia partetik eta bi muxu berexi M^a Joxe eta Saraihen partetik.



MIRIAM! Azkenean aliegatu zara nire urte kopuru berera. Abenduaren 16an berendu goxo-goxoa espero dut. Muxu haundi bat eta ongi pasa eguna!




LUISA FAGOAGA BABAZE zubiatarak 6 urte bete ditu abenduaren 14an. Muxu haundi bat Auritzko familiaren partetik. Berendu goxoa prestatu!



Zubietako **LUISA FAGOAGA BABAZE** abenduaren 14an 6 urte bete ditu. 6 muxu haundi atta, ama, Egoi eta familia guztia partetik.



Larregiko **MIREN** eta **ARKAITZ** abenduaren 13an eta 15ean urteak bete dituzte. Muxu haundi bat eta ongi pasa eguna! A, eta txokolate goxoaren zain geldituko gara.



Ei!!! Xahartzen ari zara e! Muxu haundi bat zure lankideen partetik. A! Eta ez ahaztu dolmen goxoak ekartzeaz!



OIZKO ENERTIZ ZAPIRAIN ARIZTEGI abenduaren 9an urtea bete du. Zorionak zure atabxi eta amaxiren partetik. Muxu potolo bat, monona!



IRATI UBIRIA GARMENDIA lesakarak abenduaren 3an urtea bete du. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



JONAI MITXEO OSKOZ eta **MIKEL AROZENA MITXEO** lehengusuek urteak bete dituzte abenduaren 14an eta 15ean. Zorionak etxeko tikiiei eta muxu potolo bat familiaren eta bereziki Ioritzaren partetik.



Elko, Nevada MICHELE IGOAK 16 urte beteko ditu abenduaren 26an. Zorionak Lesakako familiaren partetik.



SUNBILLA OIER PETIRENA **ANZIZAREK** abenduaren 20an 7 urte beteko ditu. Zorionak etxeko guztien partetik, baina bereziki Klemente, Iraide, Garaine eta Maiderren partetik. Ongi pasa eguna eta zazpi mila muxu.



Zorionak **TERESA** eta zure biloba **IRAITZ** eta **GARAIRI**. Aunitz urtez zuen familiaren partetik. Muxuak.



BEÑAT ETXEPARE AIESTARAN lesakarak abenduaren 8an 2 urte bete ditu. Zorionak familia guztia partetik.



EGOITZ GOÑI OSKOZ arantzarrak abenduaren 3an 4 urte bete ditu. Zorionak eta muxu aunitz Arantzako familiaren partetik.



EGOITZ GOÑI OSKOZ arantzarrak abenduaren 3an 4 urte bete ditu. Aunitz urtez eta muxu pila-pila Oizko familiaren partetik.



Aunitz urtez **GUAPETONA!** Aliegatu da zure eguna! Ongi pasa eta ea afari goxo batera gonbidatzen gaituzun. Muxuuu! Kaxkarrak.



NORA PALENCUELA INDABURU eta **LEIRE IRIBARREN INDABURUK** 4 eta 8 urte beteko dituzte abenduaren 21ean eta 26an. Zorionak familia guztia partetik.



IVAN eta **OHIANA** beratarrek urteak beteko dituzte. **IVANEK** 6 urte egingen ditu urtarilaren 2an eta **OHIANAK** urtea abenduaren 27an. Zorionak gurasoen partetik.




IRAIA SALABERRIA NARBARTE arantzarrak abenduaren 30ean 2 urte beteko ditu. Zorionak etxeko partetik. *Gure Iraia iribei egin da, bi urte-tako helmugara/ abaita ederraz hazitzen ari da, Martzeneko potxolada/ arren irri ta algarra, bixipoxan islada/ sorgin hutsa dago alaba/ ze altxor handia ebian degun/ konturatzen ote gara?*



LOREA SALDIAS MAKAZAGA Goizuetako gure printzesak urtea beteko du abenduaren 31n. Zorionak Iturengo amatxi, atautxi, izeba Naiara eta osaba Karlosen partetik. Muxuuu!



OSKITZ eta **SUHARRI MADARIAGA** **OTEGIK** eta **AMATXOK** 5 eta 33 urte beteko dituzte abenduaren 29an. Zorionak familia guztia partetik eta batez ere, attatto eta Araitzen partetik.



Zorionak **Elizondoko EIDERRI** Xabier eta Enekoen partetik. Abenduaren 14an 7 urte egingen ditu.





JOSEINA ^{ABENDUAK} **18** ^{LARUNBATA}
01:00 - 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

TXUTXINIBANEZ + **TEKILADA DEBALDE** | **Santitas** ^{ABENDUAK} **25** ^{LARUNBATA}
00:30 - 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

URTEZAHARGAUA ^{ABENDUAK} **31** ^{ORTZIRALA}
02:00 - 9€ eta kontsumizio bat dohainik 04:00ak arte Irekia 09:00ak arte

LURDJOTAK ^{URTARRILAK} **1** ^{LARUNBATA}
01:00 - 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

ERREGEENGUA ^{URTARRILAK} **5** ^{ASTEAZKENA}
DJ NASH + DJ LABADIE JR.
01:00 - 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

 garagardolegia | **MENUAK, MUSIKA ZUZENEAN...**
OSTIRAL, LARUNBATA ETA JAIEGUNEKO BEZPERETAN IREKIA
ERRESERBAK: TEL. 948561883

 **Lur**
WWW.LURELIZINDO.COM



BERTSO SAIO DIDAKTIKOA
Eguna: 2010eko abenduak 17, ortzirala
Ordua: 20:30
Lekua: Beralandeta (Bera)

Bertsolariak:
**JULIO SOTO, BEÑAT GAZTELUMENDI,
PATXI IRIART eta ESTITXU AROTZENA**

Didaktikaria eta aurkezlea:
KARLOS AIZPURUA

Antolatzailea:  Laguntzailea: 



NAFAR MENDI
merkatalgunea
Arraioz | Baztan-Bidasoa

HIPERSIMPLY Baztan
Bidasoa

HIPERSIMPLY NAFAR MENDITIK eguberri on eta urte berri onak
opa dizkizuegu inoiz baino eskaintza zaratatsuagoekin!!!

3,63€

Nafarroako ardoa, crianza
GRAN FEUDO,
75 cl.

3,78€

Nafarroako ardoa, crianza
SEÑORIO DE SARRIA,
75 cl.

3,84€

Errioxako ardoa
FAUSTINO VII,
75 cl.

4,97€

Errioxako ardoa, crianza
EL COTO,
75 cl.

4,60€

Cava
CODORNIU,
extra semi edo brut, 75 cl.

7,80€

Cava
ANNA CODORNIU,
brut, 75 cl.

6,50€

Vermouth
MARTINI
rosso edo xuria, 1 L.

11,35€

Krema
BAILEYS,
70 cl.



Gainera, zure
SIMPLY TXARTELA

Eguberrietan,

%10-15 eko
deskontua
puntuetan
ardo guztietan*



* folleto honetako ardoetan izan ezik

Prezio hauek balioko dute abenduaren 9tik 24ra

Eta gainera...
Parte hartuko duzu
auto baten
eta moto baten
ZOZKETAN

Hipersimply Baztan Bidasoako
bezeroendako bakarrik

Gutxieneko erosketa 30€
eta SIMPLY txartelarekin.
Eguberrietako Zozketa Handian
parte hartuko duzu.

Zozketa eguna:
2011/01/15, 15.00etan.
Saria egun horretan bilduko da.

Zozketaren oinarriak saltokian daude ikusgai.



1. SARIA
auto bat
Peugeot 206+



Argazki honek ez du
kontrata baliorik



2. SARIA
moto
bat